

Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?

Mikel Zalbide / Hizkuntza / 2003-07-07 / 09:27

Presaka eta arnasestuka idatzitako artikulua da oraingo hau. Nahiago nukeen bestela izan balitz, denboraz eta soseguz prestatzeko aukera izan banu alegia, hori eta gehiago ere merezi baitu gai honek *hemen eta orain*.

Nahi izatea ez da, ordea, aski. Bihotzez eskertzen dut handik eta hemendik egiten zaidan hainbat gonbite eta eskabide prestu, gai honetaz dakidantxoa azal dezadan. Saiatu ere saiatzen naiz, dezakedan neurrian, gonbiteei erantzuten. Beti ez da erraz izaten, ordea: ez gonbiteari baietza ematea eta ez, batez ere, agindutako lana garaiz eta txukun aurkeztea. Gauzak borobildu gabe uztearen damuak, halakoetan, zinez nahigabetzen nau. Urtean lauzpabost txosten prestatu eta jendaurrean azaltzeak bere lana du, ordea. Unibertsitatean edo ikerketa-guneren batean lan egiten ez dugunontzat are gehiago. Hori ere, hala uste dut nik behintzat, gure egoeraren muga-baldintzen eta egiturazko ahuldadeen ezaugarri nabarmena da: aski aurrekontu zabalak eskueran dituen herri honek ez dauka kontu hauei zientzi arauz eta berariaz erreparatuko dien azterketa-instantziarik. Euskalgintzaren lehentasunak zehazteko aukera eta eginbidea dutenek badute nire ustez, gabezia hori dela-eta, zer pentsa eta zer erabaki. Askok besterik uste izan arren egia osoa baita, orain ere, Kurt Lewis-en esaera hura: "There is nothing as practical as a good theory" (1). Erantzunkizuna eta aukerabidea ez da, ordea, agintari-jendearena bakarrik. Euskaltzale gehienon (eta, horrenbestez, gure herri-izatearen) ezaugarri nabarmena ere badela esango nuke, gehiegizko atrebentzia ez bada, gogoeta-lanari hain dedikazio ahula eskaintzea: askozaz emanagoak gara gehienok euskararen aldeko ekimen bizian murgiltzera (*nola edo hala, baina zerbait*, egitera) hain funtsezkoa dugun arazoari gogoeta-lan jarraituaz irtenbide arrazoizkoak bilatzen saiatzera baino (2).

Bego hori horretan, oraingoz, eta natorren harira. Jardunaldi hauen prestatzaileak, Ikastolen Elkartek, izenburu eta gai-eduki arteza eskaini zidan orain dela zenbait hilabete, gaurko txosten honetarako: "hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hurbilpen teorikoak". Eskabidearen izenburua zertxobait aldatuarren bere osoan eutsi nahi diot edukiari: ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz zer dio mundu zabaleko teoriak? Esan dezadan, gerora gabe, zientzi adar berria, landu-arina eta paradigma finkoen aldetik urri samarra dela oraindik, zoritxarrez, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz diharduen jakintza-alorra. Azken hamar urtean bultzakada berria izan badu ere (ikus txosten-amaierako bibliografia), urrun dago oraindik zientzia establezitu gehienen lanketa -eta egituratze- maila sendotik. Ez da harritzekoa, horregatik, bere baitako formulazio eta hurbilbide teorikoak ere aukeran gutxitxo, gordin samarrak eta predikzio-indar mugatukoak izatea gaur-gaurkoz.

Language planning edo *hizkuntz plangintza* dugu itxuraz, azken 35 urteotan, gai honetaz kezkatu diren jakitunen artean gehientsuen erabili den izendapena (3). Ez bakarra, ordea: *hizkuntz normalkuntza* eta *hizkuntz berreskurapena* (lehenengoa batez ere) oso ezagunak dira gure artean. Azken hamar urte honetan, bestalde, mundu zabalean askotxo hedatu da RLS edo *Reversing Language Shift* esamoldea, zenbaitek *hizkuntza indarberritzea* (HINBE) (4), deitu ohi duguna. RLS horren pare-parekoa den *language revitalization* (*hizkuntza biziberritzea* alegia) ugari zabaldurik dago, orobat, ingelesezko bibliografia ugarian. Lehendik aski ezagunak ditugu, era berean, *language revival*, *reversal*, *regensis*, *restoration*, *restabilization*, *survival* eta *development* (5). Esanahiaz ez dira guztiak bat, ehuneko ehunean: parez pare erabili ohi dira, ordea, askotan. Plangintza-modu jakin bat dira, berez, indarberritze edo biziberritze-saioak: gainbehera datozen hizkuntza ahulekin egiten diren plangintza-moduak.

Izen bat eman edo beste, gauza bat dago hemen argi: hizkuntz plangintzaren teoria gehienek deskribapen kontuan hobeto funtzionatu dutela orain arte, iragarpen edo predikzio alorrean baino. Eta are okerrago gabiltzala, batez ere, preskripzio kontuan. Euskararen atzerakada, XVIII. mendetik honakoa batez ere, nola eta zergatik gertatu den azaltzea ez da hain lan erraza. Baina aztertzaile askotxo saiatu dira horretan eta, zenbait kasutan, aski informazio zabal, zehatz eta argigarria eskuratu digute. Deskribapen sinkronikoak ere, Sánchez Carrión "Txepetxek" orain dela hogeita hamar bat urte Nafarroako egoeraz egin zuena adibidez, ugaritzen ari zaizkigu eta aski adierazgarriak dira. Deskribapen aldetik badugu, hortaz, zer irakur eta zer ikas. Predikzio kontuan gutxitan egin izan dira, aldiz, antzeko saioak. Eta, egin direnean ere, gutxitan asmatu dute. Begien bistan (edo jakiniturri sendoz dokumentaturik) duguna deskribatzea errazagoa da, inola ere, bihar-etzi zer gertatuko den iragarri eta erdiz erdi asmatzea baino. Wilhelm Humboldt-ek orain dela 200 urte egindako iragarpenak berak ere, hain jakitun opetsuak jaulkia izan arren, huts egin zuen nagusiki: gizarte-urak zihoazen bidetik zihoazelarik, 1900erako euskara galdurik izango omen zen erabat. Hori zioen Berlingo unibertsitatearen sortzaileak. Ehun urte ezezik berrehun ere pasa dira ordea eta, askotan pentsatu izan badugu ere *iya guriak egin duela*, bizirik gaude oraindik. Kultura general zabala eta hitz-un-herri txikiarekiko maitasunezko nahikera ez dira aski izan, ez Humboldt-ek kasuan eta ez gainerako gehienetan, prognosi zuzen-zehatzik egiteko. Zenbait kasutan, halere, predikzio edo iragarpen zuzen samarrak (nahiz eta, gehienetan, predikzio tristeak izan) egiten ikasiak gara. Euskarak Iparraldean jasateko zuen gainbeheraren zenbait ezaugarri geotopografiko begi argiz antzeman zuen Reclusek orain dela 140 urte inguru. Azken mende-laurdeneko *language shift* edo mintzaldatzeko larriaren iragarle zehatza gertatua da orobat, euskaltzaleon zoritxarrerako, Piarres Lafitte handia. Bere laburrean eta mugatuan ere ez da hain gutxi, astiro eta erne diharduen irakurlearentzat, predikzio alorretik ikas daitekeena.

Benetako zuloa, hutsarte handia nolanahi ere, preskripzio alorrean daukagu. Gauza bat baita “hemen zer gertatu (edo gertatzen ari) da?” galderari erantzutea (deskripzioa), beste bat “martxa honetan jarraituz, hemen zer gertatu behar du?” galdezka datorrenari erantzun egokia ematea (predikzioa), eta bestea, oso bestea gero, “zer egin behar da, hemen eta orain, euskarak burua jaso dezan?” jakin nahi duenari konponbide egokia zehatz-mehatz azaltzea (preskripzioa). Azaltzea eta, batez ere, asmatzea. Mundu zabaleko hizkuntza ahulak indarberritzeko formulazio teorikoak ugarituz badoaz ere, aski formulazio apalak dira oraingoz. Deskripzio alorrean aurrera egin da dudarik gabe, eta predikzio alorrean aski konstruktuko koherenteak sortu dira azken 50 urtean. Preskripzio-ahalmenari dagokionez, ordea, hizkuntz plangintza gehiena oso ahula da oraindik. Guk berriz horixe behar, justu-justu: norbaitek garbi esatea, behingoz, gure gaitza (hots, euskararen ezina) sendatzeko zer egin behar dugun. Zer egin behar dugun *hemen* eta *orain*, benetan ditugun baliabide mugatuak ditugularik eskueran.

Aitor dezagun, beraz, hasiera-hasieratik: mila aldiz hobeto esplikatzen dute orain arteko teori saio hauek hizkuntzak nola eta zergatik gaixotzen diren, nola senda daitezkeen (batez ere *hemen* eta *orain* nola senda ditzakegun) baino. Eragozpen larri hori eta guzti, ez da hutsaren hurrengo XX. mendeko corpus teoriko horrek erakusten diguna. Bere muga-gabezia guztiekin ere, zinez merezi du mundu zabaleko lanketa-saio horiek arretaz irakurri eta aztertzea. Azterketa horri ekiten dionak, berriz, behaztopa-harri nabarmena izango du bide erdian, lehen pausoa ematen hasi orduko: soziolinguisten terminologia bereziaren bihurria! Erdi- eta goi-mailako ikasketak egin dituen pertsonak, nahiz ez izan hizkuntzalaria, ondo samar menderatzen du linguistikaren oinarri-oinarrizko terminologia: *aditza* eta *deklinabide-atzizkia*, *a organikoa* eta *galdegaia* zer den badaki, neurri batean behintzat. Bere bagaje kulturalaren zati dira hitz horiek, eta horien pareko beste hamaika. Eskolan (edo alfabetatzerakoan) aski zehatz erakutsi zaizkio, eta erabili ere egiten ditu aldian behin. Soziolinguistikazko kontzeptuekin eta izendapenekin ez da ordea, zoritxarrez, halakorik gertatzen. Galde egiozu aldameneko lankideari, *diglosia* zer den; esaiouzu *language shift* edo *mintzaldatzea* lauzpabost lerrotan definitzeko. Euskara-erdaren alorreko *dominance configuration* edo *nagusitasun-moldaeraz* eska iezaiozu azalpen itxurazkorik. *Mintzaera sorta* edo *verbal repertory* delakoaz egiozu galde. Gramatikazko ezagutzen pareko bagaje kultural soziolinguistikorik ez duela, edo ondotoz landu-arinagoa duela, ikusiko duzu gehienetan. Hizkuntzen gizarte-dimentsioaz eta bere inplikazio soziokulturalaz hitz egiterakoan, ordea, kontzeptu-marko egonkorak eta izendapen-moldeak behar-beharrezkoak ditugu: *deklinabide-atzizkia* eta *a organikoa* bezain beharrezkoak. Hortik hasi beharko dugu, hortaz, axal-axaletik izango bada ere.

I. Definiziozko hasi-masiak.

“Hasi dek hau, orain ere, zezenari adarretatik heldu ordezkintxo egiten!”. Hala pentsatuko du agian, gaurko gaiari nondik heldu nahi diodan ikusita, zuetako batek baino gehiagok. Alferlana irudituko zaio halakori, definizio bidezko kontzeptu-lanketa hori: “ezer ondo baldin bazekiagu, horixe dek hain zuzen: zer dan *ahuldadea* eta zer *indarra*. *Indarberritzea* ere bistan zegok zer dan: flakeziak jota dagoena bere ahuldade horretatik ateratzea. Nahikoa eta sobra diagu dakigunetik abiatzearekin. Burua ez dezagun alferrikako hitz xelebreekin zorabiatu!”. Hori dena egia da, neurri batean; baina horrek bakarrik ez du balio. Hurbilpen *teorikoa* eskatu baitzaigu hemen, ez intuizio hutsezko deskribapen bitxia, nork bere ingurutik ongi ezagunak dituen gertaeren azalpen itxuroso bezain antzua (6). Deskripzio-ahalmenaz gainera predikzio-indarrak ere baduen eta, batez ere, preskripzio-elementurik eskain diezagukeen jakite-multzoaren bila gabiltza funtsean. Eta jakina: teoriaranzko hurbilpen-saio horretarako, nahi badugu eta ez badugu, kontzeptuak mugarritatzen saiatu beharra daukagu. Bestela ez dugu gauza onik aterako. Ezin dugu eguna definizio perfektuaren bila galdu; gauden egoeran gaudelarik behin-behineko definizioekin konformatu beharko dugu oraingoz, hainbatean. Behin-behineko makuluez baliaturik ere behar-beharrezkoak ditugu, ordea, kontzeptu-argitze horiek. Ez gara makalak izaten, tabernako barran edo bazkalondoko mahai-inguruan, euskararen arazoa konpontzeko intentzioarekin beti ere, elkarren gainka eta elkarri apenas entzun gabe, “ba neri iruditzen zait”-ka hasten garenean. Gure gai kuttun, maiteenetakoa ere bada hori, izatez. Egundoko ilusioz, *korajez beterik* abiatu ohi gara, horrexegatik, “euskararen kontua konpontzeko” elkarriketa, hitz-aspertu lasai edo diskusio bero horietan. Eta nola bukatzen dugu?. Hasieran baino hornituago jakitatez?. Elkarren lagunago bihotzez? Gehienetan, ez. Hori ez da, beraz, bidea. Ez bide zuzen eta egokia behintzat, hain inportantea omen dugun kontuari merezi lukeen trataera emateko. Intuiziozko jokabide horretatik aurrerago, eta hortik gora, jo beharra daukagu guztiok.

Inor gutxi saiatzen da, ordea, aurrerapauso eta sakontze-bide horretan barrena. Salbuespen jakinak alde batera utzita negargarria ere bada, alor honi dagokionez, nagusiturik daukagun axolagabetasuna. Egia da tradizio zientifiko handirik ez dagoela mundu zabalean indarberritze kontu hauetaz, nondik ikasia eta nola eskuratua erraz eskainiko digunik. Hori bezain egia da, ordea, nagitasun intelektual nabarmena ageri dela nagusi, ahuldutako hizkuntzen indarberritze-saioei dagokienean. Hori bera ere ez ote dugu, beste motibo estrukturalagoekin batera, hizkuntzaren soziologiak gure artean bizi duen egoera ahularen, askotan prezientifikoaren, iturburu eta seinale?. Eta nola aterako gara putzu-zulo horretatik, jakintza-alor hori etxekotu nahi genukeenok etxekotze-lan hori nola egin ez badakigu oso ondo, eta ongien jakin behar luketenek jakiteko gogo handirik ez badute? Dagoen bide bakarretik: mundu zabalean gai horretaz osatzen eta garatzen ari den jakitatea eskuratuz, ikasiz, hausnartuz, gainerako formulazioekin konparatuz eta, kontzeptu-argitze egokiak, jendaurrean agertuz eta jasoko ditugun kritiken arabera zorroztu, eguneratuz eta gure koordinatu soziokulturaletan egokiro txertatzen saiatuz. Nekez izan liteke hori guztia, inondik ere, pertsona edo lagun-taldetxo bakarrak, bere baitarik eta saio-kolpe batez, egin dezakeen lana (7). Are gutxiago, jakina, kontu horietan murgil egitera ausartzen garen apurrok teoriakzko prestaeraz, esperientzia praktikoz edo alde bietarik behar bezain jantziak ez bagaude. Gure azalpenak osagabeak izango dira ezinbestean: kontzeptuzko integrazio-maila handirik gabeak hainbatean, eta eguneroko gizarte-bizitzak eskaintzen dizkigun gertaera eta emaitza konkretuekin nahi baino ezkongaitzagoak ere bai hainbatean. Hasten ez bagara ez dugu, ordea, inoiz biderik zabalduko. Nork geure mugak aitortuz has gaitzen, hortaz, dakiguntxo hori elkarri agertzen, jasoko ditugun kritika-oharrak hausnartzen eta, elkarren arrimuan, azterbide osatuagoa eskuratzen.

Atzerriko formulazioak dira, hortaz, oraingoan ikusiko ditugunak. Horrek ez du esan nahi etxean, lehen eta orain, teori izaerazko ezer onik landu ez denik. Inola ere ez dut hori uste nik: behin baino gehiagotan aitortua dut, aitzitik, gure aurrekoen esan-eginak behar bezala jaso, egituratu eta hausnartu gabe edukitzea zenbateraino dugun eragozpen larria. Asko baita, benetan, ahuldutako hizkuntza indarberritzeari buruz aurrekoen esan-egin haietatik ikas litekeena. Egia da ordea, edozein kasutan, kanpoko formulazio teorikoetara jo gabe nekez etxeko altxorra behar bezala ustiari ahal izango dugula. Atzerriko formulazio teorikoekin daukagun eskasia ez da, gainera, informazio faltarena soilik. Hori bezain kaltegarria da, are okerrago ez bada, bigarren eskuko informazioaz lan egiteko daukagun joera. Atzerriko konstruktuko teoriak horien iturburuetara jotzeko ohitura handirik ez dugu, hizkuntz soziologiaren alorrari dagokionez, gure artean. Diglosiaz jarduten dugunean, adibidez, diglosiaren bertsio eratorri eta aski markatu batez baliatu ohi gara lautatik hirutan: Valentzia aldeko

soziolinguistikak orain dela 30 bat urte garaturiko bertsioaz. Hutsaldi larria da, nire ustez, iturburuak alde batera uzte horrekin egiten duguna.

Asmo horiek gogoan izanik prestatu da, beraz, honako txosten hau. Hoberik ezean has gaitezen, hortaz, itxuraz errazena dirudienetik. Zer da *ahuldutako hizkuntza*, zer da *indarberritzea*?

I. 1. Zer da *ahuldutako hizkuntza*?

Ahuldutako hizkuntza diogunean, egungo bibliografia tekniko ezagun eta pisuzkoenean *endangered language* edo *threatened language* esaten den hori azaldu nahi genuke. Galtzeko arriskuan dagoen, bere bizi-iraupena mehatxupean daukan hizkuntza. Belaunaldi batetik bestera atzeraka doan hizkuntza: gero eta hitzun gutxiago dituelako eta, hori aski ez balitz, hitzun horiek gero eta esparru edo funtzio gutxiagotan erabiltzen dutelako hizkuntza ahul hori. Hori da, funtsean, *ahuldu* horrekin azaldu nahi dena: hizkuntza atzeraka doala belanez belan eta, egungo joera nagusiari buelta ematen ez bazaio, galtzeko arrisku bizian dagoela. Euskaraz ez dago tradizio sendorik, kontzeptu horri termino zehatza atxikitzeko. Aukera posible *bat* besterik ez da, hortaz, *ahuldutako hizkuntza* delako hori. Fishmanek berak *weakened language* ere erabiltzen du han-hemen (cf. Fishman, 1991:345, 349), eta azken horren itzulpena gure gizarte-girorako egokiena ote den-edo iruditu izan zait. *Arriskupeko* edo *mehatxupeko hizkuntza* ere esan izan zaio inoiz, ingelesezkoaren itzulpen zuzenez. Alemanez ere, ingelesaren bidetik, *bedrohte Sprache* esan izan diote kontzeptu horri. Frantsesez aldiz ez dago, dakidalarik, hitzez hitzeko itzulpen zuzenik: *langue moin repandue* izan liteke bere ahaide hurbilena (cf. *Lesser used language*, gure *eremu urriko hizkuntza*), erabat uztarri bereko sinonimoa ez den arren. Espainolez (eta oro har, maileguz edo kalko zuzenez, Espainiako hizkuntza gehienetan) *lengua minorizada* izango da seguru asko kontzeptu hori azaltzeko esamolde ezagunena, nahiz eta bere jatorrizko esanahia eta egungo erabilera zabalena partez behintzat bestelakoa izan. Izendapen horiek guztiek badute bestalde, jakina, *minority language* (8), *langue minoritaire*, *lengua minoritaria*, *Minderheitensprache*, *hizkuntza gutxitu* edo *minoritario* delakoarekin harreman zuzena. Azterketa xumeago batek erraz antzemango lituzke ordea, mugarriak ezartzen hasi orduko, beraien arteko diferentziak eta gainezarmen selektiboak. Zortzigarren oin-oharreko bi definizio horien arabera, esate baterako, hizkuntza *minoritarioak* ez du, ezinbestean, *ahulduta* egon beharrik: ez, behintzat, *ahuldu* hitzari txosten honetan ematen zaion *endangered*, *threatened* esanahi zehatzaz. Praktikan hala gertatzen da, ordea, gero eta ugariago. *Minoritario* edo *gutxiengozko* izate horrek baditu gainera, bere baitan, bereizbide nabarmenak. Europa industrialduak azken 50 urtean, eta euskaldunok berrikitan, bizi izaten ari garen inmigrazio-fenomenoak aparteko trataera eskatuko du, dudarik gabe, *gutxiengo* edo *minoría* etnolinguistikoen oraindainoko izendapenei dagokienean: *indigenous* (Hirugarren Munduan sarriago *aboriginal*) *minorities* eta *immigrant minorities* artean bereizi beharra gertatuko zaigu, itxuraz, gero eta sarriago.

Kanpoko axala alde batera utzita gatozen ordea barruko mamira. Esanahiari dagokionez zer esan nahi du, konkretuki, *threatened language* delako horrek? Aurreko pasartean eskaini dugun lehen azalpen-saioaz aparte zer gehiago esan dezakegu, *ahuldutako hizkuntza* zer den adierazteko? Hitzun-elkarte baten ohiko hizkuntzak ezin diola bere buruari eutsi. Zer da ordea *hitzun-elkartea*? Etxean eta kalean, familian eta lagunartean hizkuntza jakin bat erabiltzen duen gizataldeari esaten diogu hemen, lehen hurbilketa moduan, hitzun-elkartea. Eguneroko bizia partez edo osoz euskaraz egiten dugun euskaldunok, hortaz, euskal hitzun-elkartea edo *Basque language community*, *Basque speech community*, *baskische Sprachgemeinschaft* osatzen dugu. Zer da, ordea, hitzun-elkarte batek "bere buruari ezin eutsi" izatea?: hitzun-elkarte horren mintzabeharrak (erabatekoak edota, gutxienez, eguneroko mintzajardun arruntari dagozkion L aldaerazko (9), hainbat adierazpide) ezin dituela bertako mintzairak bere baitarik ase, beste bat (normalean albo-hizkuntza nagusia, Fishmanek azken aldian *Big Brother* deitu ohi duena) ari baitzaio eguneroko jardun-esparru arrunt horiez jabetzen. Neke-ezintasun horren eraginez, hizkuntza horren giza arteko erabilera (eta, horren ondorioz, bere utilidadea) murriztuz doa belaunaldi batetik hurrengora. Hori adierazi nahi dugu, batez ere, *endangered language*, *threatened language*, *bedrohte Sprache* edo *ahuldutako hizkuntza* esaten dugunean. Demografiak zein funtzionalki atzera doala hizkuntza: belaunaldi batetik hurrengora gero eta gutxiago direla hizkuntza horretaz baliatzen diren hitzunak eta, horrezaz gainera, hitzun-elkartea bere baitan dituen erabilera-eremu, jardun-esparru, harreman-sare, rol-harreman eta situazio guztien artetik gero eta gutxiagotan erabiltzen dutela hitzun horiek beren jatorrizko hizkuntza. Gurera etorri, erdaraz egite hori goi-mailako jardun-esparru jaso-formaletatik kalean eta lan-giroan nagusi izatera pasa dela eta, hori aski ez bailitzan, lagunartera eta are, zenbaitetan, etxegirora ere sartzen ari zaigula. Eta jakina: hori guztia kontuan izanik, euskaldunok erdaldunekin (edo erdaldunik ere tartean duen solaskide-multzoarekin) jarduten dugula gero eta ugariago (erdaraz noski, "para que nos entendamos todos"). Eta, segun zertaz ari garen, gure artean ere erdaraz egitera jotzen dugula (10). Hori dela-eta, erdaldunek edo erdal-elebidunak gero eta behar txikiagoa nabari dutela, euskarak bere-bereak izan dituen jardun-esparru horietan bederen erdaraz ez jarduteko. Belanez belanez gainbehera bizian datorrela hizkuntza hori, horren guztiaren ondorioz, bai hitzun-kopuruaren aldetik eta bai bere funtzio-esparruen ikuspegitik.

Kontura gaitezen, nolanahi ere, *ahuldutako hizkuntza* diogunean *ahuldutako hitzun-elkartea* esaten ari garela funtsean. Desagertzeko edo galtzeko arriskuan dagoena, izan ere, hizkuntza horretaz baliatzen den hitzun-elkartea da. Zenbaitek esan dezake, hitzunak (eta hitzun-elkartea, beraz) ez direla galtzen. Euskaraz egitetik erdaraz egitera (oro har, X hizkuntzatik Y hizkuntzara) pasatu arren hor segitzen dutela hitzunek bizirik: hitzun horiek edo, denboraren harian, beren ondokoek. Ikuspegi itsua da, ordea, hori: jendeak han jarraituko du bizi izaten, baina *beste zerbait* izango da handik aurrerako gizatalde hori, ikuspegi etnolinguistikoaren eta, are, soziokulturalaren aldetik. Ez da batere harritzekoa, hortaz, Fishmanek berak *threatened* hori zer den azaltzerakoan *language community* edo *speech community* kontzeptura jo izana: *ahuldutako hitzun-elkartea* honela definitu izan ditu berak: "speech communities whose native languages are threatened because their intergenerational continuity is proceeding negatively, with fewer and fewer users (speakers, readers, writers and even understanders) or uses every generation" (Fishman 1991: 1). Indarberritu nahi direnak ere, hortaz, hizkuntzak baino areago hitzun-elkartea dira.

Ahultze-kontuak, beraz, osagai nagusi bi dituela ikusi dugu: demografikoa (gero eta hitzun gutxiago) eta funtzionala (gero eta funtzio-esparru gutxiagotara mugaturiko erabilera). Berdin inportanteak al dira biak, gainbehera demografikoa eta funtzionala? Bietan bat aukeratzekotan, *ahuldutako hizkuntza* desagertzeari dagokionez zein da erabakigarriena? Erantzunik errazena badakizu zein den: "Hori ezin da jakin, izaeraz eta neurpidez arras bereziak baitira faktore biak. Ezin da esan, beraz, bata bestea baino inportanteago denik". Hala da hori, neurri on batean. Ikuspegi kuantitatibo batetik ezin dira, alegia, bata eta bestea konparatu. Hizkuntzak zergatik galtzen diren esplikatzen duten formulazio askotan, halaz ere, funtzio-esparruen ahultze- eta gesaltze-faktoreak demografiarenak baino pisu-indar biziagoa izan ohi du. Aurrerago ikusiko dugunez, HINBE

edo RLS formulazioaren abiaburua bera funtzio-esparruetako mintzaldatzeko kontuan zentratzen da. Hitzun-kopurua faktore inportantea da beti, baina hizkuntzen bizibidean eragiten duten faktoreak asko dira. Gauza jakina da, bestalde, demolinguistika bera ez dagoela hitzun-kopuru hutsera mugatu beharrik: ondotxo aberatsagoa (esanguratsua eta adierazgarriagoa) da faktore hori, hitzun-kopuru hutsari hitzun horien isolamendu-neurria, beraien kontzentrazio-maila eta beraien distribuzio-banakera eranstean zaienean. Feroe uharteko 50.000 biztanleak oso hitzun gutxi dira, kopuru hutsari dagokionez, bere baitako hitzun-herri osasuntsua eratzeko. Atlantikoaren erdi-erdian daude ordea, jira-buelta zabalean auzo-herri handirik gabe. *Big Brother*ik gabe, alegia. Feroetar guztiak aski isolaturik eta leku bakarrean kontzentratutik daude, eta leku horretan gehiengo zabala osatzen dute. Isolamendu fisikoa erabatekoa dute: XXI. mende *virtual* honetan izan litekeen bezain erabatekoa. Konpartimentazio espazial horrek, fisikoki isolatutako populazio trinkoa izate horrek alegia, ematen die feroetarrei, beste zenbait faktoreren laguntzaz, bere baitariko hitzun-elkarte aparta izaten jarraitzeko indarra eta aukera. Bistan da 50.000 lagun oso gutxi direla, Britainia Handian eta are Danimarkan barreiatuta. Aski den adinako kopurua osatzen dute, ordea, Atlantikoaren erdian. Alde horretatik, jakina, faktore funtzionala bezain esanguratsua, erabakigarriagoa ere bai, bihur daiteke demografia hutsa kontzentrazio eta distribuzio-tasaz osatzen duen irizpidea.

Norbaitek esango dit, eta ez du arrazoirik falta izango, gauza bat konpontzeko ondo asko zeuden beste lauzpabost estropeatu dizkiodala. Hor nonbait entenditzen zuen hitz bat esplikatzeko, nondik heldu ere ez daukan beste hitz-mordoa golkoratu diodala alegia. *Ahuldutako hizkuntza* teknikoki zer den argitzen hasi orduko, hori baino ilunagoko termino-mordo batekin erantzun diodala: *hitzun-elkarte*a zer den ikasi behar izan duela lehenik eta, hori ikasi orduko, beste hainbat hitzarte bitxi plazaratu ditugula; zer da izan ere *mintzajarduna*, eta zer *aldaera*?; zer dira *erabilera-eremuak*, zer dira *jardun-esparruak* eta *jardunguneak* (alemanez *Gebrauchsdomäne*, ingelesez *contexts* edo *domains of language use*)? Zer dira *harreman-sareak*, *rol-harremanak* eta *situazioak*?; zer da, azkenik, (luze-zabaleko) *mintzaldatzea*, ing. *language shift*, al. *Sprachverschiebung* edo *Sprachverlagerung*, fr. *transfert de langue*, esp. *desplazamiento lingüístico* edo, katalanetik jasota, *substitución lingüística* famatua (11)? Zer da, azkenik, hizkuntza jakin baten *funtzio-esparrua*? Arrazoi du halakok, neurri batean, bere kexuarekin: "Soziolinguistikako azalpen horiek, eta horietaz diharduzuenok ere hor nonbait, ez dago erraza entenditzen. Alde ederreko garbitasuna zegoen lehen, hizkuntza kontuak denok entenditzeko moduan azaldu ohi genituenean: erdaraz ari zirenei *erdaldunak* esaten zitzaion, euskaraz egiten zutenei *euskaldunak*, eta euskaldunok bizi ginen herriari *Euskal herria*. Eta puntu. Zertarako behar duzu gehiago?"

Hala esanda bai: istorio polita da hori. Seguru al zaude, ordea, egia dela?. Seguru al zaude, *hemen* eta *orain* gauzak hori bezain sinple, argi eta zorrotz direla?. Atera ditzagun kontuak, bakoitza geure etxetik hasita. Guztiok ezagutzen ditugun adibideetara etorritik egin ditzagun bizpahiru galdera, otxan bezain xalo. Hasteko, hel diezaiogun *erdaldun* eta *euskaldun* dikotomia klasikoari. *Euskalduna* al da Indurain? Urteak eraman ditugu, ez ahaztu, inoizko euskal txirrindulari hoberena izan omen duguna aupatzen eta txalotzen. Zer esan nahi dugu, ordea, Indurain *euskalduna* (edota, gutxienez, *euskal* txirrindularia) dela diogunean? Jakin badakigu, Indurainek ez dakiela euskaraz: euskaraz egiten, behintzat, ez diogu inoiz entzun. Beraz? Nor den euskaldun, eta nor erdaldun, apenas egungo egunean bere eguneroko hizkerak (bakarrik) definitzen duen. Ez eguneroko mintzajardunak eta ez euskaraz (ere) jakiteak berak. Erdarazko *vasco* eta frantseseko *basque*-ren sinonimo-edo bihurturik ditugu, halako neurri batean, gure *euskal* eta *euskaldun*: *euskal filmoteka*, *euskal dantzak*, *euskal sindikatuak*, *Himalaiarako euskal espedizioa* eta *euskaldun makila*. Eta ez gaur bakarrik: honetan edo hartan erdaraz jardute hutsak ez zituen lehen ere, hori eta horrenbestez, *erdaldun* bihurtzen gure aurrekoak. Euskalduna zen Larramendi, bere liburu guztiak (gramatikaren eta hiztegiaren esplikazioak (12), barne) erdaraz idatzi zituelarik ere. Larramendi euskalduna zela onartzen badugu, eta horretan ez dut uste kontrario handirik agertuko zaigunik, hasieran egindako atalbiko banaketa argi bezain ximple hura erro-errotik matizatzen hasi beharko dugu: erdaraz ari direnak (zirenak) ez dira (ez ziren), beti eta nonahi, erdaldun. Euskaldunok (euskaldun batzuek) aspaldidanik jardun izan dugu, egoera jakinetan, erdaraz. Euskaldun izatea eta euskaraz (euskara hutsean) jardutea gauza bera izango zen noizpait, dokumentu-oinarriko historiaren goizaldi-aurrean. Orduan ere ez ehuneko ehunean, agian; bai ordea gehiengo zabalean, nagusitasun argiz. Baina noizko kontuak dira horiek? Zuri-gorritzko ametsen gaindegietara ihes egiteko ez bada zertarako balio digu, egungo egunean, jatorritzko mosaiko etnolinguistikoko lausogabearen irudipen horrek? Labur esanik: *euskaldun* izatea noraino da, *hemen* eta *orain*, glotonimo huts? Euskaldun izateak ez al du gurean, begien bistako eta arrazoi osozko glotonimo-izaeraz aparte, etnonimo-kutsu garbia eta, are, erreferente soziokultural zabal-globalaren adiera funtzional modernoa? Ahoa bete jarraitzen dugu ordea, are soziolinguistikazko ikuspegitik dihardugunean, *euskaldun* horrek *euskaradun* esan nahi duela azpimarratzen. Hizkuntzaren soziologiak, beste edozein jakintza-alorre bezala, aparteko kuidadoaz bereizi behar ditu egungo gertaerak eta behinolako abiaburuak. Eguneroko esplikazio ximpleak motx gelditzen dira horregatik, sarri asko, funtsezko bereizketa horiek egin ahal izateko.

Eguneroko hizkera-molde lasaiari bere balio osoa aitorturik ere askotxo gara hortaz, ibiliaren poderioz eta hanka-sartze ugarien eskarmentuz, era horretako terminoen inplikazio soziokulturalak aintzakotzat hartzen ikasi dugunak. Euskaldun/erdaldun hitz-bikotearen jatorritzko dikotomia hura egungo gizartearen dimentsio linguistiko, etnokultural, soziohistoriko eta politiko-operatiboak azaltzerakoan gutxi-asko matizatzen hasi behar izan dugu, besteak beste. Neke horien ordainetan, hizkuntzaren eta haren uztarriko etnokulturaren soziologiak bere-bereak dituen hainbat izendapen, kontzeptu eta definizio bertatik bertara ezagutzen eta egoki erabiltzen ikasten ari gara. Gogoz ikasi beharrekoen zerrendan sartu zaigu, ezinbestean, dagoeneko bizpahiru aldiz aitatu dugun *hitzun-elkarte*a, *mintzaelkargoa* (13), edo *komunitate linguistikoa* (14). deitzen duguna: hitzun guztien (gutxienik hizkuntza jakin horren barietate edo aldaera bat, egitez edo ulertzez, amankomunean duten hiztunen) multzoa, bibliografi iturrietako erdarez *Sprachgemeinschaft*, *language community*, *speech community*, *comunidad lingüística* esan ohi dena. Orobat ikasi beharko dugu *community* horren azpialdeak bereizten, *language* edo *speech group* delakotik hasi eta, *speech network*-en barrena, *diadic encounter*-eko solaskidetzara xumeeneraino. Argi ikusiko dugu, bide horretan barrena abiatu orduko, hizkuntz soziologiak aztergai dituen *hitzun-taldeak* (15) ez direla behin eta betiko konstruktualdiz, aldian aldiko analisi-motaren, ingurumeneko uste-sinesmen ongi errotuen eta soziokulturazko konbentzio nagusien arabera izendapen operatiboak baizik (16). Beste horrenbeste gertatuko zaigu *erabilera-eremu*, *jardungune* eta *rol-harremanen* konstruktuekin. Badakit ondo asko zer esango didazun: argitu baino gehiago ilundu egiten digula panorama, lehen begiratu batean behintzat, hainbat hitz eta hitzarte berrik. Egia da hori. Molestia horregatik ezin ditugu, ordea, izendapen teknikoak alde batera utzi. Behar-beharrezkoak dira goiko horiek, eta horien pareko beste hamaika, itxurazko hurbilpen-saio teorikorik egin nahi badugu. Ezinbesteko tresneria dira hizperri horiek guztiak, hizkuntzen (batez ere gurea bezalako ahuldade-puntura iritsita dauden hizkuntzen) gizarte-egoera, beren ezintasun-trabak eta bizirik ateratzeko aukerabideak itxura batean aztertu, ezbataidatu eta ulertu nahi baditugu.

Ahuldutako hizkuntzaz hitz egitean, belaunez belaun bizirik jarraitzeko eragozpen nabarmenak dituen hizkuntza batez ari garela esan dugu. Eta horra, bide batez, beste esapide berria non sortu dugun aurrekoa erabat argitu aurretik: *belaunez*

belaun bizirik jarraitzea (17). Zer esan nahi du, hizkuntza batentzat, *bizirik jarraitzeak*? Eta zer, bereziki, *belaunez belaun bizirik jarraitzeak*? Zaude lasai oraingoan, ez natzaizu berriro ere definizio edo termino teknikoekin etorriko-eta. Hizkuntza *bizia* zer den ondotxo dakizu: jendeak etxean (umetan) ikasi eta bere hiztun-elkartean (familian, lagunartean, kalean, herrian, bere hizkuntza horretaz baliatzen den gizarte zabal osoan) erabiltzen duena. Horrexegatik esaten da, adibidez, latina ez dela gaur egun hizkuntza *bizia*: apaiz-jendeak erabiltzen du une jakinetan (gero eta bakanago); filologo erromanistek ere ikasia dute unibertsitatean. Baina etxetik ez du inork ikasten. Gaztetan ikasten dute latina, *additional language* edo *gehigarritzko hizkuntza* moduan, lanbide horietarako prestatzen ari direnek. Egon ez dago inon hiztun-talde zabalik, ume-umetatik hasi eta bere eguneroko mintzajardun arrunta latinez bideratzen duenik. Gurasoetatik seme-alabetara, ama-hizkuntza edo L1 moduan transmititzen den hizkuntza: horixe da hortaz hizkuntza *bizia*. Ama-hizkuntza izatearen ezaugarria erabat galdurik dutenak, aldiz, hizkuntza hilak dira: latina adibidez (18).

Gatozen gurera. Hizkuntza *bizia* al da euskara? Bai, hala da: zoaz bestela Markinara, Errezila edo Goizuetara, eta egin proba. Etxean ikasten dute bertako ume gehienek euskaraz, gurasoengandik eta anai-arrebengandik. Eguneroko jardunean ere, etxe-giroko eta lagunarte hurbileko esparru intimor horietan bereziki, euskaraz egiten dute hainbatean. Erabat *bizirik* al daukagu, hortaz, euskara? Oraintxe heldu diozu zezenari adarretatik: bizi guztiak ez baitaude, hurrik eman ere, bizitasun -edo osasun- maila berean. Bizi batzuk bizi-bizirik daude, besteak ez. Konparazio bidez argitu dezagun bizitasunaren gradazio hori. Lau osasun-mailatara mugatuz, zehaztu dezagun bizi-bizirik (*vivante*), bizirik baina zenbait ajerekin, makal baina bizirik eta, azkenik, hil ala biziko trantzean egotearen kontu hori, zehaztu litekeen neurrian. Erabateko *langue vivante* zer den azaltzeko ez dugu buruhauste handirik izango: horren adibide ugari ditugu European, inguruko eta are bertako hizkuntzetan. Adibide horietara, horietariko batera joko dugu hemen, *erabat bizirik* egote horrek zer esan nahi duen azaltzeko. Zoaz Logroñora, esate baterako, eta ikus ezazu bertako familia gehien-gehienetan (ehunetik 99tan, hor nonbait) zer gertatzen den. Demagun, izenak asmatu, Ceniceroko Jose Luis Laguardiako Charorekin ezkondu zela orain dela hamabost bat urte eta Logroñon bizi direla. Demagun gaztelaniaz bakarrik (19) dakitela biek eta gaztelania erakutsi dietela seme-alabei, Sonia eta Robertori. Aitona-amonekin eta parkeko lagunekin, etxean eta kalean, eskolan eta autobusean, elizan eta harategian, zinean eta medikuarenean gaztelania besterik ez dute egiten neska-mutilek. Gaztelania da, bete-betean, seme-alaba horien hizkuntza *bizia*: beren ama-hizkuntza, beren etxeko hizkuntza, beren lehen hizkuntza (L1), etxetik kanpora ere hitzetik hortzera erabiltzen dutena eta, erabili ahala, osatzen eta zehazten, bereizten eta gozatzen ari direna. Beren mintzaira hori ez dute *erdal ikastolako* gaztelania, are gutxiago *erdaltegikoa*. Eskolara joan aurretik ondo baino hobeto dakite gaztelaniaz (20) batak zein besteak. Aski izango al dute Soniak eta Robertok gaztelaniarekin, beren bizi-denbora guztian?. Hori ezin da jakin, biziak mila buelta ematen baititu eta ingelesa gero eta beharrezkoagoa baita munduan. Bidali ere horrexegatik bidaltzen dituzte gurasok udan, ondo kostata bidali ere, ingeles-barnetegi batera. Soniak irakasle izan nahi omen du gainera eta, akaso, Arabako Errija aldean puesto bat lortzekotan euskara ere ikasi beharko omen du (hori geroko uzten dute, ordea, kontu horiek ez baitaude hain garbi).

Deskribapen xume horrek, formulazio abstraktuetara hegaldatu gabe ere, bizirik eta osasuntsu dauden hizkuntza gehienek hainbat ezaugarri eskaintzen dizkigu. Gure ikuspegitik (hots, ahuldutako hizkuntzen ikuspegitik) interesgarriena zera da: bertako hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen-bide orbangabea. Aitona-amonek gaztelaniaz egiten dute egunero; berdin egiten dute gurasok, Jose Luisek eta Charok; eta berdin egiten dute ilobek, Soniak eta Robertok. Horra hor hiru belaunaldiko katea, bizi-bizirik dauden hizkuntzetan (hiztun-taldeetan) indarbetean agertu ohi dena. Horixe da osasun-neurgailu segurua, hizkuntza ahulak *belaunez belaun bizirik jarraitzea* edo *ez jarraitzea* definitzen diguna ele biko hiztun-elkartean. Hiru belaunaldiko kate horixe da izan ere, gero esango dugunez, diglosiaren gutxienezko egonkortasun-muga definitzen duena. Aitona-amonetatik gurasoetara eta gurasoetatik seme-alabetara bete-betean transmititzea (21): horixe da, funtsean, hizkuntza bizien eta ahuldutako hizkuntzen arteko bereizgune nagusia. Belaunaldi batetik hurrengorako transmisio horren beteak adierazten du, beste mila datuk baino argiago, erabat bizirik dagoela gaztelania Logroñon. Eta non gertatzen da, nagusiki, belaunaldi batetik hurrengorako transmisio hori?: etxean, familian, hurbileko auzo-giroan, kale-bizitza zabalean. Hori da hizkuntzen belaunez belauneko transmisio-gune normal, natural, osasuntsua; hori da hizkuntza handien eta txikien jarraipen-oinarri nagusia. Hori da oinarri-oinarritzko puntua, hizkuntza ahulak osasun betekoetatik bereizten dituen. Ez da ezaugarri bakarra, ordea.

Beste zer motibok eramaten gaitu, belaunez belauneko jarraipen orbangabe horrezaz gainera, gaztelania Logroñon, eta Logroño bezalako ingurumen guztietan, indar betean dagoela esatera? Zergatik diogu *erabat bizirik* dagoela, inolako ahuldade-seinalerik ez duela gaztelaniak Logroñon? Motibo askorengatik esan dezakegu hori. Aski zehaztasun-maila diferenteko esplikazioak eman litezke *erabateko bizitasun* hori zeren eskutik datorren argudiatzeko: hainbat espezialistak, hartaraz gero, azalpen demolingüistikoak, faktore soziohistorikoak eta kulturalak, babes-oinarri instituzionala eta, oro har, bere status-adierazleak eskainiko lizkizuke seguruenik. Horiek guztiak hala izanik ere, begien bistanagoko gertaera xume batek adierazten digu garbi gaztelania, Logroñon, hain bizirik eta hain osasun onean zergatik dagoen: itzal egiten dion (are gutxiago mendean hartua duen) *Big Brother* edo auzo-hizkuntza lehiakide indartsurik parean ez duelako. Ingelesa, gehien-gehienera ere, *additional language* da Logroñon, egungo egunear, eta hori ere oso neurri mugatua: ez, inola ere, Holandako edo Israelgo (Spolsky, 2001: 355) moduan. Terminologia teknikorik hurbilduz, zera esan dezakegu: gaztelaniak, bere baitako aldaera-sortaz edo barietate-errepertorioaz, logroñoarren mintzajardun osoaren espazio soziofuntzional osoa estaltzen duela. Hor ez daudela H eta L hizkuntza bi (H hori ingelesa izanik, adibidez, eta L gaztelania), ez elkarren lehian eta ez osagarritzko funtzio-banakera egonkorrez konpartimentatuak. Logroñon ez dago funtsezko jardun-esparru edo harreman-sare bakarrik, gaztelaniarik gabe funtzionatzen duenik. Logroñoako gizarte-antolakera, hizkuntza erabiltzeari dagokionez, ez dago alegia ez elebitasunik eta ez diglosiarik (22). Aldiz, Logroño ordez Puerto Rico hartuko bagenu aztergai, bestelako panorama izango genuke begien bistan. Han ere bizirik dago gaztelania, dudarik gabe: baina hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena ez dago han Logroñon bezain sano, indartsu eta seguru (23). Ingelesa ate joka daukate Puerto Ricon, eskolan eta telebistan ezezik kale-giroan ere. *Additional language* ezezik *Big Brother* moduko hizkuntza ere bihurtzen ari zaie ingelesa Puerto Ricon. Are gutxiago esan dezakegu, azkenik, gaztelania erabat bizirik dagoenik Estatu Batuetan. Ez han-hemengo hispano-talde historikotik, eta ez Calvin Veltmanek (1983, 1988) hain zehatz aztertutik diuen *portorriqueño*, *chicano* eta gainerako etorkin-taldeetan. Gaztelaniaren geroa ez dago segurtaturik, konkretuki, New Yorken bizi diren portorriqueño ugarien artean (24). Azken kasu honetan *endangered language* edo ahuldutako hizkuntza dugu, inolako dudarik gabe, Logroñon erabat (eta Puerto Ricon dezente) bizirik dagoen gaztelania.

Lehen ere zertxobait aipatu dugun bidetik, ondorio argia ateratzen lagundu behar liguke horrek. Osasun onean eta pattalean daudenak ez dira ezinbestean hizkuntzak oro har, hizkuntza horretaz baliatzen diren hiztun-elkarteak baino (25). Are gehiago: sarritan, hiztun-elkartea bere osoan hartu ordez han-hemengo hiztun-taldeak, jardun-esparruak edo harreman-sareak hartu behar izango ditugu kontuan, beren osasun-diagnostikoa egiterakoan (26). Jeneralizazio gehiegiaren gehiegiaz,

izan ere, zehaztasun falta larrian eror gaitezke. Gatozen hortaz, berriro ere, etxeko adibide xumeetara: gauza bat da euskararen osasunaz hitz egitea oro har, eta beste bat euskararen benetako osasuna neurtzea Donibane Lohizunen, Ataunen, Lekunberrin, Lekeitioko ikastolan edota Hezkuntza Sailaren Lakuako egoitza nagusian. Bateko azalpenak ez digu, hainbatean, besterako balio izango. Are gutxiago erabateko jeneralizazioak egiteko. Euskararen batez besteko osasuna aztertu nahi duen Finlandiako soziolinguista batek ez luke emaitza onik aterako, huts-hutsik Donibane Lohizunera edo Tolosa aldeko Albizturrera etorriko balitz. Are gutxiago Donostiako euskararen osasun-egoera (esparru jaso-formal-modernizatuetakoa) aztertzeo orduan Avenidako bankuetxe baten eguneroko barne-dokumentazioa, Andia kaleko Hezkuntza Ordezkaritzan tramitatzen den espediente-sorta edo Ikastola Elkartearen egoitza nagusiko jarduna (hitzezkoa eta idatzizkoa) hartuko balu erreferentzia bakartzat. Leku-faktoreari dagokionez, izan ere, zera esango luke aztertzaile finlandiarrak: lehenengo kasuan (Donibane Lohizunen) euskara oso ahuldua, ia *bere azkenetan* antzematen duela. Bigarrenean (Albizturren), aldiz, orain ere osasun onekoa dagoela: aitona-amonetatik gurasoetara, eta hauetatik seme-alabetara, ia salbuespenik gabe transmititzen dela bertako hizkuntza. Donostiako esparru jaso-formal-modernizatuen gaineko diagnostiko funtzionala egiterakoan, era berean, gune batetik bestera alde handia dagoela ikusiko luke: Avenidako bankuetxean ia inork eta ia ezertarako erabiltzen ez duen hizkuntza hori neurri jakin batean bizirik dagoela Ordezkaritzan, eta neurri hori are ohargarriagoa dela Baldaondoko bulagoetan. Nola liteke, ordea, *azkenetan* dagoen inor *osasun onekoa* egotea? Zer mediku-klasek esan dezake horrelako itxuragabekeriari? Horrelakorik ez du normalean, egia da, inolako medikuk esaten. Bai, ordea, beste honelako hainbat: "bihotzetik larri dabil Joxe Antonio; gainerakoan ez dabil, ordea, batere makal". Guztiok dakiguna: norbait hiltzen denean bere organo jakinen bat izan ohi dela, ez bere organo guzti-guztiak batera, heriotza ekartzen diona. Pertsona bat hiltzen denean, edadez oso aurrera ez badoa behintzat, bere organo gehienak egoera onean edo on samarrean egon daitezke. Halaz ere gaixoa hil egiten da, organo jakin baten gaixotasuna edo zauria neurri batetik gorakoa denean. Nire izeba minbiziak eraman zuen, sasoi oneko zelarik artean, orain dela hamalau bat urte. Burua argi zeukan, eta azken hiru hilabeteak arte betiko umore onari eusten jakin zuen. Mugimenduz arin zegoen oso: hezurretako minik ez zuen. *Alzheimerrik* are gutxiago. Bihotza indarrean zeukan noski, eta horrek berak luzatu egin zizkion (medikuen esanetan) azken bi asteetako nahi eta ezinak. Bistatik ondo zebilen, eta biriketarik ere bai. Baina minbizia zuen urdailean, horixe zuen guztia. Eta badakizu: gaitz horri aurre egiten, partez bakarrik ikasi du oraingoz medikuntzak.

Zertara dator gaixotasun-kontuaren erretolika osoa?. Honako puntu honetara: gorputza bere osoan kolapsatu eta hiltzen bada ere azkenean, kolapso hori organo jakin baten (ez organo guztien) gaixotasunak (istripuen kasuan, zauriak) sortzen duela normalean. Beraz, gaixoa hilko ez bazaigu larri gaixotutako (zauritutako) organo konkretu hori sendatu behar dugu lehenik eta behin. Organo hori da, gerokoak geroko utziaz, bere onera ekarri behar duguna. Norbaitek auto-istripua izan badu karreteran, eta besotik odol-isurtze edo hemorragia handia ageri badu, torniketea egin behar diogu besagainean, berehala egin ere, odolustuta bertan hil ez dakigun. Hortik hasi behar da.

Era berean, hizkuntza (eta haren oinarri soziolinguistikoa izan ohi den hiltun-elkartea) bere osoan galtzen bada ere azken-azkenean, hizkuntza hori ez da kalean eta etxean, tabernan eta unibertsitatean, elizan eta epaitegian, berba-egikera arruntean eta goi-arnasak oraturiko poema jorietan, herriz herriko bertso-saioetan zein nazioarteko zinemaldian... batera ahultzen, desagertzen eta galtzen. Gaixorik dagoenean ere osasuntsuago egon ohi da funtzio-esparru batzuetan, besteetan baino. Xenpelarren garaiko Gipuzkoan (27), esate baterako, euskarak ez zuen ia inolako sarbiderik eskolan, prentsan eta administrazioan. Familia gehien-gehienetan, etxean eta are kalean, bizirik eta indartsu zegoen ordea hizkuntza. Orain, aldiz, idatzizko jardunean eta jardungune jaso-formaletan gutxi-asko aurrera egin duen arren aski ahulduak ageri zaigu euskara (Gipuzkoako herri hazienetan eta hiriburuan bereziki) etxe-giroan eta lagunartean. Beste era batera esanik, eta barkatu berriro ere hitz teknikoak ekartzea, hizkuntza horren espazio soziofuntzional osoaren erabilera-esparru, jardungune eta harreman-sare guztiak ez dira gehienetan maila bereko larritasunez joak egoten. "Goi"-mailakoetan orain dela ehun urte baino hobetoago dago orain hizkuntza, baina behe-mailetan ondotoz ahulduago.

Gaixotasun batzuk besteak baino arriskutsuago diren bezala, esparru batzuetako ahuldadeak ere kaltegarriago dira hizkuntzarentzat. Hots, hizkuntza horren espazio soziofuntzionala osatzen duten elementu guzti-guztiak ez dira, normalean, bere etnolinguistikazko bizitasunaren (28) neurri bereko galera-iturri. Indio navajoen hizkuntza azken hamar urte honetan galtzen ari bada (eta halaxe ari da, ikertzaile espezializatuen ustean (29), bizi-galtze hori ez da ezinbestean gertatzen ari navajo-hizkuntza interneten gutxi erabiltzen delako, kimika organikoaren terminologia teknikoak finkatu gabe daukalako edo Arizonako estatu-administrazioaren bileretara (ia) inolako sarbiderik ez duelako. Bere eguneroko gizarte-bizitza arrunta azaldu, transmititu eta mamitzeko gaitasuna galtzen ari da navajoera: hori du bere gaitz nagusia. Hizkuntzaren erabilera-galtze hori perspektiba soziokultural zabalagoan txerta daiteke noski: soziokulturazko muga-hesi tradizionalei ezin eutsia dakarren bilakaera nagusian, alegia. Bere jatoriasun etnokulturala modernotasun ekonoteknikoaz, demografikoaz eta sozioprofesionalaz egoki txertatzeko prozedura liskartsua, ahuldutako hiltun-herri gehienok hain barrutik ezagutzen eta hain oinazez bizi ohi dugun uztartze-saioa, kontrolpean gorde ezinik ari da navajo-herria. Bertako karretera-sarea ugaritu eta zabaltzeak (eta horrek dakarren dislokazio fisiko-demografikoak), navajo gehienek diru-sarbide arras mugatua izateak edota lanik gabe egoteak (eta horrek dakarren dislokazio sozialak) badu noski, horretan guztian, eragin zuzena. Ezinbesteko aldaketa soziokultural, demografiko eta ekonoteknikoak bere "betiko" hizkuntzaz bideratzeko gero eta ezintasun-traba nabarmenagoak dauzka navajo-herriak. Dislokazio horien eraginez gizarte berrian aurrera egin nahi duen navajo-hiztunak ingelesa ikasi beharra dauka, eta ingelesez jardun beharra: bai navajo-herriaz kanpokoekin diharduenean eta bai, gero eta sarriago, gainerako navajoekin jarduteko ere. Eguneroko harreman-sare arruntak, etxe-giroa eta lagunartea osatzen dutenak, ari da navajo-jendea galtzen: gazte-jendea bereziki, ingelesera pasatzen ari da. Belaunez belauneko jarraipen-katea eteten ari da (30). Eta horiek bai: dislokazio eta muga-eragozpen horiek bai dituela bere ahuldadearen iturri, bere garapen-bilakaera autosostenituaren eragozle eta, egungo egoerari buelta ematen ez bazaio, bere biziaren galgarri. Ez navajo-hizkuntzaren eta ez gainerakoen erabilera-esparru, harreman-sare, funtzio eta jardungune guztiak dira garrantzi berekoak, makal dagoen hizkuntzari bizirik eusten laguntzeko (31). Are gutxiago indar berria emateko, hizkuntza hori indarberritzeko. Inportantea da, beraz, hiltun-elkarte (edo, sarriagotan, hiltun-talde) baten ohiko rol-harreman desberdinen artean mintzaldaturik edo mintzaldatzeko arriskurik bizienean zeintzu dauden jakitea. Inportantea da ahuldutako hizkuntza hori *ue honetako bataila zein frentetan* galtzen ari den jakitea: hortxe galduko baita hizkuntza osoa, eta horrenbestez hiltun-herria ez interneten edo master-ikastaroetan flojo samar dabilelako.

II. Ahuldutako hizkuntza *noraino* dago ahuldua?

Gaixotasuna eta *osasuna*, hizkuntza kontuan ere, kontzeptu osagarriak dira. Osasun onean dagoenak ez dauka gaixotasun handirik, eta alderantziz. Nahasian erabiliko ditugu, hortaz, bata zein bestea. Badakigu, bestalde, bai gaixotasuna eta bai

osasuna kontzeptu gradatiboak direla. Gaixorik dauden bi hizkuntza ez daude, ezinbestean, gaixotasun-maila berean. Eta badakigu, azkenik, *hizkuntza* edo *hiztun-herria* diogunean ere jeneralizatzen ari garela. Hots, benetako gaixotasuna lokalagoa dela izaeraz: bai ikuspegi geolinguistikotik eta bai soziofuntzionaletik, puntualagoa dela sarritan. Espezialista handiak izan gabe ere, erraz samar konturatzen gara euskara gaixoago dagoela Gasteizen Donostian baino, ahulago dagoela Durangon Tolosan baino, okerrago dabilela Lekunberrin Errezilen baino. Arrazoizkoa da beraz, medikuek pertsona gaixoei egin ohi duten bezala, guk ere galdera horri erantzun nahi izatea: ahuldutako hizkuntza, *noraino* dago ahuldua? Zertan antzematen dugu osasun- edo gaixotasun-diferentzia hori? Kanean edo etxe(et)an gehiago (gutxiago) egiten dela: hori izan ohi da, gehienetan, gure mintzometro nagusia. Gero ikusiko dugunez, ez da hain neurpide okerra. Europan barrena zertxobait ibiliak baldin bagara konturatzen gara, orobat, alemana osasuntsuago dagoela txekiera baino, eta azken hori osasuntsuago estoniera baino. Hitztun-elkarte osoen kopuruak, kontrolpean dituen muga-hesien sendoak, herrialde bakoitzaren kultur sormenak eta zabalkunde-indarrak zerbait adierazi ohi digu normalean. Hortik aurrerako detaileetan ez gara ordea, gehienetan, hain seguru sentitzen. Zertan oinarritzen gara hortaz, funtsean, diagnostiko-modu horietan aurrera egiteko?

Hizkuntza, bi (edo gehiago) erabiltzen diren esparruetan dihardugularik egunero, laster hasten gara konturatzen (gurea bezalako ingurumenetan beste gehienetan baino lehenago eta sakonago gainera) hizkuntza guztiak ez daudela osasun- edo gaixotasun-egoera berean. Inork esan gabe ere, geuk igartzen diogu hori gure ingurumen hurbilari. Zertan igartzen ditugu osasun eta gaixotasun mailako diferentzia horiek? Honelako gertaera ukaezinetan, besteak beste: batetik, hizkuntza bakoitzaren demolinguistikazko dimentsioan; bestetik, hizkuntza bakoitzak hiztun-elkartearen espazio soziofuntzionaletan duen kokaeran. Ikus ditzagun puntu biok, halako xehetasun batez.

II.1. Hizkuntza bakoitzaren demolinguistikazko dimentsioa.

Hiztun-kopuruz eta hiztun-elkartearen lurralde-hedaduraz, mintzaira guztiak ez dira neurri berekoak. Horietariko batzuek milioika hiztun askoren lehen hizkuntza (L1 edo ama-hizkuntza) dira, eta beste hainbaten bigarren edo enegarren hizkuntza (gehigarritzko hizkuntza, *additional language*). Ingelesa eta errusoa, txinoa eta arabiera, espainola eta frantsesa, alemana eta portugesa hizkuntza zabal, handien multzo horretakoak ditugu. Eta ingelesa, bereziki, *LWC* edo *language of wider communication* izendapen teknikoaren alorrean sartzen da bete-betean. Munduko milaka hizkuntzen artean gutxienak dira, jakina, neurri-hedadura zabal, handi horretakoak. Beste mintzaira batzuek, hain handiak izan gabe ere, hiztun-kopuru zabalekoak ditugu: milioia eta 10 milioi hiztun artekoak ditugu horiek, kopuruz. Europako nazio-hizkuntza ofizial, beregain eta osasuntsu asko, konkretuki, bigarren multzo horretakoak ditugu: hungariera, daniera eta suediera, finlandiera eta grekoa, eslovakiera eta txekoa, eslobeniera eta abar. Hizkuntza horiek ez dira, normalean, etxetik (hots, beren nazio-estatutik) kanpora erabiltzen, beste hizkuntzekiko harremanetan. Ez dira beraz, inola ere, *LWC* atalekoak. Munduko hizkuntza gehien-gehienak ez dira, dena den, ez lehenengo eta ez bigarren multzo horietakoak: demolinguistika aldetik, hizkuntza gehienak ez dira milioi bat hiztunek langa horretara ere iristen. Hainbat hiztun-elkartek, euskara tartean delarik, milioia eta ehun mila hiztun artean ditu, lehen hizkuntza edo lehen ko-hizkuntza moduan. Eta beste asko, zinez hiztun-elkarte asko, ez da 100.000 lagunekoa hiztun-neurri apal horretara ere iristen. Hizkuntza batzuek, gorago esan dugunez, nazio-hizkuntzak edo, zehazkiago esanik, estatu beregainen hizkuntza bakar edo *state-building, unifying language* dira. Gutxien-gutxienak dira, zinez, estatu-beregaintasunez osaturik eta babesturik daudenak. Estatu-dimentsioaz behe-itikoak gara, izatez, munduko hizkuntza gehienak. Munduan lau mila eta sei mila hizkuntza artean baldin badaude gaur egun, eta unitate politiko independenteak, estatu-nazio edo nazio-estatu lokabeak 200era iristen ez badira, atera kontuak: mintzaira guztiak ez dira ingelesa, frantsesa, espainola, portugesa, alemana, arabiera, errusoa, hindia edo txinoa (32). Ez eta suediera, grekoa, holandes-nederlandera edo poloniera ere. Hitztun asko izate horrek abantaila fisiko, objektibo, bazterrezinak eransten dizkio hizkuntzari: jende askorekin eta leku askotan erabil dezakezun gaztelaniak askozaz utilidade handiagoa du, hainbat eta hainbat funtziotarako, jende gutxiak eta aski lurralde mugatuan darabilgun euskarak baino.

Hiztun-kopurua ez da ordea, lehen ere aipatu dugunez, demolinguistikazko aldagai inportante bakarra: hiztun horien lurralde-banakera, beren kontzentrazioa eta urbanizazio-maila ere punta-puntako aldagaiak dira. Geolinguistika ere kontuan hartu behar da, alegia (cf. besteak beste, D. Cartwright 19). Demagun A eta B hizkuntzak neurri berekoak direla hiztun-kopuruz (1.000.000 lagunekoa adibidez). Demagun, bestalde, A hiztun-elkartea osatzen duten hiztunak elkarren ondoan bizi direla denak, eta B hiztun-elkartekoak sakabanaturik. Elkarren ondoan, harreman-sare eta interakzio-esparru ugari loturik dauden A hizkuntzako hiztunek ondotoz osasun-egoera hobea izango dute, besteak beste, erdal (beraiztat erdal) hiztun-herri erraldoi batean desegituraturik eta han-hemenkako hiztun-taldexkatan sakabanaturik dauden B hizkuntzakoek baino. Isolamendu fisikoa (itsasoa, basamortua, mendikate handiak) zein politikoa, orobat, barne-kontzentrazioaren eta erdal munduarekiko separazioaren iturri izan ohi da gehienetan. Feroe uhartea aipatu dugu lehen, bere 50.000 hiztunekin. Beste horrenbeste esan liteke Islandiarekin. Bertako 200.000 bizilagunek hiztun-herri aparta osatzen dute, nahiz eta ingelesa gero eta etxeanago duten.

Isolamendu fisikoaz gainera, urbanizazio-maila ere kontuan hartu behar izaten da askotan. Kale-girora biltzen diren hiztun-talde minoritarioek areagoko neke-zailtasunak izan ohi dituzte, izan ere, lehenaz gainera: kontzentrazioa eta ohiko jardunguneetako nagusitasun-moldaera (33), galdu egin ohi dute, irabazi baino gehiago, baserrikal kalera jaistean. Galera horrek traba berriak sortzen dizkie, beren hizkuntzari belaunez belaun eutsi ahal izateko. Erdal hiztunekiko harreman-sareak, baserrian ez bezala, gero eta beharrezkoago bihurtzen zaizkie kale-giroan. Harreman horien maiztasuna eta dibertsifikazio funtzionala ere ugari egiten dira, normalean, kaletar berri horien artean (34). Hiri-giroak berekin ekarri ohi duen rol-harremanen dibertsifikazioak, idatzizko harremanen ugaritzeak eta aldaera formal-teknifikatuaren eraginak H hizkuntzaren alde jokatu ohi du normalean, Lren kaltean.

Autoktono izatearen edo ez izatearen aldagai historiko-territoriala ere oso kontuan hartzekoa da, azkenik. Aurreko beste faktoreak berdinak edo antzekoak litzuketen A eta B hiztun-herriek aski bizi-itxaropen diferentea lukete, bata bertakoa eta bestea etorkin berria balira: jatorritzko lurraldeari atxiki dioten hiztun-herri autoktonoek, txikiak eta funtzio-esparruz mugatuak izanik ere, etorkin-talde berriek baino osasun demolinguistikoa hobean egoteko joera izan ohi dute normalean. (Weinreich, 1953).

II. 2. Hizkuntza bakoitzaren lekua hiztun-elkartearen espazio soziofuntzional osoan.

Hiztun asko edo gutxi izatea gauza bat da. Hiztun horiek beren hizkuntza hori zer esparrutan erabiltzen duten, eta zeinetan ez, bestea. Bigarren puntu horrek definitzen du hizkuntza ahularen lekua (eta, horren ondorioz, bere *statusa*), hiztun-elkartearen espazio-soziofuntzionala. Ahuldutako hizkuntza batzuek aski konpartimentaturik daukate espazio hori, zenbait funtzio-esparru bere kontrolpean mantenduz. Beste batzuek, aldiz, behinolako muga-hesiak galdurik dituzte eta konpartimentazio funtzionalik gabe (hots, diglosiarik gabe) gelditzen ari dira. Osasungarria, jakina, badakigu zer den: hizkuntza bakoitza bere hiztun-elkartearen ahalik eta funtzio-esparru gehienetan presente izatea, eta esparru horietan nagusi izatea, nagusitasun hori bermatzen duten muga-hesiak bere kontrolpean izanik. Muga-hesi nagusia, azken berrehun urte honetan, estatu beregainen herri-mugak ezarri ohi ditu. Mendebaleko gizarte modernizatu askok (ez, inola ere, guztiek) beren *unifying, state-building* hizkuntza dute. Frantziak frantsesa, Alemaniak alemana, Poloniak polakoa, Italiak italianoa, Britainia Handiak eta Estatu Batuek ingelesa (35). Era berean darabilte Espainiak eta Portugalek, hurrenez hurren, gaztelania eta portugesa. Gizarte horietako rol-sorta guztiak hitzez mamitzeko orduan aski izaten da, gehienetan, kasuan kasuko *unifying, state-building* hizkuntza horiekin. Bertako jende askok, gehienek normalean, hizkuntza horixe bakarrik daki jakin. Bertako minoria linguistikoek ere ezinbestekoa izan ohi dute hizkuntza hori, hainbat harreman-saretan eta jardun-esparrutan parte hartu ahal izateko, nahi eta esparru barrenkoi-intimoenetan beren hizkuntza propioari gutxi-asko eutsi. Minorietako hiztunek, nahi badute eta ez badute, elebidun izan beharra daukate hortaz: hori ez da norbanako aukera librearen fruitu, luze-zabaleko mintzajardunaren gizarte-moldaerak berez dakarren eginbidea baizik. Hiztun elebidun horiek erraztasun handiagoa izan ohi dute askotan, rol-sorta gehienei dagozkien mintza- (are gehiago idazbeharrak) *state-building* hizkuntzaren bidez betetzeko. Aurreraxeago saiaturako gara hizkuntza-bitasun horren nondik norakoa zertxobait argitzen. Bietariko baten nagusigo hori azaldu nahi dugu hemen. Nagusigo horrek gutxitan izan ohi du, funtsaren funtsa bagoaz, norbanakoaren aukera libre-hutsaren izaera. Badakizu leloa, gauzak okertzen direnean: "Habla en castellano, que así nos entendemos todos". Edota beste hau: "hori erderaz esango dizut, euskeraz nola esaten dan ez dakit-eta".

Bistan dago frantsesa, alemana, italianoa, ingelesa, gaztelania eta portugesa osasun oneko hizkuntzak direla. Nor bere gizarte-bizitzaren esparru guztietara hedaturik daude. Are gehiago: esparru gehienetan *etxeko jaun* dira; lehiakiderik gabeko *dominance configuration* orbangabea ageri dute esparru horietan. Etxeko sukaldean eta taberna-zuloan, izkinako okindegian eta etxe ondoko parkean gaztelaniaz egiten da gorago aipatu dugun Logroñon, jakina. Baina ez esparru horietan bakarrik: gaztelaniaz egiten da orobat elizan eta irratian, zinean eta prentsan; gaztelaniaz egiten da anbulatorioan, ospitalean eta medikuen kontsulta guztietan, eskola-esparru osoan (36), epaitegitan, lantegietan, aurrezki-kutxa guztietan (ate ondoko leihatilatik hasi eta goren mailako bulegoetaraino)... Hitz batean, Logroñoko bizilagunen mintzajardun arrunt, zabal, nagusia gaztelaniazkoa da bere erabilera-esparru edo jardungune guztietan. Berdin gertatzen da frantsesarekin Bordelen, italianoarekin Milanon, portugesearekin Oporton, alemanarekin Kolonian eta ingelesarekin Birminghamen. Hiri horietako erabilera-esparru edo jardungune guztien espektro osoan gailen, (gaurkoz) lehiakiderik gabe, etxeko nagusi ageri dira hizkuntza horiek. Hori ez da, ordea, munduko 4000, 5000 edo 6000 hizkuntzen artean batere gauza arrunta, normala, ohikoa.

Gutxi dira izan ere, mundu zabalean, beren gizarte-bizitza osoko rol-sorta guztia asebetetzen duten hizkuntzak. Hizkuntza handi horien eredura ohiturik gaude gehienok, eta hizkuntzen situazio normala, arruntena, horixe dela uste ohi dugu. Izatez gutxien-gutxienak dira ordea, mundu zabalean, beren espazio soziofuntzionala osorik, aldenik alde estaltzen duten hizkuntzak. Hizkuntza gehienek ez dute *state-building, unifying* handi horien sarbide berbera gizarte-bizitzan: ez unitate politiko beregainaren esparru osoan, ez beren hiztun-herrialde tradizionala eta ez, hainbatetan, egungo beren gizarte hurbil egunerokoaren esparruetan ere. Hizkuntza apalago horiek ez dute alegia, ohiko mintzajardunean, bertako gizarte-bizitzaren erabilera-esparru edo jardungune guztietarako sarbiderik: ez nagusitasunezko, are gutxiago lehiakiderik gabeko, sarbiderik. Hizkuntza horiek ez dira gizarte horietako jardungune guztien espektro osora iristen. Hizkuntzen L funtzioetan (etxean eta familian, lagunarte hurbilean eta eguneroko auzo- edo herri-bizitza arruntan) gutxi-asko sustraiturik egon ohi dira hizkuntza horiek. Hortik gorako (hots, H moduko) funtzioetan jardun ahal izateko eragozpen nabarmenak izan ohi dituzte ordea: debeku espresuak edo *de facto*zkoak ere bai, inoiz. Esfera ekonoteknikoan, luze-zabaleko aisialdian, pop-kultura transektizatua eta instantzia politiko-operatiboetan sortzen eta barreiatzen den produkzio idatzian inon baino argiago ikusten da, agian, traba-debeku eta ezintasun-muga horien eragina.

Gatozen, berriro, adibide xume batzuetara: zenbat hizkuntzatan banatzen dira Europan, eta are mundu zabalean, etxeko elektro-tresnen, bideo-aparatuen eta argazki-kameren instrukzio teknikoak? Zenbat hizkuntzatar itzultzen eta egokitzen dira PCetako softwareak? Medikamentuak administratzeko indikazio teknikoak zenbat hizkuntzatan suminatzen dira? Zenbat hizkuntzatan idatziak agertzen dira aireportuetako abisuak? Zenbat hizkuntzatan argitaratzen da, eta ofizialtasun-indarrez bermatzen, legislazio internazionala? Zenbat hizkuntzatan hezur-mamitzen dira han-hemengo zinemaldiak? Zenbat hizkuntzatan jarduten da ONUren, Europako Batasunaren eta OPEPen bileretan? Zenbat hizkuntzatan banatzen dira, azkenik, hain etxekoak bihurtu zaizkigun bidai agentzien informazio-orriak eta prospektuak? "Bost mila" horietatik zenbatetan? Bostehun hizkuntzatan seguru ezetz. Ehunean ba ote? Duda egiten dut: beti-beti behintzat, ezetz esango nuke. Eta beste 4.900ak?

Gizarte-bizitza moderno, hiritar, postindustrial, globalzale konplexu honi dagozkion jardun-esparru eta harreman-sare guztietan edo gehien-gehienetan ateak aldenik alde zabalik dituzten hizkuntzak oso gutxi dira berez: duarik gabe ingelesa da guztien buru, une honetan. Beste dozena batera iritsiko dira, hor nonbait, horren hurrena datozenak (37). Horien ondoren datozen hizkuntza gehienek lanak dituzte, beren agregatu etnokulturalak beregaintasun politikoaz horniturik egonik ere, jardun-esparru eta harreman-sare guztietan edo gehien-gehienetan nagusi agertzeko. Norvegia eta Holandan, Filipinetan edo Finlandian, adibidez, ez da hain gauza normala telebistaz eskaintzen diren filme guztiak *beren* hizkuntzan emititzea edota unibertsitateko goren mailako ikasbide guztiak (zer esanik ez zientzi aldizkariak eta ikerketa-gaiak) nork bere hizkuntzaz bideratzea. Erabilera-esparru eta harreman-sare batzuetan goragoko, LWC mailako, hizkuntzarik ere etxekotua daukate, gutxi-asko, bigarren multzoko hiztun-elkarte horiek. Eta kezka sortzen die horrek, etorkizunera begira: behin zirrikitua zabalduz gero, ura ez ote zaien zorrotada bizian sartuko. Kezka-modu horiek gora-behera, muga-hesi politikoz edo soziokulturalaz babesturiko hizkuntzen osasun-egoera eta hortik beherakoena, gurea tarteko, arras bestelakoak dira. Norvegiara edo suomiera, islandiera edo txekiera gogoan ditugularik, eguneroko gizarte-bizitza garatuari dagozkion esparru eta harreman gehienak (arruntak, egunerokoak eta, horrenbestez, luze-zabalenak eta belaunaldi berrien sozializazioan eraginen sendoenak) beren hizkuntzaz egiteko aparteko nekerik ez dute horiek; ez, behintzat, beren artean ari direnean. Etxea eta familia, kalea eta auzoa, eta horrenbestez eguneroko herri-bizitza arrunta, nork bere *bertako* hizkuntzan antolatutak dute nagusiki. Nagusiki (eta are, zenbaitetan, oso nagusiki) bai, baina erabat ez. Guztiok konturatzen gara (joan eta ikustea aski baita) teknologia berriak eta luze-zabaleko merkataritza, pop-musika eta gazte-gaztetxoaren kontsumo-kultura

gero eta ingelesaren edo alboko *Big Brother* hizkuntzaren baten mendeago daukatela. Nolanahi ere, eta berriro gurera itzuliz, bigarren multzo horretan ez dago *threatened language*-rik, ez dago *ahuldutako hizkuntzarik*. Fishman (1991:356) batek esango lukeenez “National languages, even small national languages, are substantially protected by political boundaries and by social boundaries and social institutions that are politically protected. These help separate populations into insiders and outsiders and they define the cultural desiderata - including language - which are required for inside membership”.

Horien ondoren datoz, azkenik, munduko hizkuntza gehienak. Hirugarren eta laugarren hizkuntza-multzo bereziak egin ahal izango genituzke beraien artean. Nolabaiteko ofizialtasun-maila bat, eta horren eskutik datorkien *institutional support* delakoa, eskuraturik duten eta eskola bidezko transmisio intergenerazionala segurtatzen laguntzeko neurri ohargarriak beren kontrolpean dituzten hiztun-elkarteak sar ditzakegu hirugarren multzo horretan. Hor sartu beharko genuke, EAERI dagokionez bereziki, euskara gurea. Hirugarren multzo horretako hiztun-herrien artean ez gaude, inola ere, azken muturrean. Azken mende-herenean burua jasotzen gehientsuen saiatu direnen artean gaude, aitzitik, inon egotekotan. Hartara ere iristen ez direnak (munduko hizkuntza gehienak, dudarik gabe) laugarren multzoan kokatu beharko lirateke, azkenik. Sailkapen eta azpisailkapen xeheagoak egin daitezkeelarik ere, gauza bat dute hirugarren eta laugarren multzoko hizkuntza (hots, hizkuntza horietaz baliatzen diren etnokultura) gehienek amankomunean: eguneroko gizarte-bizitzaren joan-etorri *arruntak* ere ezin dituztela beren kabuz eta beren etnohizkuntza hutsez osorik bideratu. Hemen eta orain, euskaldunok geu gara, argi eta garbi, egoera mugatuko rol- eta mintzaera-bildumen korrespondentzia horren arabera jokatu behar izaten dugunak. Eta hori zergatik? Motibo askorengatik, dudarik gabe. Honako bi hauengatik bai behintzat, besteak beste: a) beren soziokulturazko muga-hesiei eutsi ezinik ari direlako; b) erdal soziokulturarekiko harreman-tratua mendekotasun-molde jakinera (soziologiaren *dependency interaction* delakora) makurtua daukatelako. Ikus ditzagun elementu biok, Fishman lagun, halako xehetasun batez.

a) *Muga-hesiei eutsi ezina*. Hirugarren eta laugarren multzoko hiztun-herriok *political boundary* edo politikazko muga-hesirik ez dute beren esku, normalean (38). Beren etnokulturari (eta, horren barruan, beren herri-hizkuntzari) ahalik eta osoen eutsi ahal izateko, hortaz, bestelako indargarrien bila jardun ohi dute. Bere baitara bildurik dituen estatu-nazioak aski babes instituzional ohargarria eskaintzen die, batzuetan, hiztun-herri hauei: Finlandiako minoria mediarrak, esate baterako, ia mende osoz eutsi dio babes-laguntza horri. Beste askoren kasuan, aldiz, gutxienezko babes ofizialik ere ez da izaten: ez, behintzat, hitzez eta egitez. Babes horrekin edo hori gabe, hiztun-herriok beren *sociocultural boundary* tradizionala indarrean mantentzen saiatzen dira. Transnizazio-prozesua aski aurreraturik dagoen kasuetan eta indarrean zer mantendu handirik gelditzen ez zaienetan, gizarte-molde berriak hartaturik lehengoari bere hartan eutsi baino gehiago *sociocultural boundary* eguneratu edo zaharberritu bat osatu eta zurkaiztu nahi izaten dute. Hil ala biziko lana dute hiztun-herri gehienok, delako *boundary* edo muga-hesi hori lortzearena. Horretan ez dago engainurik. Soziokulturazko muga-hesi horiek indarrean mantentzeko gai diren neurrian, eta ez gehiago, izango dira beren herri-hizkuntza hori ama-hizkuntza moduan belaunez belaurik transmititzeko gai. Muga-hesi guztiek, politikoei zein soziokulturalei, hiztun-taldeak (neurri batean, ez noski osorik) aparte mantentzeko gaitasuna baitakarte berekin: “*Boundaries, political or ethnocultural, imply separation of populations, the control of boundary crossing, the regulation of imports, the definition of desirable and undesirable cross-boundary relations*” (Fishman, 1991:356). Muga-hesi horien (gutxienez bigarrenaren) kontrol-galtzeak ondorio zuzena ekarri ohi du, normalean, hizkuntza horren eguneroko esparru arruntetako erabilera (erabilera-galeran alegia) eta, ondoriobidez, ama-hizkuntzaren belaunez belaurik jarraipenean (hots, jarraipen-galeran).

b) *Dependency interaction* delako moldera makurtzearen eragina. Muga-hesiak ez du, goian esan denez, politikoa izan beharrik: aski da soziokulturala izatea (39). Baldintza batekin, hori bai: soziokulturazko muga-hesiari zutik eutsi behar zaio. Erdal soziokultura nagusiarekiko harreman-tratuen zer-nolakoan eta zenbatekoan zeresan zuzena izan behar du etnolinguistikazko esfera txikiak, bere gizarte-bizitzaren zenbait jardun-esparru eta harreman-sare jakinaren gaineko gizarte-adostasunez eta onarpen argiaz bere kontrolpean gorde ahal izateko. Kontrolpean izateak, ondo uler bedi, ez du inola ere esan nahi soziokultura txikiak *Big Brother* nagusiarekin harremanik izan behar ez duenik, harreman horiek edonolakoak eta mugagabeak ezin izan daitezkeela baizik. Harreman-bide horiek ezin litezke edonolakoak eta mugagabeak izan, hizkuntza bien elkarbizitza egonkorra eskuratu nahi bada eta hizkuntza txikiaren bizi-iraupena segurtatu nahi bada. Zenbait harreman-tratuk, soziologoek *dependency interaction* diotenak bereziki, mugagabeko formulazioetara eraman ohi du berez eta, azken baten, *social reward system* arras desorekatuta. Eta hortxe dago koska: zehaztugabeko eta hiztun-herri txikiaren kontrolpetik ateratako zenbait harreman-tratuk mendekotasun-moldera, *social dependency interaction* modukora, pasatzeko arrisku bizia duela. Arrisku hori are biziagoa da, gainera, gurea bezalako ingurumen modernizatuan txertaturik dauden entitate etnokulturaletan. Hots, *dependency*-molde horrek hiztun-herri txikiaren belaunez belaurik jarraitasun etnokulturala ahuldu, gosaldu eta deuseztera jo ohi duela. Aurrerago itzuliko gara *dependency interaction* delakora, *social reward system* delakoaz jarduterakoan.

Nolanahi ere, eta honekin amaituko dugu oraingoz puntu honi dagokion azalpena, bistan dago hizkuntza baten osasun-mailarekin zerikusi zuzena duela soziokulturazko dimentsio horrek. Hizkuntzak galtzen (hiztun-herriak desagiten) direnean galera hori ez da, ezinbestean, hiztun-kopuruz txikiak direlako edota hiztun horiek zabalagoko “erdal itsasoan” barreiatu daudelako gertatzen. Demolinguistikazko baldintzapen hori bezain funtsezkoa izaten da, askotan, hizkuntza jakin batek bere hiztun-taldearen espazio soziofuntzionaleko erabilera-esparru eta harreman-sare jakinak estaltzeko daukan aukera, gogoa eta, aipatu berri dugunez, indarra.

II. 3. Bestelako azalpen-bideak.

Hizkuntzen arteko osasun-diferentziak ez dira, nolanahi ere, faktore demolinguistiko eta soziofuntzionalak mugatzen. Soziokulturazko muga-hesien kontrol kontuan (edo kontrol horren galeran) beste faktore asko ere kontuan hartzekoak dira. Hizkuntza bakoitzak duen prestijioa, barneko hiztunentzat zein kanpokoentzat, garrantzitsua da esate baterako. Orobat hizkuntza bakoitzaren literatur ondarea eta bere corpus-lanketa: ortografiak zuzen batasuna (eredu standard baten finkapen lexiko-terminologikoa, fonetikoa eta gramatikala) eta erabilera-modu desberdinetarako estilo-lanketa, sormena eta zabalakunde-indarra: horiek ere faktore eragingarriak dira. Faktore soziohistorikoak, ekonoteknikoak eta politiko-operatiboak aurre-aurrean egon ohi dira, bestalde, gizarte-molde hiritar modernizatueta. Bertako etnokulturaren lagungarritza indar-biltze sozipolitikoak ere tradizio luzea du batean zein bestean. Katalanok eta euskaldunok Espainiako herrialde gehienak baino aurrerago, garatuago, ibili izan gara ehun bat urtez. Horrek guztiak ere bere eragina izan du, dudarik gabe, etnokultura txiki-handien arteko nondik norakoan. Aurreko atalean zerbait hitz egin dugu, zeharka bada ere, horretaz: botere-faktoreak

ezin dira, horrelakoetan, alde batera utzi. Guztion bistan dago ahuldutako hizkuntzek (hiztun-elkarteek) beraiek baino askoz indartsuago diren prozedura ekonoteknikoei, soziokultureleiei eta (askotan baina ez beti: cf. herrialde baltikoak) politiko-operatiboei aurre egin behar izaten dietela. Desoreka horiek hor daudela eta normalean hor egongo direla jakinik jakatu behar izaten dute hirugarren eta laugarren multzoko hizkuntzek, nola-halako *modus vivendi* batean bederen bizirik jarraitu ahal izateko. Eta horretarako, jakina, eskura dezaketen babes-oinarri instituzionala eskuratzen eta zuhurki erabiltzen asmatu behar dute.

Gurea bezalako hizkuntza txiki, demografiak eta funtzio-indarrez ahulduetan oso kontuan hartzekoa da, besteak beste, bertako gizajendearen herri-gogoa: batez ere arbasoen hizkuntza bizirik gorde edo biziberritu nahia. Azken jokaera honi, bizirik gordetzeari bereziki, *language loyalty* deitu zion U. Weinreich (1953:99), lehendik emana zegoen izendapenari garbizaletasunaren puntua erantsiz, eta geroztik azterlan sendoen elementu nagusi bihurturik dugu: 1965eko *Language Loyalty in the United States* ez da, azken batean, azterpide horri zabalkunde ozena emandako ikerketa sakona baizik. Arbasoengandik datorkigun katea erabat ez dela eten jakitea eta, ondo jakinaren gainean, kate horri kosta ahala kosta bizirik eusten saiatzea, hitzez eta egitez: horixe da *language loyalty*, abertzaletasun politiko-operatiboekin nahastu behar ez dena. Elkarren eskutik etor daitezke biak, jakina, baina hori ez da ezinbestekoa. Gure artean ikus, adibidez, Urkixoren lekukotasuna. Funtsezko elementua da hori ere, ahuldutako hizkuntza indarberrituko bada. "Hitzez labur eta egitez jori" izatearen aspaldiko fama dugun euskaldunok egia da, joan den bi mende luzean, etengabeko saioan dihardugula *gu* izaten jarraitu nahi horretan. *Gu* izate hori, lehenik eta behin, seme-alabei eskuratzen saiatu izan gara. Saio-ahalegin hori herri-izateari dagozkion aiheka gehienetan egin izan da normalean: sinesmen eta balore, iritzi eta uste, poz-irrika eta beldurretan, ez hizkuntza kontuan bakarrik. Transmisio soziokultural hori baterabildurik etorri izan da mintzairaz eta uste-sinesmenez, jarreraz eta jokamoldez : hots, etnizitate-moldarea zabal-sakonean. Beranduago agertu izan dira, Europako beste hainbat herrialdetan bezala, jokamolde horren formulazio modernizatuak, plano politiko-operatiboan luze-zabaleko abertzaletasuna plazaratu izan dutenak. Herri-gogo horren atal garrantzitsua da, noski, hizkuntzazko euskaltzaletasuna. Hots, gure hizkuntza babestu eta sendotu, osatu eta txukundu, zabaldu eta indarberritzera bultzatzen gaituen talde-jokaera. Ez gara bakarrik munduan, gizarte-aldaketa onartuz *gu* izatearen (funtsean *gu* izaten jarraitzearen) aldeko apustua eginik dugunak.

Horrek guztiak gauza bat dakar berekin: "hizkuntza guztiak berdinak dira" aldarrikatu ohi dugunok batere atsegin ez dugun gauza, hain zuzen. Hizkuntzak, izan, oso desberdinak dira beraien utilidade sozialari dagokionez eta, horren eskutik, oso desberdinak dira beren gizarte-botereaz, beren baitako indarraz. Hizkuntzen *statusa* diferentea da, alegia, batetik bestera. Hizkuntza guztien berdintasuna badakigu gainera, jakin, bere esanahi sakon-zabalenean praktikara ezin eramana dela: ezin hasiko gara Europako aireportu internazional guztietako informazio-panelak munduko 5.000 hizkuntzatar (edota, soil-soilik, Europako hizkuntza guztietara) itzuli behar direla aldarrikatzen, "berdinak direnez eskubide berbera zor zaielako". Hizkuntzen arteko desberdintasuna onartzeak ez gaitu gainera ahultzen, zuhurrago eta aztiago bihurtzen baizik. Bai bada: hizkuntza guztiak indar berekoak balira ez geneukake hizkuntza ahulez eta, are, herio-bidean dauden hizkuntzez hitz egin beharrik. Ez eta hizkuntza ahulei berariazko babes-neurriak zor zaizkiela argudiatzerik (40). Egia da minbizia duen erriaren aurrean ez dela hitz-erdirik ere minbiziaz eta bere ondorioaz egin nahi izaten. Horregatik ote da guk ere hain gutxi hitz egiten dugula hizkuntzen utilidade sozial diferentzialaz eta horrek berez dakartzan gizarte-botere, ordainsari- eta zigorbide-sistema desberdinez? Baliteke hala izatea. Eguneroko jardunean hiritar arruntek isilik gordetzen dituzten osasun-diagnostiko atsekabeak eta are fatalak oso erne eta arduratsu aztertzen dituzte ordea medikuek, bai baitakite sendabideen garapena gaitzen ulermen ahalik eta sakonenetik etorri ohi dela normalean. Badakigu jakin diagnostikoak ez duela, berez eta bere baitarik, sendaindar erabatekorik izaten. Arras lagungarri izan ohi da ordea, gehienetan, terapia egokia garatu ahal izateko.

Honainokoa posible da gorputzeko osasun-gaixotasunen eta hizkuntzazkoen artean konparazioak egitea. Ez hori bakarrik: hizkuntz soziologiaren ibilbidean oso maiz egin izan dira, eta halaxe egiten dira gaur ere, hizkuntzaren eta gorputzaren arteko analogia horiek. Hor bukatzen dira ordea, gehienetan, balio-indar sendoko konparazioak. Hortik aurrera, antzekotasunak baino errazago aurkituko ditugu terapeutikazko interbentzio-eredu sanitarioen eta linguistikoen artean bereizgarriko ñabardurak eta ezin gaingintzeko diferentziak. Hona, besteak beste, eredu bien arteko bereizgarri nabarmen bat: hizkuntzek ez dute, giza gorputzak bai ordea, gehieneko bizi-itzaropen estatistiko finkorik. Hizkuntzak ez dira hiltzen zaharrak direlako ("eta, badakizu, guztiok ere joan beharra daukagu mundu honetatik"). Hizkuntzen kasuan ezin esan liteke hizkuntza baten gehieneko bizi-itzaropena 100, 500 edo 1000 urtekoa denik. Zahar izatea ez da hizkuntzen kasuan, ezinbestean, herio-arrisku.

Bada, bestalde, osasun-eredu horri zuku handiagorik atera ezin izateko gehigarriko motiboa: herri-jakituraren ezaguera-maila, hizkuntzen gaixotasuna diagnostikatzeko orduan eta erremedio baliagarririk gomendatzerakoan, aski apala izan ohi da gehienetan. Apala eta, behin eta berriro ikustea suertatzen zaigunez, aurreko hiztunen (batez ere aitona-amonen eta haien aurrekoen) esperientzien, eskarmentuen eta emaitzen oroimen zehatz argirik gabea. Mintzaldatzearen baitako hirugarren belaunaldia osatzen duen jendeak badaki, hainbatean, bere aitona-amonak euskaraz egiten zutela (dutela) etxean, baina gurasoek ez dutela (zutela) egiten. Gurasoek erdaraz egin izan diete umetatik eta horrexegatik dira beraiek erdaldun. Jendea (familia osoak, auzo osoa, herrialde osoa) aitona-amonen euskarazko mintzajardunetik gurasoen erdarazkora zerk eraman duen galdetzen badiezu, ordea, nekez erantzun sendorik, jeneralizazio-indar zabalekorik eskuratuko duzu. "Francoren garaiko debekuagatik" esango dizu batek. Hizkuntzen bizia aginte-molde (eta, are, agintari) jakin baten baitan ikusteko joera aski hedatua dago herritar xeheen artean. Ez motiborik gabe: beren hizkuntza ahulari egindako erasoak eta eragindako mehatxuak ez dira berehalakoan ahazten. Euskararen ibilbide historikoaren berri duenak badaki, ordea, euskararen atzerakada hori baino iturburu gehiago dituela, eta horietariko batzuk ondotxo lehenagotik lanean hasiak direla: ipar Euskal herrian ez dute Francorik izan, baina azken hirurogei urtean hizkuntzak atzerakada nabarmenagoa izan du haien artean, oro har, hegoaldean baino. Guztiek ez dute, halere, agintezko debekuen kontua aipatzen. Gero eta gutxiago dira, izan ere, 1940tik 1960-70era arteko gertaera haien bizi-eskarmentu zuzena dutenak. Gerraoste luzeko debeku-kontuak alde batera utzita beste esplikazio-modu hau eskainiko dizu zenbaitek: "Oraingo gazteek erdaraz nahiago dutelako" ari da euskara galtzen. Egiaren zati on bat esaten ari da, noski, hori edo horren antzekorik dioena. *Language shift* edo mintzaldatzearen sustraian belar batetik hurrengorako erabilpen-galera egon ohi da sarri, izan ere. Egiaren zati horrek barrenagoko beste egi zatia estaltzen du ordea: hizkuntza honetaz edo hartaz baliatzeko erabakia ez dagoela, bere osoan hartuta, mintzaira batari eta besteari gizarte horrek atxikiak dizkion ordainsari-sistemetatik at. Horrelako *hautapen librerik* ez dela hortaz giza arteko mintzajardun zabalean gertatzen. Norberaren gogo-kontu hutsa balitz logroñoar guztiek ez lukete gaztelaniaz egingo, Bordelen jaiotzen direnek frantsesez eta Milanokoek italiano. Halaxe egiten dute ordea. Herri-jakituraren irispide-muga gertaera fenotipikoaren konstrikzio genotipikoak antzeman ezinak berez dakarrena nabarmena da benetan. Hirugarren batek, azkenik, agintezko debekura edo hautapen librearen patura eramaten gaituzten azalpenez haraindiko esplikazioa eskainiko digu. Oso esplikazio ezaguna, joera eta jarrera guztietako euskaltzaleen artean aski zabaldia. Hirugarren esplikazio-bide

horrek, euskara zergatik galdu den edo galtzen ari den galdetzen diozunean, “eskolagatik” (izan) dela esango dizu. Eta nola esango diozu ezetz: begien bistako kontua da, hemen eta beste hainbat herrialdetan, bi mende luzez hor nonbait elkarren etsai izan direla eskola eta lekuan lekuko hizkuntzak (eta, bide batez, dialekto-aldaerak eta gainerako hizkera-molde informalak). Esan dezagun argiago: eskolak, jakinaren gainean eta aparteko arretaz, hiztun-herri txikietako gazte-jendea beren *hizkeratxo* horietatik *state-building*, *unifying language* nagusira mintzaldatzeko erabili dira kasuan kasuko agente-esparrutik. Hori guztia *ad nauseam* dokumentaturik dago aspaldidanik, hemen eta atzerrian, eta ez du merezi luzamendu handiegitan sartzerik. Argitu nahi duguna, aldiz, zera da: ezin ukatuzko egia horren izenean ezin defendituzko sinplifikazio kausabakarra bultzatzen ari garela. Oraindik ere lasai-lasai esaten jarraitzen dugu, euskara han-hemen galdu bazen edo galtzen ari bada maisu-maistra euskaletsa edo erdaltzaleengatik (izan) dela. Hori ez da ordea, osorik eta erabat, horrela. Eskola ez da, normalean, hiztun-herri osoaren mintzaldatzeko-iturri bakar izaten; nagusi izan litekeenik ere, ebidentzia enpirikoari bagagozkio, ez dago batere garbi. Euskararen galera ere ez da, hortaz, eskola-kontua izan. Ez orain, edo orain dela gutxi; eta ez, dakigun neurrian, lehen. Dudarik lukeenak atera beza kontu: orain dela berrehun eta berrogeita hamar urte, epe-garai jakinetara biltzearen, erdal maisuen eta eskola-giroko euskara-debekuaren kontua oso antzekoa zen Azpeitian eta Aoitzen, Ondarroan eta Gopegin. Zergatik batean (Azpeiti-Ondarroetan) bizirik gorde da euskara eta bestean (Aoitiz-Gopegietan) aspaldidanik hilik dago, guztiek gaixotasun bakarra eta gaixotasun berbera izan baldin badute? Eta ez hori bakarrik: gauzak hain errazak balira (erdaraz tutik ez zekiten umeei euskara ahaztuaraztea hain erraza gertatu baldin bazen orduko irakasle bakar batentzat), nolatan oraingo irakasle euskaldun saiatuek (lehen bakarria zegoen lekuan orain hiruzpalau daudelarik) ezin dute lortu ume erdaldunak zeharo euskaldundu eta herrialde erdaldundueta gazte-jendeak nagusiki euskaraz egitea? Are gehiago: zergatik irakasle euskaltzale saiatu hauek ezin garantiza dezakete itxuraz hori baino mila bider errazagoa den helburua: etxetik euskaraz (edo bietara) dakiten neska-mutilek, 16 edo 18 urte arte D eredu hutsean ibili ondoren, beren artean bederen euskaraz egin dezaten? Jakin bai baitakigu, hori ere segurtatu ezinik ari garela hainbat eta hainbat kasutan. Herri-jakituria motza da, oso, hizkuntzen gaixotasun-kontuan eta, batez ere, gaixotasun hori sendatzeko neurriak proposatzerakoan. Gauzak sinplifikatzea jo ohi du: bilakera demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatibo aski bihurrien ondoriozko gertaera (kasu honetan, luze-zabaleko mintzaldaketa) faktore mugatu, soil jakin bakar baten argitan esplikatzen. Sinplifikazio nabarmen horietatik ez dago, gehienetan, atarramentu onik ateratzerik. Euskalgintzaren esparruan dihardugunok badugu beraz garaia, obligazioa ere bai nire ustez, kontu hauei beste maila jasoagoan, informatuago eta objektiboago heltzeko.

III. Zer da ahuldutako hizkuntza indarberritzea?

Esana dugu txostenaren hasieran, terminologi aldetik bertatik hasita aniztasun zabala dagoela, indarberritzea dela-eta. Ez euskaraz bakarrik: gaztelaniaz ere *revitalización*, *recuperación*, *normalización*,... *lingüística* hor daude egon, alternatiba gehiagoren lekuko. Ingeleseztan beste horrenbeste: *language revival*, *survival*, *revitalization* eta *reversing language shift*, besteak beste, hor daude elkarren ondoan. Dispersio hori ez da, gainera, terminologikoa bakarrik. Azalaz gainera mamia bera ere eztabaidagai izan ohi da sarri. Osin sakonean murgiltzeko arriskua dugu hortaz, kontuz ez bagabiltza, *indarberritzearen* kontzeptuarekin. Kontzeptuarekin edo, argiago esateko, kontzeptu horren oinarrian dauden ikuspegi akademiko eta ideologiko desberdinekin. Ikuspegi ideologikoei dagokienez aspaldikoak dira, azal batez edo bestez estalirik, indarberritze-saioen aldeko eta kontrako argudio-bideak. Landuago (hots, esparru unibertsitario, akademiko-formaletan sistematizatuago eta zientzi urinez gozatuago) agertu ohi dira normalean normalakuntza-saio horien kontrako planteamenduak, aldekoak baino. Gogora ditzagun erreparatu horietariko zenbait. Jakina da XIX. mendetik hona, aurrekoen esan-eginak hor daudelarik ere, gaitzespen gordina leporatu izan zaiela hizkuntza infraestataleiei (denei ez bada ere batzuei bai behintzat, eta horien tartean euskarari): ez direla gai, bizitza modernorako. Gure kasu konkretuan zera argudiatu izan da: fisikoki (berezko ezintasun estrukturalengatik alegia) ezinezkoa zela/dela gizarte hiritar-industrial berria euskaraz agertzea, adieraztea eta antolatzea. Ameskaizto hutsa omen da herriko jende xeheak ukuiluan eta supazterrean zerabilen hizkera xehebre hartatik *norannahiko* hizkuntza, *azal oriztaren pean muin betirakoa* lukeena eratzea. Ezagunak dira, egungo egunean ere, Unamunok orain dela ehun urte euskararen “berezko ezintasunez” esandakoak. Unamuno ez zen, dena den, ikuspegi horren bozeramaile lehena izan, gaitzesle-edo detraktore-sail luze baten katebegi jakina baizik. Azkena ere ez zen izan, ongi ezaguna denez: oraindik ere entzuten dira, han-hemen, bere gogoeta-bidearen oihartzun-atalak. Isildu dira halere, hainbatean behintzat, behinolako kontraargudio esentzialista horiek. Bestelako gaitzespenek hartu diete han-hemen, azken urteotan bereziki, aurrea. Badakizue, jakin, egungo egunean zeintzuk diren usuenik plazaratzen direnak: gizarte-uren berezko ibilbidearen (hots, modernizazioaren eta bere bidezko gizarte aurrerakoi, osabetezkoaren) kontrako saioa dela euskaltzaleasuna eta, oro har, han-hemengo hizkuntza txiki ahulak indarberritu nahia; berez bestelako asmorik badu ere liskarra eta zalaparta, mutur-jotzea eta herio-arriskua dakarrela, alde edo molde, besapean; herriko (hiztun-herri horretako) jende xehea ezjakintasunean eta miserian mantentzeko (hartara kondenatzeko) bidea dela hori; gizabanakoaren beregaintasun-eskubideak murriztera eta zapuztera datorrela, eta abar. Ez da hau, noski, argudio horien bilduma eta azterketa pausatua egiteko lekua. Bistan da, ordea, euskaltzaleok eskaini ohi diegun baino ondortxo atentzio handiagoa zor diegula ikuspegi horiei guztiei. Gehiago esango nuke: ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko formulazio teoria-itxurazkorik ezin osa liteke, erreparatu horiek banan-banan aztertuta eta beren baitan dituzten balio-elementu objektiboak bestelako hipoteka nabarmen edo izkutuagokoetarik ongi bereizten saiatu gabe.

Gatozen, ordea, gaurko gaiaren mamira. Zer da ahuldutako hizkuntza *indarberritzea*? Fishmanen esanetan, **hizkuntza indarberritzea** (euskaraz HINBE, ingelesez RLS edo *reversing language shift*) hizkuntzazko plangintza-modu bat da. Eta, beraz, hizkuntz plangintzaren hainbat definizio eta ezaugarri asko aski egokiak gerta daitezke HINBERentzat ere(41). Ondoko hau, adibidez: “Status planning seeks to allocate societal resources in such ways as to foster the use of a language in more (and in more important) societal functions among larger and larger numbers (and proportions) of individuals” (Fishman 1991: 338). Gurera ekarri, hortaz, honelako zerbait gure hizkuntz plangintza oro har, eta HINBE saioa bereziki: ahuldutako hizkuntza hori gero eta funtzio-esparru gehiagotan (eta garrantzitsuagoetan) erabiltzeko, eta gero eta hiztun gehiagoren ezpain-lumetara hedatzeko, gizarteak bere esku dituen baliabideak erabiltzea. Gizartearen baliabide horiek zein diren ez da hemen justu-justu esaten. Beste hainbat azalpenetatik badakigu ordea, jakin, giza baliabideak, dirubideak, baliabide materialak eta antolamenduzkoak, legezko eta agintezko erabakimenak direla, nagusiki, kontuan hartu ohi direnak. Honela esanda, indarberritze-saioa gorago ikusi dugun ahultze-prozeduraren alderantzizkoa-edo da. Gainbehera zetorren hizkuntza (hots, partez edo osoz hizkuntza hori erabiltzen zuen konstelazio etnokulturala bere autorregulazio-ahalmenean jasaten ari zen galera) gorabidean jartzea. Noraino, ordea, gora? Zein funtzio-esparrutaraino zabaldu behar da hizkuntz plangintza hori, eta zer hiztun-multzotaraino hedatuaz, benetako indarberritzeaz hitz egin ahal izateko? Erantzuna, erantzun objektibo sendoa, nekez bilatuko diozu galdera soil horri. Itxurazko erantzuna eman nahi duen edonork, aldiz, “segun” esanaz hasi beharko du. Segun osasun-egoera normalaren listoa non jartzen dugun, halakoa izango da *indarberritze* horren intentsitatea ere. Espazio soziofuntzional osoa eskuratu nahi duen saioarentzat, *indarberritze* hitzak esanahi sendoagoa izango du

hizkuntzari bere ohiko erabilera-esparru barrenkoi-intimoak segurtatu nahi dizkion diglosia egonkoraren aldeko apustuak baino. Espazio soziofuntzionalarekin bezala gertatzen da demolinguistiko eta geolinguistikoarekin ere. Gauza bat da euskarari *gaur oraindik egiten den* eskualdeetan (eta, haietan ere, euskaraz jardun ohi dutenen artean) bizirik eutsi nahi izatea, eta bestea behinolako Euskal Herriak biltzen zituen eskualde guztietara (eta eskualde horietako bizilagun guztiengana) bere berreuskalduntze-lana hedatu nahi izatea. Segun jomuga non jartzen den (eta hori ez da zientzi kontua noski), halakoa izango da indarberritzearen zer-nolakoa eta norainokoa ere.

Garbi dago, hortaz, *indarberritze* hitzarekin oso gauza diferenteak esan ditzakegula. Diferentzia horiek kontuan izanik, eta aplikazio posibleen nondik norakoa argitzeko asmoz, oinarritzko bi azepzio hartuko ditugu hemen kontuan: indarberritzearen gutxienezko esanahia batetik, eta osabetezkoa bestetik. Tarte-bitartean, jakina, erdibideko konbinazio-aukera ugari egon liteke.

III. 1. Indarberritzearen gutxienezko esanahia.

Ikuspegi honen arabera, *ahuldutako hizkuntza indarberritzeak* zera esan nahi du: hizkuntza horrek egungo hiztun-taldeetan bizirik jarrai dezan lortzea edota, jarraipen-bide hori eten egin bada, hizkuntza hori berriro ere belanez belan ama-hizkuntza gisa transmiti dadin segurtatzea. Soziologo askorentzat, hortxe dago gakoa: ez hortik gorako beste helburuak okerrak edo kaltegarriak iruditzen zaizkielako berez, hizkuntza txikien hil ala biziko apustua justu-justu plaza horretan jokatzen dela uste dutelako baizik. Gurera ekarriz, hona zer dioten: "Gure seme-alabek etxean euskara ikasi eta familian, lagunartean, auzo-giro hurbilean euskaraz (nagusiki euskaraz) egin dezaten lortzen badugu, eskola eta beste zenbait gizarte-erakunde lagun dutelarik, beste hogeita bost bat urteko arnasaldia eman diogu hizkuntzari. Eta bitartean, jakina, hainbat itokin eta hainbat aberia konpontzeko tarte (gure helduak aktiboak) daukagu". Hori da funtsean Fishmanen helburu nagusia, bakarra ez bada ere, aurrerago ikusiko dugunez (Fishman 1991, 2001). Ez Fishmanena bakarrik, ordea. Ikus dezagun, adibidez, Spolsky-k (Spolsky eta Shohamy, 2001: 35) bere *revitalisation* edo indarberritzea nola definitzen duen: "My preference for revitalisation highlights rather the critical importance of restoring *vitality* or normal intergenerational transmission of the language as a mother tongue". Hori da hiztun-elkarte edo hiztun-talde batek lortu behar duen gutxien-gutxienezkoa, bere hizkuntza hori gal ez dadin. Horretarako bide egokiena badakigu zein den: hiztun horien aurrez aurreko harreman-sareak (etxeak, lagunartekoak, kale-giro hurbilekoak) hizkuntza horren bidez osatu eta mamitzea. Erabatekoa ezin izango bada ere, neurri bateko kontzentrazio demografikoa eskatzen du horrek. Babesgarriko arnagunea eskaintzen dio horrek, espezialista guztiek ahobatez aitortzen dutenez, RLS edo HINBE-saio osoari. Hurbiltasun fisiko hori oso mesedegarria da, izan ere, ama-hizkuntzaren transmisio-lanean hain funtsezkoak diren aurrez aurreko harreman-sare horiek hizkuntza ahulaz bideratu ahal izateko. Kontzentrazio demografiko horrek erraztu egiten du, dudarik gabe, indarberritze-saioaren oinarri-oinarritzko helburua: etxean eta auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitza arruntean erabat edo nagusiki hizkuntza horretan egitea, jaiotzen diren haurrak hizkuntza horixe izan dezaten beren ama-hizkuntza, beren L1 naturala. Xenpelarrek, buruan besterik zuela noski, esango zukeenez, "jaioko dira berriak; gu gera euskal herriak".

Ingurumen modernizatueta (hots, gurea bezalakoetan) zaila da ordea, benetan, kontzentrazio demografiko horri eustea. Baserria eta herri txikia utziaz, kalera etorri da jendea, bizi izatera: Donostialde eta Bilboalde osoa, esate batera, nor bere Hinterlana euskaldunaren kontura etengabe hazten eta zabaltzen ari dira (42). Kontzentrazio demografikoaren aurkako joera da hori, funtsaren funtsean. Euskal arnaguneak urrituz, mehartuz eta besteren gero eta zerbitzariago bihurtuz doa hainbatean. Hirira etorritako euskaldun-jendeak, berriaz, nekez ordura artekoa bezain harreman sare euskaldun berregin dezake. Hiriburuko eta hiri-giroko hiztun gehienon harreman-sareak aski ugariak izan ohi dira, modernizazio-prozesuak berekin dakarren rol-errepertorioaren edo rol-sortaren zabaltzeak eta dibertsifikatzeak bultzaturik. Eta harreman-sare horietariko hainbatek, hizkuntza indartsuaren eta ahulduaren arteko botere-gradienteak hartaraturik, hizkuntza nagusi hori harreman-esparru barrenkoi-intimoetan ere txertatu eta etxekotzera jo ohi du. Eta jakina: etxea eta familia, auzoa eta lagunarte hurbila hizkuntza nagusiak bereganatzen dituen neurrian oso zaila, praktikan ezinezkoa, bihurtzen da ama-hizkuntza ahuldu hori belanaldi batetik hurrengora luze-zabal eskuratzea. Hortxe dago, beraz, gutxienezko indarberritze formulazioaren abantaila: zaurian jotzen duela bete-betean. Hizkuntza bizi guztien transmisio-bide nagusiaren muin-muina apuntatzen duenez oso azalpe zorrotza da, ahuldutako hizkuntza indarberritzen ala areago ahultzen ari den analizatzeko: belanez belaneko ama-hizkuntzaren transmisioa segurtatzen ez den kasuetan garbi dago hizkuntza hori ahulagotzen ari dela, ez indarberritzen. Aski ote da ordea etxea eta familia, auzoa eta lagunarte hurbila ahuldutako hizkuntzaren mende (osorik ezin bada ere neurri ohargarrian behintzat haren mende) izatea, belanez belaneko jarraipena segurtatu ahal izateko? Posible al da hori, batez ere, gurea bezalako gizarte-molde modernizatu globalzale, supraetnikora bidean doazenetan? Hortxe ikusi ohi zaio formulazio honi, inon ikustekotan, bere muga-eragozpen nagusia. Aurrerago itzuliko gara, berriro, hain funtsezkoa den puntu horretara. Esan dezagun hemen, labur beharrez, horixe dela indarberritze-formulen gutxienezko adiera. Zabaltzea baino gehiago, dagoenari eutsi eta ahal den neurrian bizirik gordetzen saiatzea: ama-hizkuntzaren belanez belaneko katea eten ez dadin segurtatzea, horixe da funtsean, beti hala aitortzen ez bada ere, *language loyalty* kontzeptuarekin aski lotura estuan dagoen indarberritze-mota horren gutxien-gutxienezko helburua. Baita helburu nagusia ere, hainbatetan. Batzuentzat funtsezkoa (eta, beraz, lehenetsi beharreko helburua) den hori, ausardia edo anbizio-falta da beste zenbaitentzat.

III. 2. Indarberritzearen osabetezko esanahia.

Ikuspegi honen arabera, *ahuldutako hizkuntza indarberritzeak* zera esan nahi du: hizkuntza hori erabateko garapen demografiko eta soziofuntzionala eranstea. Hiritar guztiek hizkuntza hori (ere) erabil dezatela, gizarte-bizitzaren funtzio-esparru guztietan. Adibide grafikora itzuliz, *gaztelania Logroñon bezala* ibil dadila euskara gure artean. Eta hori ez Azpeitian eta Ondarroan, Baigorri eta Leitzan bakarrik: baita Durangon eta Elizondon, Eibarren eta Donibane Lohizunen, eta are Bilbo moduko hiriburu ia zeharo erdaldunduetan ere.

Formulazio hau, dudarik gabe, aurrekoa baino begiluzeagoa, anbiziosoagoa da jomugaz. Ikuspegi honek ez du esaten euskararen (eta, oro har, ahuldutako edozein hizkuntzaren) belanez belaneko jarraipena segurtatu behar denik. Kuestionatu ere ez du egiten hori, Logroñon kuestionatu ere egiten ez den bezala bertako familietan, auzo-bizitzan eta lagunarte hurbilean gaztelaniaz egiten jarraituko denik eta, horren ondorioz, jaiotzen (eta jaioko) diren logroñoar berriek ere gaztelania izango dutenik beren ama-hizkuntza. Egindakotzat ematen da hori: hori segurtatua dagoela onartuz, hortik gorako

helburuak ezartzen dizkio bere buruari osabetezko indarberritze-saioak. Logroñon bezala, Bilbon eta Irurtzunen, Asteasun eta Hazparnen gizarte-bizitza osoa (43) *etxeko hizkuntzaz* mamitu nahi du indarberritzearen osabetezko formulazioak: Euskal herrian euskaraz, eta kitto!

Gutxienezko formulari ausardia falta aurpegiratu ohi zaion moduan, jakituria falta eta are itxutasun soziologikoa egotzi ohi zaio osabetezko formulari: duguna eta izatea nahi genukeena bereizten ez jakitea, hasteko. Begiz jotako berreskuratzeko-ekintzen bideragarritasun-azterketarik ez egitea, ondoren. Eta, batez ere, hizkuntza bizirik aterako bada lehentasunak zein diren argudiatu eta finkatzeko gaitasunik eza. Konkretuki, itsasontziari kubiertatik urik sar ez dakion lehia bizian saiatzen ari izatea ura, zorrotada betean, beheko bodegatik sartzen ari dela kontuan hartu gabe.

IV. Zer egin liteke, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko?

Konstruktuko teoriko gutxiago, eta han-hemengo eredu konkretu gehixeago, azalduko dugu laugarren atal honetan. Alderdi praktikoak azpimarratu nahi dira, nolana ere, hemendik aurrerakoan. Aurretik argitzen saiatu garen kontzeptuak behar-beharrezkoak gertatuko zaizkigu, halere, aplikazio-lan horretarako.

Azken ehun urte luzean, saio ugari egin da han-hemen lekuan lekuko hizkuntzak (batez ere goi-mailako gizarte-esparruetan eta idatzizko jardunean erabateko debekua edo aski sarbide murrizta zutenak) indartzeko, zabaltzeko, edertzeko edo osatzeko. Saio horiek oso diferenteak izan dira batetik bestera. Diferentzia horien iturri nagusiak, itxuraz, honako hauek izan dira: a) saio osoaren azken jomuga. Hots, hizkuntzarekin zer egin nahi izan den: bere erabilera gizarte-esparru berrietara zabaltzeko; idatzizko jardunerako hizkuntza eredu bateratua sortzeko; bere ohiko hitz-altxorra "garbitu", erdaratikoa maileguak eginahalean baztertuz,... edota, nola ez, hiztunik gabe gelditzean ari zen hizkuntzari hitzun berriak erantsi, eguneroko jardungune arruntetan bederen; b) saioaren egilea. Hots, indartze-edertze-zabaltze saio hori nork egin izan duen: hizkuntzalari jakitunen batek, hartarako sortua dagoen hizkuntza akademia edo elkargoren batek, hizkuntza txiki-ahulari hitzun gehiago edo jardungune berriak eskuratu nahi lizkioketen ekintza-elkarteei, erdi- edo goi-mailako herri-aginteei,...; c) lan-prozedura. Hots, eguneroko praktikan zer eta nola egin nahi den, hizkuntza jakinaren alde egin nahi den hori: agente-indarrez, hitzunak elkarrenganatu eta presio-bide sendoak eratuz eta aplikatuz, pertsuasio moralez edo intelektualez, gizarte-indarrei "beren bidea" egin dezaten utziz,....

Indarberritze-saio batzuek arrakastatsu gertatu dira. Batez ere XIX. mendean abiatu zirenak eta aspalditxodanik estatu-aparatu beregainaz horniturik dauden hitzun-herrienak atera dira garaile: demagun txekoa eta hebraiera, hungaroa eta finlandiera. Irispidean dugun etorkizun hurbilera begira, nekez esan dezake inork "garaile" izendatu ditugun hizkuntza horiek galtzeko arriskuan daudenik: ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena eta eguneroko bizimodu arruntaren jardungune gehienetako nagusitasuna aski segurtaturik daukate. Ez da egia, beraz, inoiz edo behin entzutea suertatzen den esaldi etsia: ahuldutako hizkuntza bat ezin dela bere onera ekarri, ezin dela indarberritu. Beranduegi dela horretarako. Goiko adibide horiek (Israelgo hebraierak, bereziki) argi erakusten digute ezintasun erabatekorik ez dagoela. Beti, behintzat, ez dela beranduegi. Hainbat hitzun-herri lortu egin du, zinez, bere hizkuntza ahula indarberritzea. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio askok, gehienek seguruenik, ezin horrelakorik esan dezakete ordea: aurrera baino gehiago atzera egin dute saio ugari horiek edota, onenean ere, ikusteko dago zer ondorio aterako den azkenik. Porrot (partez edo osoz porrot) egin duten indarberritze-saioez baterik daude mundu-bazter guztiak. Eta, goazen bidetik goazela (Krauss, 1998, 1992; Fishman 1985, 1991, 2001), beldur izatekoa da joera hori areagotu egingo dela hasi berria dugun mende honetan (44).

Egia da hitzun-herri bakoitzak bere bidea urratu duela, bide propioa eta berezia, galtzeko arriskuan zeukan/daukan hizkuntza hori indarberritzen saiatzeko orduan. Horrek ez du esan nahi, ordea, han-hemengo saioak zeharo diferenteak, elkarren inolako antzik gabek, izan direnik. Han-hemengo saioak sistematizatzen eta konparatzen saiatu direnek, konkretuki, amankomuneko enfoke bat baino gehiago topatu izan dute. Bibliografia teknikoari dagokionez, konkretuki, badirudi hurbilbide teoriko nagusiak ondoko lau hauek izan direla:

- *corpus planning*: hizkuntza bera "garai berrietarako" egokitzea.
- *acquisition planning*: galbidean doan hizkuntza jendeari erakustea.
- *osabetezko status planning*: aginpidea eskuratuz hizkuntza ahulari, ohikoez gain, goi-mailako funtzioak segurtatzea.
- *community fostering*: hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hitzun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea.

Ez dago dudarik beste formulazio asko ere ekar daitezkeela hona. Ez dut uste, ordea, hurbilbide berri horiek goiko lau bideok ezabatzeraz edo itzulipurdikatzeraz iritsiko liratekeenik.

Aparte azalduko ditugun lau hurbilbide horiek ez dira, bestalde, elkarrengandik zeharo diferenteak. Ez dira, urrundik ere, bateraezinak. Hainbat puntutan bat datoze, edo bat etor daitezke. Enfasia edo lehentasuna: horixe dute askotan hurbilbideok berezia. Espero izateko zenez, hurbilbide horien prestatzaileek lanbidez edo ikasketaz duten espezializazio-alorrek berak zerikusi zuzena izan du teoria bakoitzaren ikuspegi eta enfasi nagusiarekin. Hizkuntzalariak, normalean, lehenengo hurbilbidea hobetsi izan dute. Irakasleak eta psikologoak, aldiz, bigarren esparrutik heldu izan diote sarri asko indarberritze-saioaren ardatzari. Politikariak eta plaza-gizon herri-maiteak, juristak eta jostore publikoak hirugarren bidean barrena lehiatu izan dira gehienik. Soziologoak eta antropologoak, azkenik, sarriago jokatu izan dute laugarren bidetik. Hori ere gehiago da ordea gauzak esateko modu bat, beti eta nonahi egiazta litekeen printzipio unibertsala baino. Hizkuntzalariak genuen K. Mitxelena eta, euskaltzale-giroan osatuz eta zabalduz zihozaren ikusmolde berriak bere eginik, goren gradura eraman zuen berak, lehenengo hurbilbidetik noski, euskararen corpus-plangintza. Hirugarren bideaz ez zen ordea, aski ezaguna denez, inoiz ahaztu edo lotsatu: arrazoizko eta elkar hartuzko hizkuntza politika esplizitu baten beharra inork baino ozenago aldarrikatu zuen sarri, *laissez faire*ren hutsala edo maltzurra seinatuz. Lehen eta hirugarren bideak zituen S. Aranek begiko; baina 1900etik aurrera gero eta fermukiago lotu zitzaion (gogo-azalpenez bederen) laugarren bideari. Hirugarren bidea

gehien urratu zuten pentsalariak, *Paisos Catalans* direlakoetan hazi eta hezitakoak, soziologiaren ikuspegitik oso hurbil ibiliak ditugu gehienetan. Gainerakoetatik zeharo bereziak liratekeen hurbilbideez (eta, batez ere, bide berezi horietan barrena beste inoren berri izan gabe ibilitakoez) nekez hitz egin liteke, hortaz, indarberritze-saioen alor honetan. Formula sinkretikoak, han-hemengo ikuspegiak lotzen saiatzen direnak, paradigma huts-garbiak baino ugariagoak ditugu, izatez. Goiko lau hurbilbide horiek egokiagoak dira beraz hasierako azalpen formalak eskaintzeko, benetako egoera konkretuen konplexutasuna agertzeko baino. Bere muga eta aje guztiekin ere, lau ataleko azalpide hori baliagarria iruditzen zait gure arteko kontuak argitzen saiatzeko. Has gaitzen beraz, besterik gabe, hurbilbide horiek banan-banan aztertzen. Kanpoko eta etxeko kasuak, jakin-iturriak eta prozedurak elkarren ondoan ematen saiatuko gara azterpide horretan, gure aurretik euskalgintzan jardun duten bidegileak (hartarako egokiera dugun bakoitzean) atzerriko erreferentzien argitan txertatuz.

IV.1. **Corpus planning:** *hizkuntza bera "garai berrietarako" egokitzea.*

Konstatazio edo printzipiozko baieztapen batetik abiatu izan dira, normalean, lehenengo hurbilbide hau aukeratu izan dutenak: hizkuntza bera, bere barne-egitura alegia, honetan edo hartan trakets dagoela gizarte berriaren mintzabeharrei (eta, bereziki, idazlangintzari) ondo erantzun ahal izateko. Idatzizko eredu estandarrik ez daukala eskueran, ez auzo-hizkuntza nagusien parean behintzat: ortografia erdi-baturik daukala, gramatika kontuetan ez dagoela bide finkorik, eta hiztegi kontuan bakoitza bere bidetik dabilela. Eta ez hori bakarrik: hizkuntza bera zaharkitua gelditu dela mundu modernoaren konplexutasuna arin eta zehatz adierazteko. Badakizu, hain aspaldikoa ere ez da-eta, preautonomi garaiko argudio-modu hura: "no se puede hablar de física nuclear en euskera". Zaharkitze eta desegokitasun horren ondorioz, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko bidea, bide bat bederen, horixe dela uste izan da askotan: bere baitariko gabezia, trakestasun edo moztade horiek gainetik kentzea. Sukalde-baztererra eta taberna-zulora bazterturik gelditzen ari den hizkuntza *xaharkitu* hori oraingo gizartearen mintza- eta idatz-behar guztiei artez eta zalu erantzuteko prestatzea. Autoari motorra konpontzea alegia, mekanikazko konparazioa zilegi balitz, eta *berria bezala* uztea beste ehun edo berrehun mila kilometrorako. Ba ote da Europan hizkuntzarik, handi zein txiki, bere historiaren une batean edo bestean (aginte-esparrutik ez bada iniziatiba partikularrez edo akademiko-profesionalerik) era horretako motor-konpontzerik egin ez duenik? Ezagutzen ditugun hizkuntza gehienek, izen batez edo bestez, badakigu halakorik egin izan dutela. Hizkuntza handien artean gutxitan egin da ordea azken berrehun urtean, hori ere esan behar da, horrelako *arreglorik*. Eta hainbatek, horrexegatik agian, argi esango digu *arreglo* horiek ez direla berez parte onekoak. Euskaldunok eta beste zenbait hiztun-elkarte ahulek nork geure hizkuntza propioarekin saiatu izan dugun motor-konpontzea zabala da zinez. Larramendiren eta bere ondoko jarraitzaile hurbilen saioak alde batera utzita ere, ehun urte luze daramagu euskaldunok, kasik etenik gabe, konponbide horretan leporaino sartuak: erdal interferentzia lexikal zein gramatikaletatik *libratzen*, euskararen ortografia bateratzen, euskara batuaren gramatika- eta hiztegi-arauak definitzen, jakintza-alor gehienetarako terminologia teknikoak hornitzen,.....

Norbaitek galdetzen badigu hori guztia zergatik egiten dugun, lehenxeago edo beranduxeago honelako zerbait erantzungo diogu: "euskararen erabilera bultzatzeko". Norbaitek galde diezaguke, *degu* edo *dogu* ordez *dugu* esatearekin eta idaztearekin nolatan lortzen den hizkuntzaren erabilera indartzea, zabaltzea eta babestea. Begirunez eta argudio-oinarri minimoaz jokatu nahi badugu galdera egin digunarekin, funtsean bi bide ditugu eskueran: euskararen corpus-plangintzaren inguruan bateratze horretaz dagoen tradizio ideologiko, akademiko eta operatiboa agertzea batetik; atzerriko zenbait teorigileren ekarpenak mahaigaineratzea bestetik. Emaizta enpirikorik nekez, gaur-gaurkoz, eskaini ahal izango diogu. Batasunak indarra dakarrela berekin, eta indarrak osasuna, tradizio kultural luzea du pentsabide horrek Europan. Pragako Eskolak inork baino zorroztiago eta argiago finkaturik utzi zigun tradizioa, aurrerago azalduko dugunez. Europan ezezik baita gure artean ere, gainera: Mitxelenaren Arantzazuko txostena dugu, oker ez banago, tradizio horren azken paradigma bizia, etxekoon artean zein kanpokoei begira oraindik ere indar betean agertu ohi dena. Arantzazuko txosten hartan, bere lehen pasartearen, honela zioen Mitxelenak: "Ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea". Garbi ageri da, Mitxelenaren esaldi horretan, euskararen gorputzean (hortixe dator, hain zuzen, H. Klossen 1969ko *corpus-planning* hitza) egin nahi den interbentzioa elementu klabetzat hartzen dela. Gorputz-lanketa edo corpus-plangintza hori ongi egiten bada, hortik sortutako hizkuntz eredu bateratu berriaz zuzenago eta errazago eragin ahal izango da eskola-munduan eta handik, azken batean, osasun hobe eskuratuko zaio hizkuntzari. "Hil edo biziko" balioa aitortzen zaio, 1968ko txosten famatu hartan, hizkuntza (idatzia) batasun-bidean jartzeari. Kontuan izan, geroxo utzi gabe, Mitxelenak (eta, oro har, mundu zabalean kontu hauetaz jardun dutenek) ez duela corpus-plangintza interbentzio linguistikoa huts horretara (horretan dihardutenen teknolekto edo jerga profesionalen *codification* deitzen dena) mugatzen. Grafiaren, gramatikaren, hiztegiaren edo hots-ebakeraren alorreko kode bateratu berri horiek inplementatu egin behar direla esaten digute beti: hedatu, gizarteratu eta luze-zabalean indarrean ezarri behar direla alegia. Idaztarau berriak lau paretaren artean erabaki, paperean jarri eta "egin bedi" esatearekin ez dela aski. Jendeak ezagutu egin behar dituela arau horiek, ontzat eman, buruz ikasi eta zuzen erabili: benetako estandarizazioa orduan lortzen dela, lau pauso horiek osorik egindakoan; ez lehenago. Espezialista batzuek, Einar Haugen tarteko (Haugen, 1983: 275), *educational spread* deitzen diote horri, Mitxelenak berriaz aipaturiko eskolagintzaren ildotik (45). Are gehiago esaten dute espezialista horiek: langintza hori ez dela berez inoiz bukatzen eta, *implementation* edo *educational spread* horren ondoren, *elaboration* edo *functional development* ere ardura osoz burutu behar dela. Gizartea berrituz doanez etengabe, eta hizkuntza jakina (kasu honetan, indarberritu nahi den hizkuntza) mintza- eta idatz-behar berrietara ongi egokitu ahal izateko, lexiko-berrikuntza (espezialisten hitzetan *terminological modernization*) eta estilo-garapena (*stylistic development*) orobat zaindu, bultzatu eta indartu beharreko ekimenak direla esaten digute. Hots, hizkuntza landu egin behar dela etengabe (*language cultivation* (46) bideratu behar dela), hasierako ortografia, gramatika eta hiztegia definitu ondoren.

Esplikazio handirik ez du honek behar, berrogei eta hirurogei urte arteko euskaldunontzat bereziki. Burutik burura osatzen saiatu baikara, azken hogeita hamar urte inguruan, euskararen corpus-plangintza hori. Euskararen onean (euskara gehiago eta hobe erabil dadin, alegia) jardun izan dugu, ustez, plangintza horretan. Ikuspegi zabal horren baitan, *euskara batua* sortzea eta han-hemen hedatzea ekimen osoaren giltzarri, operazio osoaren iturburu eta indargarri izango dela uste izan dugu sarri. Esparru berrietarako (erdi- eta goi-mailako irakaskuntzarako eta lan-esparru moderno, hiritar, teknifikatueterako) terminologiazko lanketa zabala bultzatu eta mamitu dugu, orobat. Hizkuntz plangintzarekiko nire harreman profesionala, esate baterako, cultivation alorrean abiatu zen nagusiki, Elhuyarren (*corpus planning*, *cultivation* eta gainerako hitz xeble horiek baziren ere jakin gabe noski) egiten genuen *stylistic development* delakoaz eta gero, UZEIn batez ere, alorrez alor bultzaturiko *terminological modernization* zabalaz. Beste askok, terminologian baino areago, gramatikaren esparruan ikusi izan du *elaboration* hori batez ere osatu beharra: Euskaltzaindiaren EGLU lanak, esate baterako, estilo-lanketaren oinarritzat har daitekeen ikuspegi horretatik prestatuak dira. Enfasia batean zein bestean egin, gauza bat dago argi: euskararen egitura

hobetuz indarberritu nahi izan dela hizkuntza. Hortik datorkio hain zuzen, eskuartean darabilgun paradigma honi, bere izaera linguozentrikoa.

Hizkuntzaren batasuna, ikuspegi horren haritik, hizkuntzalarien (47) kontua dela asumitu izan da lehenengo egunetik. Ez beraiena bakarrik, baina lehen-lehenik beraiena bai. Beraiek dira izan, konstruktua honen arabera, ahuldutako hizkuntzari indar berria emateko orduan lehen pausoa eman behar dutenak. Enfoke linguistikoa da, horrexegatik, lehen hurbilbide honen ezaugarri nagusia. Hizkuntzak (honegatik edo hargatik) gizarte berriaren beharrei erantzuteko zenbait defizit linguistiko (ez, ezinbestean, demografiko, sozioekonomiko, soziopolitiko edo soziokultural) dituela kontsideratzen da, eta falta-gabezia horiek hizkuntzaren beraren etorkizuna, bizia ere bai, arriskuan jar dezaketela ondorioztatzen. Horrexegatik, hizkuntzari eta hiztun-elkarteari bizirik irautean laguntzeagatik alegia, hizkuntzaren edifikazioan (bere estruktura lexikalean zein gramatikalean, batez ere) zaharberritze-lanak egitea erabakitzen da. Zer-nolako zaharberritze-lanak?: goraxeago corpus-plangintza deitu dugun alorrekoak.

Hiru iturritara jo dezakegu, Europa erreparatuz, corpus-plangintza horren azken 200 urteko nondik norakoa xehekiro aztertzeko: Heinz Klossengana batetik, Uriel Weinreich-engana bestetik eta, Pragako eskolaren oihartzunaz jabetzeko, Garvin-engana azkenik. Egia da azalpen xehetuago baterako Bjorn H. Jernudd-en, Einar Haugen-en eta beste hainbaten ekarpenak ere oso argigarriak genituzkeela, baina goiko hiru horietara mugatuko gara oraingo honetan. Eta, horietatik ere, lehenengoa hartuko dugu ardatz.

IV.1.1. Hizkuntzen corpus-plangintza, Pragako Eskolaren arabera.

Joan den mendearen 30eko hamarkadan (1932, 1938 besteak beste) azalpen argiak, zehatzak eta Mitxelenaren Arantzazuko txostenera ere oihartzun ozena zabaldua dutenak, eman zituen Pragako Eskola Linguistikoak hizkuntz eredu batuen, hizkuntza estandarren gainean. Labur beharrez ari garelarik, gain-gainetik baizik ez ditugu aipatuko bere zenbait ekarpen. Xehetasun handiagorik nahi duenak jo beza bibliografia teknikora (Havránek, 1938; Prague School, 1974, jatorriz 1932; Garvin, 1973). Edota, sintesi-saioarekin aski baldin badu, txosten honen eranskin gisa eskaintzen den azalpenera. Zer dio hurbilbide horrek, funtsean, hizkuntz eredu estandarrei buruz? Honako kontuok, besteak beste:

- a) Hizkuntz eredu bateratu estandarra hiru irizpide-sortaren arabera defini daiteke: hizkuntza estandarren *ezaugarriak*, bere *funtzioak* eta eredu horrekiko *jarrerak* dira hiru irizpide-sorta horiek.
- b) *Ezaugarriak*. Hizkuntz eredu bateratuak honako ezaugarriok ditu: batetik egonkortasun malgua, *codification* egokia eta aldian aldiko *eguneratzea* egin ahal izatekoa (hots, *flexible stability*); bestetik gogoeta-lanerako gaitua, intelektualizaturik egotea alegia (hots, *intellectualization*): hiztegiz osatu-garatua (termino abstraktu eta generikoez aberastua hortaz), eta gramatikaz sistematizaturia.
- c) *Funtzioak*. Hizkuntz eredu bateratuak honako funtzio hauek ditu: batetik batasun-iturri izatea, dialekto edo hizkera-molde diferenteko hiztunei guztien lokarri izango den aldaera eskainiz; bigarrenik, erdal hizkuntzekiko bereizketa-hesi izatea; hirugarrenik, prestijio-iturri izatea; eta, laugarrenik, erreferentzi marko izatea: zuzentasun- eta egokitasun-irizpideen erreferentzi marko eta edertasun-patroi.
- d) *Jarrerak*. Jarrerei dagokienez, azkenik, *language loyalty* delakoaren bidelagun (eta agian bultzagarri) da hizkuntza batu estandarra. Ez horrena bakarrik: baita batasun-arau horren jakinaren gaineko satisfazioaren lagun ere.

Pragako eskolak esandako guztia da, egia esan, oso kontuan hartzeko. Txosten honi dagokionez azken-azken puntua interesatzen zaigu, halere, bereziki azpimarratzea. 1930 ingurutik hona corpus-plangintza eta indarberritze-saioak (eta saio horien forma zahar-klasikoena dugu, noski, *language loyalty* hori) elkarren eskutik joan izan direla.

IV.1.2. Hizkuntzen corpus-plangintza, Heinz Kloss-en arabera: larreko hizkuntza handiki-soinekoz janzteak.

Hizkuntz soziologiaren alorrari astinaldi sakona eragin zion Heinz Kloss-ek 1952an, "Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950" famatua argitara eman zuenean (48). Ekarpenean ugariko obra horrek, besteak beste, *Abstandsprache* eta *Ausbausprache* arteko bereizkuntza ezaguna finkatu zuen. Gaur egun, nazio arteko bibliografia teknikoan *Abstand language* eta *Ausbau language* dikotomiaz (49) ezagunago da bereizkuntza hori. Euskara, H. Kloss-en jatorrizko obratik bertatik hasita (Kloss, 1952:17), *Abstandsprache* multzoan sartu izan da bete-betean: *aparteko hizkuntzatzat*, berezko egituragatik inola ere alboko hizkuntza nagusi baten dialektotzat hartu ezin litekeen hizkuntza *berezitatzat*, alegia. Oso hizkuntza gutxi dago Europan, txikiak ezezik handiak ere kontuan hartuta, morfosintaxiaz eta jatorrizko hitz-altzorraren aldetik hain bete-betean *Abstandsprache* multzoan (50) sar daitekeenik. Apartekotasun hori ez da, jakina, katalanaren edo gailegoaren egoera; ez eta, urrunxeago joanez, frasieraren edo feroeraren kasua ere. Azken lau hizkuntza txiki horiek beren burua garatu eta, orientazio jakinaz, nork bere *Big Brother* nagusiaren altzotik ihes egin beharra daukate, hizkuntza beregain gisa bizirik aterako badira: horregatik deitzen zaie *Ausbausprache* edo *Ausbau language*, katalanaren edo frasieraren antzeko hizkuntzei. Horiek ez dira (gehienetan behintzat) barne-egituraren aldetik beren *Big Brother* horietatik zeharo bereziak (ikus besterik ez dago: gailegoa hizkuntza dela esaten dugu, baina andaluzia dialektoa). Etxeko, lagunarteko eta herriko mintzajardun arrunteko hizkera izatetik kultur hizkuntza (51) izatera (forma idatzi propioaz, literatura joriaz, irakasmunduan eta gizarte-bizitzaren jardungune jaso-formaletan erabiliz) pasatzen ahalegintza dira, horretarako, *Ausbausprache* edo *Ausbau-hizkuntzak*. Labur bilduz, hona *Ausbau-hizkuntzak* zer diren: beregaintasun estrukturala (edota, gutxienez, grafikoa) eskuratzeko berariaz *elaboratu* (52) ohi diren hizkuntzak, elaborazio hori gabe nor bere *Big Brother* horren dialekto-aldaeratzat hartuak izateko arriskua dutenak.

Dirudien baino kontuzago erabili beharrekoa da, halere, *Abstand* eta *Ausbau* arteko bereizkuntza hori. Hona bi motibo, hartara bultzatu behar gintuzketenak: a) batetik, definizioa bera kontestuala dela: hizkuntza jakin bat *Ausbau*- eta *Abstand*-

hizkuntza izan liteke aldi berean, segun zer *Big Brother* kontuan hartzen den. Holandesa edo nederlandera Ausbau-hizkuntza izana da, bere historiaren une jakinean, alemanaren (zehazkiago, *Hochdeutscharen*) aurrez aurre. Frantsesaren aurrez aurre Abstand-hizkuntza izana da ordea, eta halaxe da orain ere, funtsean; b) bestetik, hizkuntzen arteko distantzia estrukturalak ez dira beti zuri eta beltz arteko bi punta-muturretan sailkatzen errazak. Hizkuntza askoren zenbait alorretan, hiztegiaren bereziki, hizkuntza batetik besterako distantzia desberdinak errazago adierazten dira continuum baten harian. Euskarak, adibidez, bere hitz-altxorren zati ohargarriak (H. Schuchardt-en garaitik hasita, eta Mitxelenaren gehigarritzko lanketaz, aski ondo zehazturik dauden zatiak, hain zuzen) albo-hizkuntza (53), nagusietatik jasoak ditu: latinetik lehenik, erromantzeetatik gero eta frantses-espainoletatik berrikitanago. Gertaera horretaz jabeturik, Abstand-hizkuntza paradigmatikoa izanik ere Ausbau- edo bereizkuntza-lan handia egin izan da euskararen hiztegiaren, Larramendiren garaitik hasi eta honainokoa (54).

Bereizkuntza hori gorabehera, Heinz Klosssek garbi azaldua digu corpus-plangintzaren muina hizkuntz eredu batuak, *standard* direlakoak, sortzeko lanek osatu dutela azken 200 urteotan. Eredu horien sortze-lanak eta, batez ere, eguneroko lanketak (*cultivation* delakoak): *Die Entstehung und Entwicklung neuer Kultursprachen*. Bere azter-eremua hizkuntza (partez edo osoz) germanikoetara mugaturik, 1800etik 1950era bitartean hainbat kultur hizkuntza nola sortu eta garatu izan den azaldu zigun H. Klosssek, maisutasun handiz. Hizkuntza (eta, honenbestez, hiztun-elkarte bakoitzaren) egoera aski berezia izan ohi denez, bistan da batentzat balio duenak besterentzat ez duela, ezinbestean, berdin balio. Hori hala izanik ere, badira Kloss-en formulazioan aski jeneralizagarriak iruditzen zaizkidan elementuak, euskararen kasurako ere indar beteko balioa dutenak. Horietariko bi aipatuko ditugu hemen, labur beharrez:

- a) *Zweckprosa* delakoaren garrantzia.

Prosa utilitaria, xede jakin eta arrunteko prosa (ez literatura eta ez linguistika) sartzen du berak hor, lehenik eta behin. Prosa-modu hori funtsezkoa da, Klossen ustez, jende xehearen hizkera arrunt izandakoa *kultur hizkuntza* bihurtu eta, horren bidez, gizarte-bizitzan ordura arte ez bezalako balio-indarra eskuratzeko. Funtsezkoa, batez ere, idatzizko jardunean sarbide eskasa (kasik eliz kontuetara mugatua) izan duten hizkera-moldeei, *Mundart* edo *Umgangssprache* direlakoei, nor bere ingurune *Big Brotheren Hochsprachetik* aldentuz bere kultur bidez berezia sortzeko: bere *soziologische Verselbständigung*, bere *Ausbau zur Kultursprache* errazteko. Ordura arte baserriarren eta arrantzaleen, artzainen eta eskulangile arrunen eguneroko aho-hizkera, lekuan lekuko dialekto eta azpi-aldaeretan banaturik egon izan dena eta idatzizko jardunean oso sarbide mugatua izan duena, nola bihurtzen da *Kultursprache*, kultur hizkuntza? H. Klossen ustean, honako sei pauso hauek eginez:

1. Idatzizko jardunean gero eta maizago erabiliz, gero eta erabilera-esparru (*Anwendungsgebiet*) gehiagotan hizkuntza horretaz baliatuz.
2. Hitzez ere gero eta jardungune gehiagotan erabiliz (jendaurreko azalpenetan, sermoi-lanean, hitzaldietan),
3. Irratian eta telebistan sarbidea eskainiz eta, hedabide horien laguntzaz, hizkuntzari berari zabalkundea emanez,
4. Ortografia bateratuz,
5. Idatzizko hizkuntza (gerora, agian, ahozkoa ere bai) bateratuz (gramatika aldetik, hiztegi aldetik)
6. Hizkuntz eredu bateratu berri hori berariaz zainduz: lanketaz (cf. *elaboration, cultivation*).

Sei pauso horietatik lehenengoari ematen dio Klosssek (1952: 25), nolanahi ere, lehentasuna. Idatzizko erabilera ugaritzea, bai erabiltzaileen aldetik eta bai erabilera-esparruenetik, iruditzen zaio berari garrantzitsuena. Idatzizko jardunean gero eta maizago erabiltzea, ohiko jardunguneak galdu gabe erabilera-esparru berriak irabaziz: hori da bere ustez etxeko hizkuntzatik kultur hizkuntzara daraman Ausbau-lanketaren pauso nagusia. Nola egiten da hori, ordea? Zertan eta nola ugaritu, nola zabaldu liteke lehen pausoaren idatzizko erabilera hori? Zer azpipauso eman litezke lehen pauso horretan, ordura arte hizkuntza larreako izandako hori *aundiki-soiñekoz* jantzita hizkuntza "noranahikoa, jakite-egoek jasoa, azal oriztaren pean muin betirakoa" duen kultur hizkuntza bihurtzeko? Honako bost (sei?) maila edo azpipauso bereizten ditu, horretarako, Heinz Klosssek (1952: 26-7):

- 1.0 Pauso aurrekoa: ahoz aho, belaunez belauri izan diren herri-kantak eta haur-kantak idatziz jartzea. Orobat atsotitzak edo erretratuak (cf. Urkixoren paremiologia), han-hemengo esaldi solteak (behinolako isil-ezkontzetako tratu-hitzak, adibidez) eta abar. Azkueren bilketa-lan zabala, bai hiztegiaren, bai kantutegiaren eta bai, batez ere, *Euskalerraren Yakintzan* jasoa, pauso-aurre honetan sartzen da bete-betean.
- 1.1 Lehen maila: ziri- zein irri-bertsuak idatziz ematea. (cf. euskal bertsogintzaren idatzizko zabalkundea, behinolako Makatzagaren eta gainerakoen bidez. Hots, hain axaletik eta hain ahul aztertua daukagun bertso-paperekin zabalkunde-sarea). Atseginezko antzezlanak (cf. zezenlasterrak,...) eta ipuinak idaztea. Elkarriketak idatziz (eleberriz) eman eta irriti bidez zabaltzea.
- 1.2 Bigarren maila: arnas beteko antzerkigintza (55) eta osabetezko prosa-idatzkuntza (guri dagokigunez ikus., batez ere, 1900 ingurutik honako eleberrigintza). Bertso bidezko kontak (cf. Hiribarrenen 1853ko *Eskaldunak*). Epos-lanak sortzea
- 1.3 Hirugarren maila: hitz lauuko xede-idatzkera (hots, bere *Zweckprosa*) sortu eta erabiltzea. Klossen beraren hitzetan esanik, *Ausbau des Zweckschrifttums*: herri-jakintzaren alorreko ikasliburuak eta artikulak (ikerketatxoak barne); herri-jakintzazko aldizkariak. Eskutitzetan hizkuntza hori luze-zabal erabiltzen hastea. Hizkuntza horren gramatikak eta hiztegiak prestatzea. Herri-giroko irriti-emankizunak (cf. "Basarri"ren behinolako *Nere bordatxotik* famatua)
- 1.4 Laugarren maila: jakintza-alor guztietarako (ez, soil-soilik, euskal gaietarako) i(r)a kasliburuak sortu eta erabiltzea. Herri-jakintzaren alorreko ikerlan sendoak (hizkuntzalaritzaz, historiaren,...) hizkuntza horretan prestatu eta zabaltzea.

Goi-mailako aldizkarigintza, asmoz eta egitez. Garrantzizko irrat-emankizunak (berri-albistegiak?; mahai-inguruko hizketaldi jasoak?)

- 1.5 Bosgarren maila: edozein jakintza-gairi dagozkion ikerketak jatorriz hizkuntza horretan egin, idatzi (ez, beraz, itzuli) eta zabaltzea. Administrazio-alor desberdinetan (udalerritik hasi eta goren mailako (bereziki estatu mailako) herri-aginteetarako erabiltzea, idatzizko zereginetan. Ekonomi alorrean idatz-hizkuntza hori erabiltzea. Egunkariak hizkuntza horretan argitaratzea osorik (eta zabalkunde ohikoa eskuratzea).

Badaki Klosssek, eta halaxe aitortzen ere du, mailaz mailako gorabide hori ez dela, beti eta nonahi, justu-justu horrelakoxea. Menderik mende beren hizkuntza propioan idatzizko sarbiderik izan ez duten hiztun-herrien kasuan, adibidez, Klosssek zera dio: herri-kantuak eta atseginezko bertsoak baino lehenago etor daitezkeela horietan. Bibliaren itzulpena, dotrina eta arima sendotzeko liburuak. Eta arrazoi du noski (56). Kontua, guztiarekin ere, besterik da ordea. Osabetezko kultur hizkuntza eratu nahi duen hiztun-elkarteak bost maila horiek (ez hasierako bat edo bi bakarrik) osatu, landu eta garatu behar dituela. Txirritaren bertso-paperak argitaratu eta igande-eguatean (mezetako irteeran) herriko plazan salgai jartzearekin badakigu ondo asko euskara ez zela, hori eta horrenbestez, kultur hizkuntza bihurtu. Hori baino erabilera-esparru gehiagotara (jasoagoetara ere bai) zabaldu beharra dago herri-hizkera xumea, itxurazko kultur hizkuntza bihurtuko bada. Erabilera-esparruen zenbatekoa, zer-nolakoa eta idatzizko erabil-maiztasuna diferenteak izan ohi dira, gorago ikusi dugunez, hizkuntza garatuetan ere. Kultur hizkuntzen artean ere aldeak izaten dira hortaz (hala izan dira lehen, eta gero ere hala izango direla esan liteke), kasuan kasuko hiztun-elkarteak (*Sprachgemeinschaft* edo *language community* delakoak) hizkuntza hori zein erabilera-esparrutan eta zer neurritan erabiltzen duen arabera.

Garrantzi berekoak al dira bost pauso-maila horiek, larreko aho-hizkuntza hori noranahiko hizkuntza idatzi-literario bihurtzeko? Inola ere ez, Klossen ustez. Jauzi nagusia, bere ustez, hirugarren mailara iristean gertatzen da (57). Hor dago gakoa, larre-hizkuntzatik kale-hizkuntzarako atea zabaltzen duena. Hitz lauuko xede-idazkerak, *Zweckprosa*k alegia, ezartzen du batetik besterako langa nagusia. Kultur hizkuntza izatera iristeko xede-prosa hori da beharrezkoa eta ez, askotan besterik uste izan badugu ere, olermenezko epopeia.

- b) *Epopeia handiaren eragin-muga.*

Epopeia handia ez da hain lagungarri sendoa, kultur hizkuntza sortu edo indartzeko. Horixe da H. Klossen beste argudio zorrotza, ahuldutako hiztun-herri askotako ikuspegi tradizionala (Herder-ek abiatutik XIX. mendetik hona, ez aurretik, tradizionala) auziperatzen duena. Askotan pentsatu izan da (hala dio Klosssek, arrazoi osoz) hiztun-herri bakoitzak bere epopeia sortu behar duela, finlandiarrek *Kalevala* bezala, eta idatzizko epos-poema horrek goratuko duela larre-hizkuntza apala kultur hizkuntzaren *statusera*. Hori, eta gehiago ere bai: etxeko eta lagunarteko herri-hizkera arrunta kultur hizkuntza bihurtuz, ahuldutako hizkuntza bere osasun onera ekartzen lagundu litekeela uste izan dugu maiz asko. Euskaldunontzat oso ezagunak dira kontuok (58). Dударик lukeenak irakur beza, nolanahi ere, Mokoroa "Ibar"-en 1936ko *Genio y Lengua*, edota, labur beharrez ari bada, Antonio M. Labaienek Orixeren *Euskaldunak* poema-laburpenari 1950ean egindako hitzaurrea. Orixeren sarrera bera, poemaren atarikoan, *language loyalty*zko (eta, honenbestez, hizkuntzari bizirik eustearen aldeko) oihu ozena da noski: *geroak esan beza "erri bat izan zan", edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan*.

Klosssek ezetz esaten digu. Finlandiako Lonnrot-en *Kalevala* hor dagoela noski, eta Okzitaniako Mistralen *Mireio* ere oso kontuan hartzekoa dela. Baina ez direla edertasun-sormenezko idazlan, olerki eta poema horiek izaten, bereziki, larreko hizkuntza apal izandakoa bere "goren gradura" eramaten dutenak, xede-prosazko lanak baizik: "Aus unserer Stufenfolge erhellt, daß für den soziologischen Rang einer Sprache die Dichtung weniger wichtig ist als das Zweckschrifttum (oder Sachschrifttum), d.h. als die nicht-dichterische Prosa". Eta aurreraxeago: "die Katalanen haben keinen Mistral hervorgebracht, aber ihre Sprache hat sich im Zweckschrifttum ungleich mehr wieder zur Schriftsprache des Volkes geworden".

Garrantzizkoa dugu puntu hau euskaldunok, ohituegiak baikaude euskararen kontuak bi motibo hauengatik bide onetik doazela esaten: a) gero eta haur eta gazte gehiagori irakasten zaiola partez edo osoz euskaraz; b) gero eta literatur lan sendagoak sortzen eta zabaltzen direla euskaraz. Ez gatoz, jakina, bi motibo horien balio-indarra gutxiestera. Bai, ordea, *Kalevala*, *Mireio* eta *Euskaldunak* moduko lanen gizarte-eragina bere neurrian baloratu behar dela gogoraraztera. Sabino Aranak 1901ean (Hendaiaiko Ortografi Biltzarrean) esandakoak bete-betean ezkontzen dira, puntu horri dagokionean, H. Klosssek handik berrogeita hamaika urtera ateratako ondorioekin. Olerki eta idazlan goi-mailakoen indarberritze-indarra, hizkuntz soziologiaren ikuspegitik begiratuta, oso bestelakoa da literatur alorreko espezialisten (eta are, maiz aski, ahuldutako hizkuntzen defendatzaile sutsuenen) irizpen baikorregiekin konparatuta. Euskara ez du goren mailako literatur lan batek salbatuko: lagundu egin dezake, jakina, halako neurri batean. Hizkuntzaren hil-ala-biziko apustua ez da ordea herri-poema handiaren plazan jokatzeko. Garbi azaldua digu Klosssek zergatik.

Ondotxo argitasun gehiago ere atera daiteke noski H. Klossen azalpenetatik, *corpus*-plangintza osoaz denaz bezainbatean. Aski dugu ordea, begiz joa dugun helbururako, honaino esandakoarekin. Ondorio argia atera dezakegu, izan ere, azalpen horietatik: hizkuntza landu eta jasotzea, etxeko eta lagunarteko hizkera-moldea kultur hizkuntza bihurtzea loturik dagoela, bere ikuspegiaren, hizkuntza horren (eta, beraz, hizkuntza horretaz baliatzen den hiztun-elkartearen) osasunarekin. Larre-hizkera xumea kultur hizkuntza bihurtzeak, kausaltasun erabatekorik ezartzen ez badu ere H. Klosssek, mesede egiten dio nonbait hizkuntzari: indarberritu egiten edo du (59).

IV.1.3. Corpus-plangintzaren zergatikoak eta zertarakoak, Uriel Weinreichen arabera.

Heinz Kloss bere liburua argitara eman eta handik urtebete justura, 1953an alegia, soziolinguistikaren hurbilbide linguistikoan erabat funtsezkoa gertatu den lana paratu zuen Uriel Weinreich, Suitzako hizkuntza erretoromantxeak bertako alemanaren eraginez ageri zituen bestelakotze- eta ezabatze-seinaleak berekasa (60), kontzeptualizatzen saiatuz. Bere lanak "Languages in Contact" zuen izena, eta hizkuntzen interferentzia izan zuen aztergai nagusi. Hizkuntza handiaren ezaugarri fonetikoek, gramatikalek eta lexikalek hizkuntza ahularenetan nola inpakatzeko edo erasaten duten, eta zer-nolako

interferentziak sortzen dituzten, aztertu zuen berak, geroztik beste inork gutxi gaintitu izan duen maisutasunez. Alde honetatik, ahuldutako hizkuntza nola indarberritu daitekeen ordez justu kontrakoa aztertu zuen berak: ahulduaren ahulduaz, hizkuntza txikia barrutik ere nola desitxuratzeko, desegiten den.

Justu kontrako fenomeno (interferentziak eta hartara daramaten mekanismo intralinguistiko, psikologiko eta soziokulturalak) aztertzerakoan, ordea, paradigma eta ikuspegi ernagarriak landu zituen Weinreichek "gaixotasunari nola buelta eman" dakiokkeen (edota, gutxienez, hartan nola saiatu litekeen) ententitzeko. Oker egongo naiz agian, baina hizkuntz soziologiaren 1960tik honako hainbat kontzeptu berak sortuak edota, lehendikakoak zirenean ere, berak eguneratu, terminologia berriaz estali eta kontzeptu-marko zabalagoan integratuak ditugu. Futsezko bospasei puntu baizik ez aipatzearren, esan dezagun elkarren eskutik eta egitura bakarrean txertaturik berak plazaratuak ditugula Bloomfieldekin (1933) lehenengoz izendatutako *language shift* (mintzaldatzea edo hizkuntz ordezkapena), *dominance configuration* (nagusitasun-moldaera), *speech situation* eta harekin uztarturiko (*code*) *switching*, luze-zabaleko elebitasunean eragiten duen mekanismo soziokulturalen garrantzia, *language loyalty* edo hizkuntza bizirik (eta ahal delarik erdal eragin nabarmenetatik garbi) gorde nahi izatea eta, azkenik, ikerlerro osoaren iturburu gertatu den *hizkuntz ukipena* eta horren ondorio den *interferentzia* (*language contact*, *interference*). Lekuz estu samar gabiltzanez, eta corpus-plangintzaren ikuspegi nagusira mugatuz, hona zer ondorio atera daitezkeen U. Weinreichen formulazio osotik: hizkuntzaren corpus-plangintza, hizkuntz eredu batua sortu eta, eskola lagun, hiztun-elkartean zabaltzea bereziki, hizkuntzen indargarri dela berez. Espresuki eta enfasi argiaz esana du hori Weinreich, Klossen lanean ulertzerako ematen zena berean argi eta garbi zehaztuz. Hizkuntz eredu bateratuak, eskola bidez hedatu ohi den *standardized language* delakoak, "conservatory effect" sortzen duela dio Weinreich (1953:88). Segizio luzea izan du Weinreich (Mitxelenaren txostena ere bide beretik joana dela azaldu dugu gorago). Charles Fergusonek ere, beste era batera esanik, hizkuntza estandarizatzea hizkuntza hori indartzeko (bere hitzetan, konkretuki, hizkuntza horren *spread* edo hedapena eragiteko) osagai dela argudiatu izan du: "It seems clear () that standardization must be a type of language spread" (Ferguson, 1968: 119). Georg Kremnitz aleman-austriarra izan da halere, dakigularik, *corpus-plangintza* hizkuntz normalkuntzari mesede egiten diola (hala egin diezaiokeela, behintzat) argienik aldarrikatu duena: "Andererseits entwickelt sich ein dynamisches und dialektisches Verhältnis zwischen Normativierung und Normalisierung: ein höherer Grad der in einer Gesellschaft verbreiteten Normativierung erhöht das Prestige und eröffnet somit den Weg zu weiteren Verwendungsebenen, mit anderen Worten: zu einem höheren Grad der Normalisierung". (Kremnitz 1990:79). Hizkuntz eredu bateratua izateak (gurean, euskararen batasunak) prestijioa ematen diola hizkuntzari eta, horren bidetik, indarberritu egiten dela berau. Pragako Eskolaren itzala nabarmen ageri da hor, alde edo molde.

Egia da, ordea, Weinreichen garaitik beretik asko matizatu izan dela idazteredu bateratuaren lagungarritza eragina, hizkuntza ahulari bizirik eusteko edo berori indarberritzeko. Weinreichen 1953ko esaldiak besterik ere bai baitio: "(the) conservatory effect which standardized uniformity and a variety of functions produces". (Weinreich, 1953: 88). Letra-etxate hori gurea da noski, eta bistan dago zergatik egin den: hizkuntzarengan *conservatory effect* sortzen duten faktore bi aipatzen baititu, ez bat, eta testuinguru horretatik ezin baita jakin hain iturri diferenteko urak nola nahasten dituen. Gauza bat dago argi, nolanahi ere, azken aldiotako idazlanetan: Heinz Klossen lotura-molde inplizitu baina kasik mekaniko haiek galdutako joan direla denboraren harian. Gaur egun inor gutxi ausartzen da, ahoa betean, corpus-plangintza (batez ere hizkuntza estandarria finkatzeak) hori eta horrenbestez hizkuntza hori (ahuldutako hizkuntza denean) indarberritu egiten duela esatera. Eta zenbaitek, joan den mendearren lehen erdiko tradizio sozioedukatibo alemanarekin enpalmatuz, aski erreparatu sakonak jartzen dizkio ikuspegi kausal horri. Fishman izan da, honetan ere, bide-urratzaile nagusia. Beste hainbat, Cooper (1989:184) tarteko delarik, Fishmanen ikuspegi integratzaileago eta *first things first* filosofiatik hurbilago dagoen horretara ari dira biltzen.

Eta ez da harritzeko. Gatozen, izan ere, adibide konkretuetara. Idazteredu standard, bateratu kontsolidatua duten hizkuntzetan ere pertsona gehienok, eguneroko mintzajardun arruntan, lekuan lekuko hizkera-moldeaz egin ohi dugu sarri: hala egiten dio amak haurrari, hala egiten dute maitaleek elkarrekin daudenean, edota elkarren ezagunak diren pertsona bik kale-izkinan, tabernako sarreran, okindegian edo Txindokira bidean topo egiten dutenean. Era informalean hitz egin ohi da halakoetan: lekuan lekuko hizkera-moldeaz, hortaz, nahiz eta gutako hainbaten joera (eskolaketaz, lanbidez edo pentsaeraz) lekuko hizkera hori zertxobait jaso, osatu eta aberaste aldekoa izan. Jende gutxi bilatuko duzu Azpeitian, bere eguneroko solas eta hitzaspertuetan, bertako seme kuttun den Patxi Altunaren moduan hitz egingo dizunik. Batzuek, gehienek, nahita ere ezin izango luketelako; besteek, berriz, gutxi-asko ahal izanik ere nahi ez dutelako: bestelako inplikazioak eta konnotazioak bilatzen dizkiote herrian herriko moduan hitz egiteari (egunerokotasun arrunta, hitzetik hortzerako espontaneidade freskoa, bihotz-berotasuna), eta ez daude mintzajardunaren osoa eta zehatza, jatorra eta aberatsa alferrik galtzen uzteko prest. Bertako eran hitz eginez, eta aparteko ezer erantsi gabe, "ni ere hemengo nauk, txikito!" esaten diote elkarri, *bertako* izate horrek berekin dituen maitasunaz eta ohoreaz ondo asko jabeturik. Bertako hizkera-molde hutsarekin aski ez duela badaki jendeak: bere eguneroko mintzajardunaren zati on bat (informalena, idatzitik urrunduena, barrenkoi-intimoena) hizkera-molde horretaz bideratzen du ordea, eta ez dago aldatzeko asmotan. Euskalkiak bere lekua du euskaldun alfabetatuen artean (zer esanik ez alfabetatu gabeko edo sasi-alfabetatuen artean) eta hizkuntza indarberritu nahi duenak oso kontuan izan behar du hori. Ezin liteke euskara batuaren *berezko abantaila*z gehiegi liluratu: ez, behintzat, lehendik aski ahulduta dagoen hizkuntzaren baitan destrozo handiagorik eragin nahi ez badu. Goizetik arratsera, etxe eta kale, lantegi eta lagunarte bere hizkera-molde horretaz diharduen herritar xeheari hori baino mila aldiz atentzio handiagoa zor zaio. Corpus-plangintza, gorago adierazi dugunez, idatzizko jardunean zentratzen da nagusiki. Hizkuntzak, hizkuntza biziak (ez latina bezalakoak) ahozko fenomeno dira, ordea, eguneroko jardunbidearen hiru laurdenetan. Are gehiago jende xehearen bizimolde informal espontaneoan.

Eskola-munduan ere badu irizpide zabal-osatzaile horrek ondorio zuzena. Etxetik euskaldun diren haurrei eta gaztetxoei probetxu bete egingo badie, bertako hizkera-molde hori oso kontuan hartzen saiatu behar du eskolak. Fishmanen hitzetan esateko, "teachers must always be situationally acceptive of dialect speech in the elementary classroom [] and they must cultivate dialect acceptance among their pupils []. This same kind of tolerance towards spoken dialects must also be cultivated among adults. The standard comes not to displace or replace the dialects, but to complement them in functions which they do not generally discharge and, therefore, in functions that do not compete with their own" (Fishman, 1991:344). Kontura gaitzen, nolanahi ere, ikuspegi honek ez garamatzala Klossen eta Weinreichen punta-mutur batetik bestera. Honek ez gaituela euskara batua baliogabetu eta euskalkien altxor izkutuen miresle itsu izatera eramanez behar. Bientzako leku dago; eta gehiago egongo da, euskara indarberritzen bada: hori da guztia. Berriz Fishmanengana (1991:345) itzuliz "It is far better for RLS-efforts if a single written standard exists[], because weakened languages are generally not able to afford the multiplicity of standards that marks robust English and a few other major languages the world over (many of which are polycentric)". Garbi dago, hortaz, Arantzazuko biltzarraz geroztik egin den bateratze-lanaz ez daukala, ikuspegi horrek,

printzipiozko erreparorik: ez handi eta ez txiki. Dударik lukeenak, esate baterako, irakur beza azken pasarte hau: "without a consensually recognized and unifying standard, RLS (gure HINBE) will necessarily be handicapped with regard to its appeal to those whose life-style is modern/urban, a life-style in which written, formal and extra-local communication are all crucial aspects of the total repertoire. In modern times, [] RLS-efforts themselves will almost certainly be handicapped[] without a standard" (Fishman, 1991:349).

Beharrezkoa dela, baietz, corpus-plangintza. Eman diren pausoak mesederako izan direla oro har. Hizkuntza bera indarberritu egin dezakeela horrek, halako neurri batean. Horrek ez gaituela ordea itsutu behar: euskalkiak eta lekuan lekuko hizkera-moldeak ere hor egongo direla, euskara bizirik ateratzen badugu: bakoitzari bere lekua bilatzen eta aitortzen ikasi behar dugula, euskaldunon errepertorio berbal edo aldaera-sorta osoan. Hori guztia horrela izanik ere garbi izan behar dugula, dena den, corpus-plangintzak ez duela euskara bere hutsez eta bere baitarik sendatu eta indarberrituko. Ongi administratzen badugu lagungarri egokia izan litekeela corpus-plangintza: lanaren enborra status-plangintzan dagoela ordea, status-plangintzak bere baitan har ditzakeen formulazio desberdinetan (horietariko hiru ikusiko dira ondoren).

IV. 2. Acquisition planning: galbidean doan hizkuntza jendeari erakustea

"Euskaraz hitz egingo badugu, norekin egina behar dugu. Aldameneko bizilagunak eta lantegiko kideak, aste-bukaerako lagun-taldeko erdiek eta auzoko hiru laurdenek euskaraz ez badakite, erakutsi egin beharko zaie. Beraiei edo, gutxienez, beren seme-alabei. Batzuei ezin bada besteei, baina erakutsi: bestela jai dugu". Ikuspegi edo sentiera-molde horrek, hitz horiekin edo bestelakoekin esanik, hedadura handia hartua du gure artean, azken hogeita hamabost urtean. Bai euskaltzaleen artean eta bai esfera instituzionalean. Gure arteko erdaldunak (berr)euskaldundu beharra, belaunaldi oso baten *Leitmotiv* izatera iritsia dugu. Ez hori bakarrik, halere. Xede-helburu zabalagoan txertaturik etorri izan da, funtsean, berreuskalduntze-asmo hori: euskaldunak bere hizkuntza ahul-baztertuaren erabiltzaile sendoagoak bihurtzearen aldeko formulazioan, hain zuzen. Egunen batean, kontu horien azterketa pausatutik egitea erabakitzen bada, Rikardo Arregiren hainbat idatzi aintzakotzat hartu beharko da: hizkuntzen eta hiztun-elkarteen enfoke soziologikoarentzat aski ernagarriak diren, eta gure esfera akademiko-unibertsitarioak ia erabat bazterturik dauzkan, idatzi haietara. Euskaldunok Arregiren garaitik aurrera eraman dugun alfabetatze- eta euskalduntze- edo berreuskalduntze-lana, izan ere, berria da alde askotatik. Nekez bilatuko duzu Katalunian, Galizian, Galesen eta are Quebecen hemengo HABEren parekorik. Are nekezago, oker ez banago, erakunde horren alorreko euskaltegi-sare zabal, hurbil, gero eta dibertsifikatuagorik. Nekez bilatuko duzu beste hiztun-herri horietan, orobat, Maizpide edo Aurten Bai moduko barnetegi profesionalizaturik: Israelgo Ulpanetara jo beharko zenuke noski, eta ez kasualitatez, halakorik atzerrian bilatu nahi izatekotan. Eta nekez bilatuko duzu inguruko hiztun-herri txiki-ahuletan, azkenik, hain perspektiba soziokultural zabalean txertaturiko alfabetatze-saiorik. *Unifying, state-building* eta are LWC (gogoratu: *Language of Wider Communication*) hizkuntza osasuntsua duten hiztun-herriek izan ohi dituzte eskueran (aspaldidanik batzuek: Goethe Institut; berrikitanago besteek: Instituto Cervantes), beren hizkuntza horiek L2 gisa irakasteari dagokionez, era horretako euskaltegi-barnetegiak. Aski helburu eta baliabide-oinarri diferenteeekin halere. Erakunde horien xedea ez da izaten, beharrik ere ez baitute, helburu eta langai duten bere *state-building* hizkuntza indarberritzea. Eguneroko gizarte-bizitzan arras indartsuak dira berez ingelesa, frantsesa, espainola eta alemana. *Language spread* ikuspegitik bideratzen dira erakunde horien saioak, ez *revitalization* otxanaren bidetik. Horrek berak zerbait adierazten digu.

Gatozen, ordea, gurera: helduen alfabetatze-saioak eta euskalduntze-berreuskalduntze osoak aurreko mendearen hirurogeiko hamarkadan dituela bere erroak esana dugu. Bere sorburuan hizkuntz soziologiaren perspektiba argi, zorrotz eta luzera begirakoa izan zuela: hori ere aipatua dugu. Hel diezaigun azken puntu horri, uste baino zuzenago eramango gaitu-eta mundu zabaleko indarberritze-saioen muinera. Rikardo Arregik bere idatzietan labur baina zorrotz azaltzen zuena (61), lehenik eta behin, Euskal herrian (batez ere Bizkai-Gipuzkoetan) azken hiru belaunaldietan gertatzen ari zen luze-zabaleko mintzaldatzea (hizkuntz ordezkapena) dugu: erdaraz *desplazamiento lingüístico*, *substitución lingüística*, *Sprachverschiebung*, *Transfert de langue* edo *language shift* esan ohi zaion gertaera zabal hori alegia. Funtsezko elementua da kontsiderazio hori, txosten honen aurreko paradigmatik (hots, IV. 1. puntutik) zerk aldentzen gaituen entenditu ahal izateko. Mintzaldatze horren oinarrian egon ohi diren eten-urratze edo dislokazio fisiko, demografiko, sozial eta kulturalen (Fishman, 1991: 57-65) azalpenetik, sarri asko "a slow and cumulative process" osatzen duen *language shift* horren deskribapenetik alegia, abiatu izan da paradigma berri hori. Deskribapen horren gordinak hartaturik, eta aspalditxodanik etxekotua dugun "ia gureak egin du" perspektibari eutsiz, herrigintzaren ibilaldi berri honetan euskaldunak alfabetatu eta gure arteko erdaldunak (berr)euskaldundu beharra dagoela, euskara biziko bada, aldarrikatzen du formulazio horrek. Esan ere egin dugu, dagoeneko, ikusmolde hori hainbat aldetatik berria dela (hala izan zela orain dela 30-40 urte, sortu zenean alegia). Euskalgintzaren aurreko planteamendu gehienetan alferrik bilatuko duzu euskaldun helduak euskaltegi edo eskola bidez alfabetatzeko formulazio zabalik: are gutxiago erdaldunak (heldu eta ume) (berr)euskalduntzeko programa, ekintza-bide eta emaitza-ekarpen zabalik. Gizartearen ikusmolde estatikoagoetan txertatzen ere zirenez, eskola bidezko indarberritze-saio zaharrek etxetik euskaldun ziren neska-mutiletara mugatzen zuten, nagusiki, beren egitasmoa (62). Europako paradigma sozioedukatibo elebidun nagusiak ere, Luxemburgoko Konferentzia Internazionaletik hasi eta UNESCOren 1953ko Adierazpen famatura bitartekoan, hartara bultzatzen zuen noski: umeen ama-hizkuntza izan zen 1960 ingurura arte, kosta ahala kosta, babestu eta sendotu beharrezkoa.

Hori guztia dela medio aldaketa sakonak ekarriak ditu, gure artera, labur beharrez *Arregiren indarberritze-eredua* deituko dudana horrek. Eredu-modu horrek, esan bezala, baieztapen hauek ditu abiaburu:

- a) luze-zabaleko mintzaldatzea da, funtsean, euskararen eta bere etnokultura asoziatuaren galbidea seinaltzen, iragartzen eta eragiten duena.
- b) mintzaldatze horri frenoa jarri behar zaio eta, ahal den heinean, buelta eman ere bai (cf. *Reversing language shift*).
- c) horretarako jantzi, osatu eta gaitu behar duguna ez da lehenik eta behin hizkuntza, hiztuna baiziki.

Horra hor enfoke-aldaketa garbia, "hizkuntza garai berrietara egokitu" beharraz diharduen *corpus-plangintza*ko planteamendu linguozentrikotik argi bereizten dena. Euskaldun osatuagoa, bere hizkuntza horrekin gizarte-esparru gehienetako kontuak

tratatzeko, argitzea eta garbitzea jakin duen euskaldun konpetentea du, batetik, Rikardo Arregiren indarberritze-eredu horrek gogoan. Eta horretarako, jakina, etxetik euskaldun diren umeei euskaraz irakurtzen eta idazten erakustea ez da aski: beren kultura eskolarra ere (nagusiki behintzat) euskaraz jaso dezaten komeni da. Baina umeei bakarrik jai dugu: helduak ere, heldu euskaldunak, hizkuntza aldetik osatu eta sendotu beharra daude. Hortxe dago, dudarik gabe, gure arteko helduen alfabetatze-saio gehienak iturburu ideologikoa. Hor ere ez da bukatzen, ordea, indarberritze-eredu honen ekimen-alorra. *Language shift* edo mintzaldatze-prozedura hain aurrera joanik dagoela ikusirik, euskaldunak alfabetatzeaz gainera bertako erdalun-jendeari ere (berr)euskaldundu beharra dagoela adierazten du ozenki. "Euskaldunok euskaldunok euskaraz jardun ahal izateko lekuri eta okasiorik gabe gelditzen ari garenez, eta gure mintzoaren itogarritzko murriztapen hori dislokazio demografikoak (urbanizazio-prozesuak berekin dakartzan harreman-sare bestelakotuak barne direla) eragiten duenez neurri ohargarrian, fronte demolinguistikoa ere aurrez aurre planteatu beharra dago bataila. Hizkuntzaren partida bi frenteean (soziokulturalen eta demografikoen) galtzen ari bagara, bietan eragin behar da oraingo gainbeherari eutsi eta hizkuntza gorabidean jarri ahal izateko. Euskaldunak alfabetatu eta egungo bizimolde moderno-urbanoaren espazio soziokulturalera edozein esparrutan euskaraz jarduteko gaitu behar ditugu hortaz, alde batetik; eta erdalunak (heldu eta ume) (berr)euskaldundu egin behar ditugu bestetik, euskaldunok Euskal herrian euskaraz bizi ahal izateko aukera osoa izan dezagun". Esaldi luze hau ez dago hitzez hitz inondik jasoa. Bistan da ordea, gure azken 30-40 urteko euskalgintzaren berri duen edonorentzat, bertako saio-ahalegin askoren barru-barruan dagoela (63).

Oker ibiliko gara, agian, punturen batean edo bestean. Funtsean ez dut uste, ordea, oker handirik dagoenik horretan: azalduabartu berri dugun planteamendu hori izan da, aurreko mendearen 60ko hamarkadatik aurrera, euskara eskolara (eta euskaltegi-barnetegietara) eramateko egin den eta egiten ari den ahalegin zabalaren oinarriko asmoa, jomuga eta argudio-bidea. Planteamendu zabal horrek gairitu egin izan du, behin baino gehiagotan, beste zenbait hiztun-herrian eraiki eta hezurramitu nahi izan den *language planning* edo *normalizació lingüística* jardura (hurrengo puntuan ikusiko dugu zergatik). *Paisos Catalans* direlakoetan edo Galizian, gorago esan denez, alferrik bilatuko duzu helduen alfabetatze eta berreuskalduntze-saiorik, zabalez eta sakonez hemen bideratu denaren parekorik. Ez eta etxetik erdalun edo erdal-erlebidun diren haurren eskola-alarreko murgiltze-biderik ere: ikasleen erdia edo gehiago dira, beste hiztun-herri horietan, etxetik bertako hizkuntzaren jabe. Hemen, aldiz, ez dira laudenera iristen. Eta beste hiru laurden pasatxo horiei, gero eta proportzio zabalagoan, erabateko edo erdizkako murgiltze-bidea eskaintzen zaie. Horrek guztiak, jakina, ondorio nabarmenak izan ditu gure artean: eskolak (eta, helduei dagokienez, euskaltegiak) gure indarberritze-saioen (eta, horrenbestez, euskalgintza osoaren) erdi-erdian kolokatu izana. Zentratutasun hori arras nabarmena da, egungo egunean ere, plano instituzionalean zein mediatikoan. Hizkuntza kontuak astintzen hasi orduko, nekez jardungo duzu ordubetik osorik eskola-kontuetara makurtu gabe: ikasleentako curriculum-kontuak direla, D eredua dela, AEK dela, testu-liburuak direla,... hauek dituzu gaur egun, gero eta neurri zabalagoan itxuraz, hizkuntz politikaren (eta are, zenbaitetan, politika osoaren) erreferente behinenak. Indarberritze-saioen, hizkuntz normalkuntzaren, hizkuntz plangintzaren atal bat izan behar lukeena ia atal bakar bihurtzen ari da, onerako eta txarrerako. Aginte-esparrutik bultzatu den langintzak berak badu, noski, zentratutasun horretan zerikusi argia: *Euskararen Berripaperak*, sortu zenetik hona, zer gai landu eta barreiatu dituen aztertzea aski litzateke, inork dudarik balu, euskarazko irakaskuntzak eta bere ingurumari osoak gure gizarte-bizitzan (bai baliabideen aldetik eta bai ideologiazko erreferentzi izakerarenetik) hartu duen (eman zaion) zentratutasun horretaz jabetzeko.

Mundu zabaleko espezialistek, bai Einar Haugenek hasierako formulazioetan (*corpus*-plangintzan zentratu samarretan) eta bai bere garatzaile nagusienetan (Hirugarren Munduko estatus nazioen beharretara aski orientatuetan) antzematen zituzten eragozpenak aintzakotzat hartuz, hirugarren termino bat sortu dute azkenik eskola bidezko indarberritze-saio horiek kalifikatzeko: *acquisition planning*. Cooper-ek lehenik (1989), eta Kaplan-Baldauf ikertzaileek ondoren (1997), berariazko lekua aitortu diote *acquisition planning* horri, H. Klossen 1969ko zatiketa dikotomiko famatuari (*corpus planning, status planning*) hirugarren atala erantsiz. Cooper-en arabera, *acquisition planning* horrek hiru helburu diferente izan ditzake:

- (a) ikasle-jendeari hizkuntza jakin bat eskuratzea, L2 edo atzerri-hizkuntza moduan. Egoera honetan leudeke, adibidez, gure artean ingelesa ikasten dutenak, zahar eta gazte. Baina baita Kaliforniako, Lovainako edo Varsoviako interesatuei, han bertan edo hemengo euskaltegiaren batean, gure hizkuntza irakastea ere.
- (b) bertan bizi den ikasle-jendeak bere aurrekoen, bere arbasoen hizkuntza galdua berreskuratzea: gure eskoletako A, B eta D ereduak ikasle erdalun gehienak (arbaso euskaldunak zuten neurrian) multzo honetan sartzekoak dira. Neska-mutilen eta helduen berreuskalduntzea, hortaz, bigarren multzo honetakoak da bete-betean.
- (c) etxetik (partez edo osoz) euskaldun diren ikasleak euskaraz eskolatzea (gehi, helduen kasuan, euskaraz alfabetatzea). Normalean *language maintenance* esan ohi zaio eskola-saio horri. Hori ere *acquisition* alorrean sartzen du ordea Cooper-ek, nekez ukatuko diogun baieztapen honen ildotik: gainbehera datozen hizkuntzen kasuan "maintenance of a language implies its acquisition by the next generation" (Cooper, 1989:XX).

Inon aurrerabide sendorik egin bada azken hogeita hamar urte inguruan, euskara indarberritzeko saioei dagokienez, *acquisition planning* horretan izan da: bertako b) eta c) multzoei, izan ere, Euskal herri osoaren historia ezagunean inoiz izan ez duten garapena eta sakonera eman zaie. Hori ez da etxe barruko kontua bakarrik, gainera: ahuldutako hiztun-herri gutxi izango dira Europa osoan, hemen egin (eta egiten ari) den saioaren parekorik ager dezakeenik: bai hedaduraz (EAE, bereziki, ikasle guztiak doaz gutxienez A eredura, eta proportzio gero eta handiagoa Dra), bai garapenaz (hasi Haur Hezkuntzatik eta, partez, unibertsitatean), bai herritarren borondatezko jardunaz (ikastolak dira, bere sorburuei dagokienez, behetik gorako euskalgintza horren eredurik argiena) eta bai bibliografia teknikoak *institutional support* deitu ohi duen aginte-babes aktiboaz: EAEren urteroko aurrekontuen azterketa, irakasle euskaldun(du)en zenbatekoa eta hezkuntza erlebidunaren aldeko legeria aski adierazgarriak genituzke, noski, alde horretatik.

Bibliografia aberatsa sortu da mundu zabalean, *acquisition planning* horren inguruan: bai pedagogiaren aldetik, bai psikolinguistikarenetik eta bai, bakanago plazaratu ohi bada ere, hizkuntz soziologiarenetik. Txosten honen ardatza hirugarren ikuspegiaren zentratua dagoenez horretara biltzen saiatuko gara ahaleginean. Bistan da, ordea, Montrealgo St. Lambert 1965ean egin zen ele biko hezkuntza-saioaz geroztik (Lambert eta Tucker, 1972) psikolinguistikak izan duen garapen sendoa, eta ekarri uste izan dituen ondorio-azalpenak, soziologiako ikuspegiarentzat ere oso kontuan hartzekoak dira. Zer esaten digute, hortaz, azken 35 urteotako formulazio teoriko horiek? Honako gauza hauek, besteak beste:

- a) Ama-hizkuntzaren printzipioa, ele biko hiztun-herri gehienek ia mende-erdi luzez hil ala biziko oinarri gisa defenditu eta ustiatu izan zutena, neurri batean alde batera utzi da egungo paradigman. Hots, Luxemburgon 1928an egindako konferentzia internazionalen goren mailan ezarritako printzipio hura (haurrak beren ama-hizkuntzan eskolatu behar zirenekoa), partez alde batera utzi da. Ez osorik, ordea: orain ere ahuldutako hiztun-elkarteetako haurrak beren ama-hizkuntzan eskolatzeari hobesten eta babesten da. Ahuldutako hizkuntza indarberritu ahal izateko behar-beharrezkotzat jotzen da, alegia, etxetik hizkuntza ahula dakiten ikasleei hizkuntza horretan irakastea: *maintenance bilingual education* esan ohi zaio horri. Hiztun-elkarte gaileneko neska-mutilekin, aldiz, ama-hizkuntza alde batera utz daitekeela argudiatzen da. Hor dago iraultza, hor dago paradigma berria: Kanadako *immersion programmes*, Estatu Batuetako *dual language programmes* eta han-hemengo *two-way immersion programmes* izateko sortu ziren euskal eskola haien bilakaera, egungo ikastolen formulazio sozioedukatibo ezagunera iritsi artekoa. Urtetik urtera, eta aparteko bide-aldatze jakinaren gainetik gabe, gero eta *early total immersion* programa-modutik hurbilago dagoen funtzionamendura bildu zarete alegia, bizpahiru urterekin ikastolaratzen zaizkizuen haurren artean gero eta gehiago direnez etxetik erdaldun hutsak edo erdal-elebidun nabarmenak. Ama-hizkuntzaren printzipioa, hori guztia dela medio, punta-puntako argudio-bide izatetik ia erabat zokoratzera pasa gara horrela, mende-laurdenean edo, ikastoletan eta gainerako eskola-modu gehienetan. Litekeena da bihar edo etzi, ondoren esango denaren ildotik, gai horri berrazterketa xumea egin behar izatea. Gaurkoz, nolanahi ere, ama-hizkuntzaren printzipio hura era diferentzial horretan birmoldatua dago, gure artean ezezik mundu zabaleko beste hainbat hiztun-herri larri ahulduetan.
- b) Egungo formulazio zabaldueketan, aldiz, aski irizpide operatibo inportanteak bihurtu dira honako besteok: murgiltze-metodoen *goiztiar/tartealdiko/berantiar* sailkapena eta, batez ere, *immersion programme* horien *partial/total* izaera. Batean zein bestean, ahalik eta ikasle elebidun orekatuenak sortzearen aldetik badakigu jakin alternatiba sendoenak zein diren. Teorian ezezik praktikan ere hizkuntza ahularekiko esposizio-orduak (egunak eta urteak) maximizatzen dituzten aukerabideak, ari dira itxuraz gailentzen. Euskal Autonomia Erkidegoan, bederen, aski argia da D eredurantzko bilakaera jeneral hori. Kontu hauetan ez dago, ordea, azken hitzik esaterik: jakin badakigu, bilakaera horiek atzera itzuli daitezkeela gutxienik uste denean. Irlandako kasuan, adibidez, badakigu halaxe itzuli ere izan direla inoiz (ez, halere, egungo egunean). Esposizio-orduen eta *goiztiar/berantiar* aldaeren inguruan errazago da, halere, baieztapen sendoak formulatzea ondorio zorrotzak erakustea baino. Errazegi atera-edo izan dira askotan kontuak, benetako faktore guztien baterabilduzko eragina eta faktore bakoitzaren kontribuzioa banan-banan analizatu gabe.
- c) Intentsitate kontu hori, ongi eta zehatz finkatu gabe badago ere, badirudi hurrengo irizpide honekin lotu beharra dagoela: hots, ikasketak bigarren hizkuntza batean egin ahal izateko L2 horretan behar den gaitasun-mailarekin. Murgilbideko ikasleek eskolan aurrera (hots, goragoko mailetara) egin ahala, gero eta kritikagoa bihurtzen da hizkuntza batean zein bestean (praktikan, batez ere beren bigarren hizkuntza honetan) lortzen ari diren eta are lortua duten gaitasun-maila. Hainbat instantziatik hipotetizatzen da, eta arrazoizkoa dirudi, gutxienezko gaitasun-mailarik gabe nekez eskura litezkeela eskolako curriculum-edukiak bere osoan: hots, murgilbideko ikasle horien garapen akademiko-kognitiboan kalterik eragin gabe. Euskal irakaskuntza elebidunaren aztergai delikatu, liskartsu eta garrantzitsuenetarikoa da, nolanahi ere, aipagai dugun etekin akademikoaren kontu hori. Delikatua bai, baina gerora gabe aztertu, landu eta, hala balegokio, konpondu beharrekoak konponbidean jartzea eskatzen duena ere bai. Aieka horretatik egin dezake gure hezkuntza elebidunaren azken 30 urteotako saiakuntzak porrot, bestelako gehienetatik baino areago. Egia da, bai, lagungarri gutxi dugula eskueran azterketa horiek garaiz eta egoki bideratu ahal izateko. Penagarria ere bada mundu zabalean, ahuldutako hiztun-herrientzat hain funtsezkoa den xede horri begira, ongi hornituriko *clearing house* edo gogoeta-gune sendorik ez izatea. Esku-hutsik ere ez gaude, ordea: Kanadako esperientziak bederen (eta Europako zenbait saiok baita ere) badu alor horretan jakite egituraturik eta datu-metatze enpirikorik, eta hori guztia gureganatzen eta geure arteko lan-jardunean ahaletzen ahaletzen beharko genuke berandu baino lehen. Elementu gutxi dira ene ustez, gure ele biko (eta, are, ele anitzeko) eskolagintza osoan, formulazio teorikoen eta aplikazio praktikoaren aldetik hain atentzio xehea eskatzen dutenak.
- d) Murgiltze-metodoetako ikasle horien gurasoei eta irakasleei, azkenik, gero eta atentzio handiagoa eskaini diete, oro har, han-hemengo formulazio teorikoek. Gurasoen borondatezko aukera izan behar duela murgilbideak, eta etxean ere aukera hori zurkaiztu egin behar dutela jarreraz eta jokabidez, argi azpimarratzen da han-hemengo azalpenetan: gurasoen parte-hartze aktiboa, gainerako eskolatzeko-moduetan baino dinamikoagoa, arras gomendagarri omen du murgilbideak, saiakuntza osoa gainbehera etorriko ez bada. Era berean, irakasleen jakinaren gaineko jardunbide metodologikoari, maisu-maistren L2ko hizkuntz gaitasunari zein prestakuntza soziokulturalari aparteko lekua aitortzen zaio, ele biko hezkuntza-molde osoa rutinizazioaren putzura eroriko ez bada.

Badira noski bestelako elementu asko, ele biko eskolaketan eta, batez ere, murgilbidean eragiten dutenak. Gure koordenatu soziokulturalari dagokienez goiko lau horiek iruditzen zaizkit ordea, nolanahi ere, berariaz kontuan hartu beharrekoak. Eta zer dio teoriari, *acquisition planning* alorreko hezkuntza elebidunaren emaitza linguistikoa, akademiko eta soziointegratiboez? Ikasten al dute gazteek L2?; erabiltzen al dute?; zer neurritan integratzen dira esfera soziokultural batean eta bestean? Eztabaida-leku zabal, errukigabea dela iruditzen zait, egungo egunean, lorpen-emaitzen esparru hori. Txostenari hala dagokionez lehenengo atalera (emaitza linguistikoetara) mugatuko dugu gure jarduna. Ez argi aipatu gabe, halere, beste bi esparru horiek ere aurrez aurre eta behar den objektibotasunez landu beharrik daudela (hots, landu beharrik dauzkagula), ele biko hezkuntzaren aurrerabidea desio badugu benetan. Gatozen beraz, ikuspegi zabalagoko eginbehar horren aitormen garbia egin ondoren, gure gaurko esparru jakinera:

- zer emaitza ari gara, helduei eta gazteei euskara(z) irakatsiz, lortzen? Galdera horrek, funtsaren funtsean, beste bi azpizalderara hauek ditu bere altxorrean:
- a) ele biko eskolei (edo euskaltegiei) eskerrak ba al dakite ikasleek euskaraz?;
- b) egiten al dute euskaraz?

Badakit jakin, euskararen jakite-kontuaz gainera gaztelania eta atzerri-hizkuntza (nagusiki ingelesa) ere oso kontuan hartu behar izaten dituela hezkuntza-arduradun orok. Bai noski: hala behar ere du. Txostenaren gaia *ahuldutako hizkuntza indarberritzea* denez, ordea, euskal alorrera mugatzea dagokigu guri, oraingo honetan. Gatozen, hortaz, galdera bi horiei erantzutera. Hel diezaigun lehenengoari.

IV. 2. 1. Ikasleek ba al dakite euskaraz?

Lehenengo-lehenengo erantzuna, baikorra da ezinbestean: bai, badakite euskaraz. Euskaraz tutik ez dakien gaztea gero eta salbuespen nabarmenagoa da EAEn. Erdi-isildurik badaukagu ere, garrantzizko faktorea da hori eta ez genuke gutxietsi behar. Badakigu, ordea, *benetako galdera* bestea dela: zenbat dakite euskaraz? Eta hor, jakina, kontuzago ibili beharra daukagu. Erantzuna ez da, gehienetan, txuri edo beltz modukoa. Ikasleak, oro har, aski euskara-maila diferenteaz ateratzen dira izan ere gure eskoletatik, 16-18 urtera iritsitakoan. Gaztelaniaz ere ez dira den-denak maila berekoak ateratzen, ez hitzez eta ez idatziz; baina euskara aldetik beraien arteko diferentziak handiagoak dira askoz. Faktore asko dira, ez bakarria, Gaussen kanpaia horren zabal-zapalean eragiten dutenak. Irakasteredu elebiduna, besteak beste. Ba ote da honezkero inor, D eredutik ateratzen diren ikasleak oro har B ereduak baino euskaldun sendoago (eta, bide batez, elebidun orekatuago) direla ez dakienik eta B ereduak, beren aldetik, oro har A ereduak baino euskaldunago direla enteratu gabe dagoenik? Horixe izan ohi da, hain zuzen, murgiltze-metodoaren erakarmen-elementu nagusietarikoa (ez ordea, azterketa soziologiko xumeago batek azaleratuko lukeenez, erakarmen-puntu bakarria). Egiaren erdia erakusten du, dena den, gradazio hirukoitzaren ikuspegi horrek. Esaten duenaz gainera, ez da gutxi isilpean gordetzen duena. Isilpean gordetzen duena, berriz, badakizue zer den: etxetik euskaldun diren neska-mutil gehien-gehienak D eredura doazela eta, beraz, D ereduaren *output* horretan zati bat bakarrik zor zaiola ereduari berari. D ereduari ibili diren gazteak B ereduak (eta, batez ere, Akoek) baino euskara gehiago badakite ez dela, osorik (eta, are, nagusiki?) D ereduagatik beragatik. Amezketa haurrak D ereduari ibili ohi badira bi urtetik hasita (hasieran herrian bertan, eta gero herriburu haziagoan), etxean eta kalean nagusiki euskaraz dihardutelarik eguna joan eta eguna etorri, ez da harritzekoa hemezortzi urtera iristen direnean Portugaleteko D ereduak (etxetik gehien-gehienak erdaldun huts edo erdal-elebidun nabarmen diren) ikasleak baino euskaldun garbi, bete, osatuagoak izatea. Diferentzia hori ez du noski ereduak ekarri (bieten D baita), ingurumen osoko euskaltasun-maila arras diferenteak baizik. Eredua faktore garrantzitsua da: horretan ez dago dudarik. Etxeari zein auzo-bizitza osoari eskerrak umetatik euskaldun sendo izatea ere garrantzitsua da ordea. Eta ez gara orain esaten hasiko, jakina, bietan zein den eragingarriago. Bi faktore horiezaz aparte, dena den, badira bestelako faktoreak ere eragimen bizia dutenak: ikasle bakoitzaren adimen-maila eta ikastetxearen hizkuntz planteamendu globala, besteak beste. Faktore horiek guztiek, eta beste zenbaitek, etekin-kontuaz dugun ikuspegia zabaldu eta aberastu egiten digute. Sorpresa txikiak jasotzen dira ordea, normalean, gaitasun-mailaren aldetik han-hemen agertuz doazen ikerlanetan. Ezer sakon samar aztertu bada azken hogeitaz urtean horixe izan da, eta han-hemen jasotzen ari diren emaitza horiek badute amankomuneko hainbat puntu. Honako hauek, besteak beste:

- a) euskarazko gaitasun pasiboetan trebeago dira gure ikasleak, oro har, aktiboetan baino: entzundakoa eta irakurritakoa ulertzen iaioagoak dira batez bestean, alegia, idazten eta, batez ere, hitz egiten baino;
- b) euskarazko aldaera edo erregistro jaso-formal-espositiboetan aurrera egin da, oro har, azken hogeitaz urtean. Horren parez pare atzera egin da, ordea, mintzajardunaren esparru informal, barrenkoi-intimoei dagokienean: errazago manejatzen dira deklinabide-atzizkien deskribapena egiterakoan edo Pitagorasen teorema azaltzerakoan, gatz-piperrezko txisteak edo emozioz eta poz-irrikaz beterikako sentiera pertsonalak alboko lagunei kontatzerakoan baino;
- c) aurrera egin da oro har euskara batuaren ezaguera formalean eta aplikazio praktikoan: ortografi kontuan eta *zesateu* etxekoa *zer esaten du* zatikatu eta osaberritu behar delako jakite kontu horretan, besteak beste. Horrekin batera gero eta urrun-etenagoa gertatzen zaie askori, ordea, inguruko baserri-giroko (zer esanik ez aparteko euskalki bateko) hizkera-moldea.
- d) Ohiko hots-ebakeran, are gehiago hitzarte osoen doinueran, atzera egin du deblauki eskola-mundu osoak (ez, hortaz, ikasleak bakarrik): *euskerak ikastoleroa* zabalitzen ari da han-hemen, batuaren izenean hainbatean. Nola esaten dugu (ez, alegia, nola esan behar genukeen), irakasle eta hezkuntza-arduradun gehienok *prozesu*, *zero*, *Lizarrustiko* portua edo *Zumalakarregi* jenerala? Fonetikazko interferentzien eragina, eskola munduan, kale gorrian baino biziagoa delakoan nago. Hitz-altxorri dagokionez ere erraza da antzeko ondorioetara iristea: *Bigarren Hezkuntza* esaten dugu, edo *Sekundaria*? Horren ondoan, jakina, elaborazio terminologikoak eta kultur maila jasorako estilo-lanketak zenbait aurrerabide egin ditu eskola-munduan: *zuzendari* eta *azterketa*, *aurkezpen* eta *emaitza* modukoak gailentzen ari dira *direktore/-a* eta *esamina*, *presentazioa* eta *resultadua* alboratuz, eta jendaurreko azalpen-modu landu, jaso zenbait etxekotzen ari zaizkigu.

Batezbesteko ezaugarri horiezaz gainera badira, halere, mende-laurden luzez eraiki den irakas-sistema honetan berariaz aipatu beharreko elementuak. Euskarazko idazlangintzak jaso duen aupada, besteak beste. Hitzezko jarduna izan da, mende luzez eta oso nagusiki, euskaraz ezagutu duen erabilera ia bakarria. Aurrez aurreko edo bertatik bertarako jarduna hortaz. Jarduera-molde horren izaera lokal (gehienik ere eskualde mailakoa) kontuan izanik, hizkuntzaren frakzionamendu-joerei nekez frenorik jar ziezaiekeen. Elizgiroko dotrinak eta arimen lagungarritza liburuak (haiek ere lekuan lekukoak edo, gehienak ere, euskalki-alorrekoak), eta XIX. mendetik honako bertso-paperak, antzerki-lanak, eleberriak eta olerkiak alde batera uzten badira erdararen (hasieran latinaren, gero albo-erromantzeen eta azkenik frantses-gaztelanien) erreinu lausogabea izan da, orain puntura arte, hemengo idazketa osoa. Berrikuntza sendoa dugu, hortaz, azken hogeitaz hamabost urtean eskuratzen ari garen eskola bidezko idazlangintza hori

Azken batean, eta *Arregiren paradigma* deitu-edo dugun horren ildotik, hitz egiten ezezik euskaraz idazten ere badakiten belaunaldi gazteak sortzen, osatzen eta zabalitzen ari gara. Etxetik euskaraz dakien gazte-jendeak idazten ere badaki orain, halako neurri batean, euskal eskolari esker. Lorpen handia da hori ere, neska-mutil erdaldunak (berr)euskalduntzearenaz gainera. Euskara hutsean (edo nagusiki euskaraz) diharduten espazio fisiko (etxe, auzo, kale, herri, eskualde) eta soziofuntzionalak (familia, lagunartea, plazagiroko harreman-tratua, lantegia, astialdia) apurtuz, murriztuz eta gesalduz joan ahala gero eta zailagoa gertatzen ari zaigu aurrez aurreko, bertatik bertarako harreman-sare euskaldunei tinko eustea. Hori horrela delarik, euskaraz irakurri eta idazteko gai den euskaldun-jendea ugaritzeak bestelako mesedeak eransten dizkigu: orain arte ohiz kanpoko edo erdararen mendeko izan ditugun handik harako harreman-sareak (irradi-telebisten ahozko

jardunaz gainera) idatzizko hizkuntz gaitasuna lagun, euskaraz mamitu ahal izatea. Eguneroko prentsa eta aldizkariak, literatur lanak, luze-zabaleko kultur kontsumoa, korrespondentzia klasikoa edota posta elektronikoa zein internet-lotura oro har: horiek guztiak, eta beste zenbait gehiago, harreman-sare handik harakoen, eta are birtualen, aukerabide mesedegarri horren lekuko ditugu.

Hori dena egia da, jakina. Baina egia ez da hori bakarrik. Eskolak, D ereduak barne, gure (berdin du mundu zabaleko beste edozein minoriatako) seme-alaben erdalduntze-bide ere gertatzen dira sarri. Ondo baino hobeto dakigun kontua da hori. Isil asko gordetzen duguna ere bai. Ikasleen (ikasle askotxoren) etxea eta auzoa hain (erabat edo nagusiki) erdalduna izanik, oso zaila da ikasle horiek euskal hiztun trebe bihurtzea. Alderantziz, nahi baino errazago gertatu ohi da etxetik euskaldun edo erdi-euskaldun etorri diren ikasleak beren mintzajardun arruntean nabarmenki erdalduntzea. Inork egia sakon horren berri badaki zuek, ikastolako irakasle eta arduradunok, dakizue horren berri. Eta askotan, jakina, jendaurrean ez bada ere tentazioa sortzen zaigu gure buruari behintzat honako hau galdetzeko: “ondo ari al gara gure indar gehienak horretan xahutzen? Hau ez da guk buruan eta bihotzean genuena!” Kontuz ibili behar da, nolanahi ere, horrelako *harakiri* ximpleekin. Mugak eta eragozpenak neurtu egin behar dira ondo. Eskola bidezko indarberritze-saioen benetako arazoak ondo identifikatu behar dira: arazo horiek non dauden, zenbateko larritasuna duten eta, ahal delarik, zerk eragiten dituen. Gure azterlanak ez du, ordea, horretan bukatu behar. On-gaitzen balioespen orekatua egin behar dugu ahaleginean. Saioaren alderdi baikorra ere zehatz-mehatz aztertu behar da. Euskarazko eta elebiko edo eleanitzeko irakaskuntzak ahalbidetako hizkuntzari ekartzen dizkion, edo ekar diezazkiokeen, mesedeak eta aukerabide berriak, euskal eskolaren bidez hizkuntzari zabaltzen zaizkion albo-leihoak alegia, horiek ere kontu handiz baloratu behar dira. Ikus ditzagun horietariko batzuk, gaingiroki bada ere. Etxetik euskaldun den neska-mutil askori euskara idatziaren (eta, horren bidez, gure kultur nortasunaren) ikasbide arteza eskaini dio, azken mende laurden pasa honetan, euskal eskolak. Etxetik erdaldun edo erdal-elebidun direnei, bestalde, euskaraz egiten ikasteko aukera ohargarria (bere ingurumeneko beste inolako instituzio sozialek eskaintzen diona baino ondotoz sendoagoa) eskaintzen die orohar. Beren kideko gazteekin euskarazko edo euskal-erdal moduko harreman-sareak eta interakzio-ereduak sortzen lagun dezake. Hori guztia ere hor dago, eta oso kontuan hartzekoa da. Eta ez hori bakarrik. Gizarte osoaren lanbide eta ordainsari-sisteman ere bere oihartzuna eskuratzen ari da, bere mugak eta guzti, guztion artean erakitzen ari garen euskal eskola. Non aurkituko genuke hainbat heldu euskaldun, alfabetatu, ikasirentzako lanpostu eta posizio sozial ohargarriak, euskarazko irakas-sistemarik ez balitz? Nolatan euskalgintzan jardun ahal izango lukete, jarduera arautuaz eta hileroko soldataz, eskola-munduan diharduten milaka irakasleek (eta zuzendari, ikuskari, teknikari eta laguntzaileek), hartan okupatuko ez balitu euskal eskolak? Nolatan biziko ginateke euskalgintzaren gorpuean, orobat, gu geu eta gure antzeko gehienak?: era batera edo bestera eskola-munduarekin harreman zuzena dugun hezkuntza-alorreko funtzionariook, argitaletxeetako koadro teknikoak, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituzten elkarteak eta, oro har, gidaritza didaktikoa, antolamenduzkoa edo hizkuntz normalakuntzaren alorrekoa eskaintzen duten aholku-elkarteak? Hori guztia ere hor dago, eta bere muga-baldintza guztiekin ere ez da gutxietsi behar. Esparru sozioprofesionala alde batera utziaz hel diezaiogun, bestalde, mintza-jardunaren gizarte-moldadura arruntari: euskal eskolatik kanpora non lor dezakegu gaur egun, gero eta bakanago ditugun arnasgune jatorretan izan ezik, belaun arteko interakzio-esparru formalik? Eta nola espero genuke azkenik, euskal eskolarik gabe, XXI. mendeko euskal intelektual, *leader* eta profesional gazte trebeak izatea? Nolatan, eskola gabe, *jaioko dira berriak*?

IV. 2. 2. Ikasleek egiten al dute euskaraz?

Oraintxe iritsi gara muinera, hainbat amets pizten eta hainbat buruko min eragiten dizkigun lekura. Hau eta hori eta bestea esango dugu, baina gure eskoletako (edo eskolatik pasatako) gazteek euskaraz *egite* horretan ez dugu aurrerapen handirik ikusten. Euskal eskolatik pasa diren edo hortxe ari diren gazteek ez dute, urrundik ere, orain mende-laurden espero genezakeen aurrerapenik egin, euskaraz jarduteari dagokionez. Badakit zer esango didazun: kasuak eta kasuak daude, eta ezin dela jeneralizatu. Arrazoi duzu: kasuak eta kasuak daude, eta “denetik dago jaunaren etxean”. Esaera piadoso horrek, egia-erantzaren zati on bat azaltzeaz gainera, besterik ere egiten du ordea: ikasleek euskaraz irakastetik ikasleek euskara ikastera, eta azken horretatik ikasleek (etxean eta eskolan, kalean eta lagunartean) euskaraz egitera dagoen osinaren handia ezkutatu. Gutxiago dira normalean euskaraz egiten dutenak, egin ahal izango luketenak baino. Dirutan eta ilusiotan, antolamendutan eta ordutan egiten den inbertsioak, belauneko belauneko jarraipenari atxikitzeko, ez du beraz erabateko etekinik ekartzen. Lehendik ere saiatu izan gara (Zalbide, 1991) gertaera horren zergatikoa eta zer-nolakoa ikuspegi funtzional batetik agertzen, eta orain ez gara lehen esandako haiek berritzen hasiko. Ezaguna da, bestalde, Fishmanek behin eta berriro azpimarratu izan duen baieztapena: “the effectiveness of the school in reversing language shift” zergatik hain murriztugatua den. Horiek ere ez ditugu, gurera itzuliak daudenez gainera, berriro hemen azalduko. Txosten honen hizkuntz soziologiako ikuspegia kontuan izanik, eskola elebidunaren jarduna eta ekarpen-emaitza *social reward system* enfokearen arabera azaltzea mereziko du agian. Txosten osoaren ardatz-ardatzean dagoen galderari erantzuten laguntzen digu, izan ere, soziologiako makroenfoke horrek: zergatik hitz egiten du euskaldun-jendeak hizkuntza batean (demagun, euskaraz), bestean (demagun, erdaraz) edo bietara? Gure kasu hurbilenara etorritik, zergatik (eta noiz-norekin) egiten dugu euskaldunok euskaraz, gaztelaniaz edo bietara? Euskaldun guztiontzat balio duen ikasle euskaldunentzat ere balio izan beharko du noski. Fishmanen erantzuna (Fishman 1985:369-70), lau pauso-urratsetan emana, honako hau duzu:

- a) “The vast majority of any speech community comes to speak (read, write) in the ways it does –monolingually or bilingually- because of its long and intricate involvement in reward systems requiring such speech”. Euskaraz esanik, eta gure azalpide arruntenera hurbilduz, honelako zerbait alegia: edozein hiztun-elkartetan jendeak era batera (demagun euskaraz, demagun erdaraz) edo bietara (euskaraz eta erdaraz alegia) egiten badu ez da, normalean, musu-puntan hala jartzen zaiolako, beste zerbaitegatik baizik. “Zerbait” horrek eramaten gaitu euskaraz, gaztelaniaz edo bietan egitera. Zerbait hori gizarte-ingurumen horretan indarrean dago, eta hiztunen mintzajardunean (baita idatzizkoan ere) eragin zuzena du. Eta hori ez da hizkuntza txikiekin bakarrik gertatzen, guztiekin baizik. Logroñoarrek gaztelaniaz egiten badute hortaz, baina New Yorkeko hispanoek ingelesez edota bietara, ez da inolako kasualitatea. Zergatik egiten du jendeak, oro har, egiten duen hizkuntza (-etan), eta ez bestela? Hiztunok kasuan kasuko hizkuntza hori (euskara, gaztelania, ingelesa) edo horietariko bat baino gehiago eskatzen duen/dituen *reward system* edo ordainsari-sistemari luzaro eta estuki loturik gaudelako. Hots, gizarte jakin horretan indarrean dauden *reward systems* edo *ordainsari-sistemek* gobernatzen dutelako funtsean, ez norbanako gogotsuok, gainerako solaskideekin zer hizkuntza egin.

Eta zein dira, galdetuko didazu, gure mintzajardunaren hizkuntza-aukera determinatzen edo bideratzen duten ordainsari horiek? Honako hauek batez ere, Fishmanen esanetan:

a1) social rewards edo gizartekotze-sariak. Hau da, hizkuntza hori jakin eta egiteari eskerrak gizarte horretako kide izan zaitezkeenekoak: familiako kide izatea (cf. "gure etxean euskaraz egiten da, ez ahaztu gero!"), herrikotzat hartu izatea (cf. behinolako belarrimotzak), gizarte horretan txertatzea (cf. "kanpoan jaioa dezu, baina zu eta ni bezelako euskalduna da"),...

a2) fiscal rewards edo diru-sariak. Hots, poltsikoa berotzeko balio duten ordain-sariak: hizkuntza hori jakitea ezinbestekoa edo lagungarria deneko lanpostuak (cf. hizkuntz eskakizunak), goragoko lanpostuetarako lagungarriak, puntuazio gehigarriak (cf. leku-aldaketako lehiaketak),...

a3) political rewards edo politikazko ordainsariak. Esate baterako, hautatua izan ahal izateko jakin behar den hizkuntza, jakite horri eskerrak eskuratzen diren izendapenak, plaza-gizon sonatu izateko beharrezkoa duzun hizkuntz gaitasuna,...

a4) erlijiozko ordainsariak: gizarte-molde premodernizatuetan batez ere (baina ez haietan soilik, diogun bidenabar), hizkuntza zenbaiten jakite-erabilerak beharrezkoak dira, erlijio-munduak hartaturik (cf. behinolako "hable Vd. cristiano!").

Gure kasura etorritz, zer *reward system* dauka euskarak, eta zein gaztelaniak? Bigarren puntua da, jakina, erantzuten errazena. Bai ikuspegi soziologikotik eta bai, batez ere, juridikotik: espainola jakiteko obligazioa dugu guztiok. Soziologiaren aldetik, eta hori dugu noski klabea, gaztelaniaren *reward system* delakoa sakona da benetan, zabala eta sendoa. Bai esfera formal-publiko-mediatikoan, bai astialdiaren eta merkataritzaren alor gehienetan eta bai, are, harreman-sare informal, barrenkoi-intimo askotan. Eta zer *reward system* dauka euskarak?: euskaraz jakitea *social reward* handia da Gipuzkoako Urolaldean, Bizkaiko Markinaldean edo Nafarroako Malerrekan. Bertako hainbat esparrutan bizi liteke noski euskararik jakin gabe (begien bistan ditugu adibideak). Baina errezildar, aulestiar, zubietar petoa, erabat bertakotua izan nahi duenak euskaraz jakin (bertako euskara-modua jakin, gainera, ahal delarik) eta euskaraz egin behar du. Hemendik hogeitabost urtera ez dakigu zer izango den, baina gaur egun horrela(tsu?) da. Euskaraz (are bertako hizkera-moldean) egiten jakitea *social reward*, ordainsari sendoa da bertakotu nahi edo behar duenarentzat. Hori gabe jai du. Han biziko da, noski, baina ez da *hangoa* izango. Euskara bizi-bizirik dagoen leku horietatik kanpora ere, mesedegarria da hainbatetan euskaraz egitea. Beharrezkoa ere bai, zenbaitetan: bertsolari-txapelketara euskaraz jakin gabe, edota bertara doan jendearekin erdaraz hitz egin nahiaz joatea, alferrik da: alfer-alferrik, nahiz eta txapelketa hori Kursaalera jauregian egin, Donostiako muinean. Egia da, halere, ondotoz (askoz) gutxiago direla euskaraz egiteari dagozkion ordainsari-sistemak, gaztelaniaz (edo, modu sofistikatuagoan bietara) egiten jakiteak eta (hala dagokionean) erdaraz edo ele bietan egiteari dagozkionak baino. Guztiarekin ere, bistan da euskaraz jakitea *plus* bat dela gaur egun, *minus*-a baino areago.

Social reward system delakotik ordainsari fiskaletara pasatzen zarenean ere badira, egungo egunean, zenbait bereizbide. D ereduko lanpostu gehienetara (eta B ereduko askotara) iritsi nahi baduzu euskaraz jakin behar duzu, eta gelan (baita, neurri jakinean, klaustroan eta abar) euskaraz egin. Pentsu-saltzaile, albaitero edo motozerra-konpontzaile izan nahi baduzu Leitza, orobat, euskaraz jakitea eta egitea oso komenigarri izango duzu. Zenbat lanpostutan dauka ordea euskarak, egungo egunean, hainbateko *fiscal reward* izaera? Gutxitan: hori da egia. Zenbatetan, aldiz, gaztelaniak (frantsesak)? Askotan, gehienetan eta (maiz asko) desiragarrienetan. Aurrezki Kutxako Zuzendaritzako kide izateko jakin (eta, batez ere, egin) beharra al dago euskaraz? Eta Hipermerkatuko kutzazain, diru-kontalari eta jestio-arduradun izateko? Eta Durangoko udaltzain izateko? Gaztelaniaz jakin eta egin behar al da? Hortxe dago kontua. Desoreka argia, sakona eta zabala dago erdal eta euskal ordainbide-sistema horien artean: are ordainbide sozialetan baino nabarmenagoa, eskola-mundua eta administrazio-gune jakin-mugatuak alde batera uzten badira. Zertan eta noiz-nola erabiltzen den euskara, eta zer neurritan beharrezkoa den hortaz, ongi aztertu gabeko alorra dugu halere.

Diru-ordainen alorretik politikazkora pasatzen bagara, orobat, ondorio argiak atera ditzakezu. Bibliografia akademikoan ez dago halere, dakidalarik, gai horri buruzko argibide handirik. Eguneroko esperientziak, nolana ere, zerbait erakusten digu: ez zaitut ordea, leku aproposa ere ez baita hau horretarako, begien bistako gertaera xume, ezagun eta argigarri horiekin aspertu nahi. Kontua da gaztelaniak (frantsesak) askozaz *reward system* zabal, sendo, erakargarriagoa duela bere alde, euskara ahulduak baino. Hori da, Fishmanen argudio-bidea ondo ulertzeko, gogoan izatea komeni dena. Hori eta, zenbait jardun-esparrutan, euskarak indarrean gordetzen duen edo eskuratu berria duen ordainsari-sistema: eskola-munduko ordainsari-sistema, besteak beste.

- b) Eskola ere bai baita, izatez, *reward system* bat. Goian aipatu ditugun beste horiek baino ondotoz ahulagoa, xumeagoa eta iragankorragoa ordea. Funtsean geroko gizarte-bizitzan (beste *reward system* sendo horiek indarbetean dauden gizarte-bizitzan) ongi txertatzeko prestatzen du eskolak. Eta jakina, hori horrela izanik eskolak ezin ditu bere hutsez eta bere baitarik ordainsari-sistema gotor-sendo horiek bestelakotu, are gutxiago bere mendera ekarri. Aitzitik, beste ordainsari-sistema horiek beren neurrira ekartzen dute eskola. Eskolaren ordainsariak ahulak dira, izan ere, beste horien ondoan.
- c) Ikasleak haur txiki edo neska-mutil xume diren artean, eskolaren ordainsari propioek badute bere eragina eta eragimena ikasle horien jardunean. Adinean aurrera egin ahala, eskolan gora (goiko kurtsoetara) egin ahala, gero eta gizarte zabalaren ordainsarietara begirago jartzen dira ordea ikasleak: astialdiko norma sozialetara, lan-merkatuaren eskakizunetara, kale-bizitza arrunt, normal, egunerokoan gailendurik dauden konbentzioetara begira. Irakasleen saio guztiak gorabehera, "gizarteak agintzen duen" hizkuntza batean, bestean edo (segun noiz-nola) bietan egitera jo ohi dute ikasle horiek. Puntu inportantea da hau, desanimoarean putzuan erori nahi ez duen irakasle-jende saiatu, euskaltzalearentzat: "kaleko, gizarteko" ordainsari-sistema primario horiek ondotoz sendoagoak dira eskola-munduak (denik euskaltzale eta dinamikoan ere) era ditzakeen ordainsari-sistema sekundarioak baino: eskola-munduko ordainsari-sistema sekundarioen aurretikakoak dira primario sendo horiek, luzaroago irauten dute eta belauenez-belauneko jarraipenaren muin-muinetik hurbilago daude askoz. "*Euskaraz bizi*" eta *Ulibarri* programa osoak ongi enfokatzeko ezin ahaztuzko kontua da hori.

- d) Kurtsoz kurtso gora egin ahala, horregatixe, ikasleengan bere ordainsari-sistema sekundarioa ezartzeko edo indarrean mantentzeko aukera gero eta mugatuagoa du eskolak. Eta zerk mugatzen du bere ahalegina?: gizarte zabaleko ordainsari-sistema primarioak, kontrol nagusia bere baitan duenak. Transmittitu-transmittitu, helduaroko gizarte horrek sarituko dituen ezaguerak, trebetasunak eta gaitasunak (hizkuntz gaitasunak barne) transmittitu ahal izango ditu eskolak, indarbetean. Eskolatik kanpora euskarak ezer gutxitarako balio duen ingurumenetan, hortaz, oso aldatz gora egiten zaio eskolari bertako ikasle zaharrenengan (nahiz eta halako euskara-maila bat dagoeneko eskuratua izan) eragin eta gazte horiek, gelatik atera ondoren, beren artean eta gainerako harremanetan euskaraz egiten jarrai dezaten segurtatzea edo, soil-soilik, bultzatzea.

Esplikazio-modu bat da hau, jakina, eta ez egia santua. Bere muga-eragozpen guztiekin ere esplikazio-hari koherentea eskaintzen du berak, euskaraz hainbatean dakien gazte-jende askok (gero eta gazte gehiagok) hain euskara gutxi zergatik egiten duen azaltzeko. Emendiozko baliorik ere badu, gainera: atzerriko hainbat minoria etnolinguistikoren eskoletan (beren hizkuntza eta etnokultura propioak bizirik mantentzeko edo indarberritzeko eratu izan dituzten milaka eskola horietan) gauzak horrela doazela konprobatu ondoko teorizazio-saioa da hau. Eskaintzen digun perspektiba guk nahi baino ilunagoa izateak ez dio noski, teorizazio-saio horri, bere iragarmen-indar apurrena ere kentzen. Ez dezagun ahaztu, halere, makrosoziologiaren ikuspegitik egindako azalpen-saioa dela hau, erdi- eta mikro-mailako azalpideek osatu, aberastu eta, hainbat elementutan, zuzendu dezaketena. Perspektiba bakarreko azalpenak ez dira noski, hizkuntzaren alorrean eta egungo konstruktuko teorikoen hasikin-ahula kontuan izanik, ezinbestean hoberenak. Bere muga-gabezia guztiekin ere euskal eskolan dabilzan edo bertatik pasa diren gazteek euskara jakitetik euskaraz hitz egitera dagoen osin horren handia, zer-nolako eta zergatikoa argitzen laguntzen digu. Kontuan hartzeko konstruktuko teorikoa iruditzen zait beraz, *acquisition planning* formulazio xume-jeneraletatik ondotoz sakonagoko zoko-miraketara eramaten gaituena.

IV.3. Osabetezko **Status planning**: *aginpidea eskuratuz hizkuntza ahulari, ohikoez gain, goi-mailako funtzioak segurtatzea.*

Zenbat aldiz ez ote dugu entzun, gazte-gaztetatik: "hemen egin behar dana zera da, euskera ofizial bihurtu eta bertan bizi nahi duenak egin dezala gure hizkuntzan". Batzuetan gordin-gordinik, eta besteetan kuido gehixeagoz, mila aldiz esan eta entzundako kontuak dira burutazio horiek, euskaltzaleen artean behintzat. Mende luze bat daramagu, aldia aldi edergarriez estalirik, asmo hori nola egia bihurtuko ametsetan. Eta ez da harritzekoa: logroñoarrentzat eguneroko gauzarik arruntena dena, Bordeleko jendeak garantizatua daukana, Milanon edonork egiten duena.... euskaldunok zergatik ez dugu egin behar bada? Amets egitea ez da gainera, oraingoz, debeku. Kaltegarri denik ere, nonahi eta noiznahi, ez du inork frogatu. Eta jakina: "prezio berean, tarta-erdia baino nahiago diat tarta osoa". Euskal herriko hizkuntza basikoa, eguneroko eta gure gizarte-bizitzaren funtzio-esparru gehienak aseko dituen, euskara izatea aldarrikatzen du formulazio honek. Amets zoroa al da? Ametsa bakarrik? Bere aldekoek ezetz diote. Are gehiago ere esaten digute: euskara horrela aterako dela bizirik, bizirik ateratzekotan: horrela ez bada galdu egingo dela betiko. Politikak eta legislazioak, ongi mugarritaturiko territorio-esparruak eta elebakartasun funtzionalak ekarri omen dezake euskaltasun osozko gizarte-molde berri hori. Guztiok euskaraz jakin eta gehienok euskaraz egiteaz gainera, argi azpimarratzen da formulazio horretan frantses-gaztelaniak (bai eta ingelese bera ere, nahiz eta beste modu batean) gehigarritzko hizkuntza gisa bertako edonork entendituko dituela eta, kanpokoekiko harremanetan, inolako erreparorik gabe erabiliko. Hori da, oker handirik egiteko beldurrik gabe, hizkuntz normalkuntzaren formulazio goren, begiluzeena, osabetezkoena, *euskaltzalerik euskaltzaleena* ere satisfetxo uzteko modukoa. Ez da, urrundik ere, *hizkuntz normalkuntzaren* formulazio posible bakarra. Eta ez da, bereziki, 1980 ingurutik indarrean dagoen lege-marko nagusiak begiz jotzen duen hizkuntz normalkuntzako formula konkretua. Bada, ordea, *hizkuntz normalkuntza* terminoa bera sortu zutenen eredutik hurbilen-edo dabilena. Kontura gaitezen, nolanahi ere, formulazio honek ondoko ezaugarriok dituela berekin:

- a) osabetezko indarberritze-eredu hau ez da Euskal herrikoa soilik, Espainiako (eta, are, Europako) hainbat hiztun-herritan azken hogeita hamabost urtean hor-nonbait bizirik eta indartsu agertu izan den planteamendu soziokultural eta, are, soziopolitikoa baizik. Eredu hori ere, gainerako gehienak bezala, ez da hutsetik sortua. Ez da hirurogeiko hamarkadan sortua, konkretuki, bere elebakartasun territorialari dagokionez: ondotoz lehenagokoak ditu iturburuak, orain zoko-miratze horretan hasterik ez badaukagu ere. Hirurogeiko hamarkadan hasi zen ordea burua jasotzen, bere formulazio teoriko-akademikoei dagokienez. Orduko formulazio haietara jo behar dugu, hortaz, paradigma horren nondik norakoa argitu nahi badugu.
- b) Europa hutsekoa ere ez da, gainera, formulazio hori. Ameriketako *ethnic revival* mugimenduekin batera sortua da aitzitik, eta orduko *Zeitgeist* haren beste hainbat ikusmolderekin ere oratu eta gorpuztua. Lotura argia du alegia Ipar Amerikan 1965etik 75era loratu zen *ethnic revivalekin* eta haren garaikide izan ziren gizarte-ekimen zabalagoekin: Vietnamgo gerraren aurkako protestekin, *make love not war* filosofiarekin, *Parisko maiatzarekin*, *do-it-yourself* esloganarekin, *hippy*-en espontaneitatearekin, unibertsitate-alorreko protesta-zurrunbiloekin, energia nuklearraren aurkako mugimenduekin eta ekologismoaren aldeko lehen aldarrikapeneekin. Giro hartan sortu zen *normalizació lingüísticaren* formulazioa. Hartan eta, orain errazegi ahazten bada ere, beste "zerbait" ere oso gogoan zuen aldarre-giroan: Espainiako aginte-molde diktadurazkoa berandu baino lehen galtzera zihoala eta haren ordeztu bizibide aske-demokratikoa etortzeko zela "seguru" zekielako konbentzimendua. Konbentzimendu sendoa, bereziki, Espainiako instantzia informatuenetan eta dinamikoenetan: unibertsitate giroan, besteak beste.
- c) Paradigma hori, guri dagokigunean eta formulazio teoriko-akademikoei dagokienez, *Paisos Catalans* direlakoetan (zirelakoetan?) sortua dugu nagusiki, eta gero Euskal herrira, Galiziara eta Europara (batez ere bertako zenbait instantzia unibertsitario-akademikotara) zabaldua. *Normalizació Lingüística* delakoak European izandako oihartzunaz G. Kremnitz (1990) izango dugu agian, orain ere, adibiderik argiena (64). Iturburuei dagokienez Lluís V. Aracil, Rafael Ll. Ninyoles eta Francesc Vallverdú ditugu autore garrantzitsuenak, Jordi Ventura, Josep Meliá eta Antoni M. Badia ere tarteko hartu ohi direlarik sarri. Formulazio nagusia eta eskola-izakera bera lehenengo hirurek emana diote, eta orain ere haien argitalpenetara jo behar du iturburu haien berri jakin nahi duenak. Bere alde eta dibejerentzia nabarmenekin ere eskola edo azter-lerro zabala sortu zuten bidegile horiek, *Escola catalana de sociolingüística*, baita *revolució sociolingüística catalana* ere, deitu izan dena.
- d) Eskola horren ezaugarri nagusietarikoa, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko orduan, zera da: ordura arteko eta une hartako bibliografia soziolinguistiko ezagunenaz hornitu izana eta, hornitze-lan horrek eskaintako perspektiba

jaso-egituratuaz, beren gizarte-giroari ongien zetorkion formulazio teoriko propioa sortzen saiatu izana. Oso gauza nabaria da hori, eta ez dago zertan harritu. Klosek 1952an kultur hizkuntza germanikoak hartu bazituen aztergai, Weinreich batek gainbehera bizian zetorren erretorromantxearen baitako interferentziei kontsiderazio psikolinguistikoa eta soziokulturalak erantsi bazizkien 1953an, Fergusonek diglosiaren formulazio klasikoa bere esperientzia pertsonaletan oinarrituz jendarteratu bazuen 1959an eta Fishmanek *language maintenance* (ez *revitalization*) eta *language shift* aztertu bazuen handik urte gutxira, ez zen noski kasualitatea izana: aztergai zituzten gizarte, hiztun-herri eta hizkera-moldeen zer-nolakoak bultzatu zituen noski soziolinguistikaren bide-urratzaile horiek guztiak, nork bere enfoke propioak landu, findu eta zorroztera. Soziolinguistika katalanak ere ez zuen, beraz, gainerako beste gehienek baino unibertsal, neutral, interkulturalagoa izan beharrik. Egia da hori guztia. Baina horren aurretik esandakoa ere bai: "beren neurriko trajea" egiten saiatu zirela katalanak (katalan-valentziar-mallorkarrak). Eta euskaldunok, aski bide zuzenetik, zegoen-zegoenean (eta, are, zenbait eratorpen korapilotsuz) hartu genuela hizkuntz normalakuntzaren formulazio katalana, bere argi eta itzalekin (65). Bietarik baititu horrek ere, gainerako gehienek bezala. Non ditu indarberritze-saioen formulazio soziopolitiko horrek bere argiak, eta non bere itzalak?

IV.3.1. Normalizació lingüísticaren aurrerabideak.

Gure artean gailendurik edo indartu nahian zebiltzan ikusmolde batzuei astinaldi ederra ekarri zien Katalunia aldeko formulazio berriak. Ondoko puntu hauetan, besteak beste:

- a) Problema ez da *corpus*-plangintza, *status*-plangintza baizik. Idea horrek aurrerabide eskasa izan zuen gure artean, h letra gora eta h letra behera euskararen batasun-bidean abiatu berriak ginen hartan. Katalanen lujoa zen nolabait, gure aldean ondo arauturiko hizkuntza zeukatenez mende-erdiz hor nonbait, *corpus*-plangintza klasikoa hain alde batera uztea. Gu ez geunden lujo horietarako: "Hil-ala-biziko" eginbeharra iruditzen zitzaigun, gorago aipatu dugunez, euskara batasun-bidean jartzea. *Corpus*-plangintzaren hari-muturretik tiratuz espero genuen gainera, neurri batean, euskararen gaixotasun-mataza askatzea. Eta betikoa: arrazoiaren zati bat, behintzat, ez zitzaigun falta. Bere osoan hartuta arrazoi zuen ordea, guztiarekin ere, soziolinguistika katalanak. *Corpus*-plangintza beharrezkoa da, neurri batean, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko. Neurri batean, ordea. Zer neurritan? Aldian aldiko *status*-plangintzak horren beharra duen neurrian. *Status*-plangintzaren zerbitzuan egon behar baitu, beti, *corpus*-plangintzak. Gizarte-molde berri modernizatueta ezinbestekoa da, praktikan, oinarritzeko batasun-maila bat. Azterkizun dago, ordea, hortik aurrerako *elaboration*- eta *cultivation*-saioak noraino eta zer-nola ditugun beharrezko, are gehiago lehentasunezko. Behatzak harapatuz ikasten ari garen lezioa da hori: katalanek garbi azaldu zigutena eta guk, hobe beharrez noski, berehalakoan behintzat ikasi ez genuena.

Beren (hots, katalanen) terminologian (66) badakizu *normalizació lingüística* esaten zaiola ingelesezko *language planning* delakoari (Aracil, 1982:88). *Normativització*, aldiz, *corpus planning* delakoari. Soziolinguistika katalanaren asuntzia, *language planning*-en gizarte-moldaerazko gorabehera lehentasun osoa ematekoa, aurrerabide sendoa izan da. Kosta egin zaigu euskaldunoi lehentasun-eskema horretara biltzea, baina zeharo onartutako printzipioa da gaur egun *status*-plangintzaren plazan jokatzela dela funtsean, ez *harategi/arategi*, *dezaguke/diezaguke*, *iritzi/eritzi*, *aurrealde/aurrekalde* moduko bidegurutzeetan, ahuldutako hizkuntzaren geroa.

- b) Beste horrenbeste esan liteke, *mutatis mutandi*, eskola-alorreko *acquisition planning* delakoaren balioespenaz. Maitea dute zinez, inork berea maite badu, beren *Escola Catalana*. Maisu handiak ditugu gainera katalanak, eskola-mundu osoa bertako hizkuntzaren alde antolatze eta antolamendu horri etekin hoberena nola atera argitzen laguntzeko orduan. Zenbat irakasle eta hezkuntza-arduradun ez ote da gure artetik, azken mende-laurdenean, Sitgesko jardunaldietara edo Bartzelonako instantzia akademiko-unibertsitarioetara hurbildu, katalanen maisutasun horrexegatik, informazio bila eta argitasun eske?

Guztiarekin ere ez da eskola, ez da aurreko puntuan ikusi dugun *acquisition planning* delakoa, soziologia katalanak begien aurre-aurrean daukana. Hizkuntzaren gizarte-dimentsioa, hizkuntza bere osoan eta bere inplikazio soziopolitikoetan, aztertzeko saiatzen da bera. Beste aplikazio-maila baterako uzten ditu horrexegatik, garrantzi-apurrik apurrena kendu gabe noski, *normativització* eta *ensenyament bilingüe* (sarriagotan *en llengua catalana*) direlakoak. Beste espezialista batzuen esku uzten ditu horiek, eta ikuspegi global, integratzaileari eutsi nahi dio berak ahaleginean. Hizkuntza (hots, ahuldutako hiztun-elkartea) ez *corpus*-plangintzak eta ez *acquisition*-plangintzak bere hutsez eta bere baitarik indarberritu dezaketela ikasia dugu gehientsuok, honezkero. Hizkuntza ahulduaren belaez belaez jarraipena bide horietatik bakarrik ezin segurtatu dela ikusirik eta frogaturik daukagun neurrian, ikuspegi global-orohartzaileari eutsi izana soziolinguistika katalanaren bigarren abantailatzat har dezakegu.

- c) *elebitasunaren* kritika zorrotza egina digu hizkuntz soziologiaren eskola katalanak, eta hori ere aintzakotzat hartzekoa da. Lluís Aracilek bere "El bilingüisme com a mite" (1966, gure iturria 1982: 39-57) famatuan esaten duenez "el mite presenta com a indiscutible que el nostre bilingüisme és harmoniós, estable i inamovible"; aurreraxeago, guk ere ondo ezagutu izan dugun gertakaria plazaratzen digularik: "els sues doctrinaries especulatives, que anomeno bilingüistes, són típicament uni-lingües". Elebitasun lasai, xotil, bakezkoaren deskribapen gordina egina digu eskola horrek, gehienon begien bistan (baina kontzeptualizatu gabe) zegoen gertaera bati perspektiba zabal, nekez diskutigarria, erantsiz. Fishmanek Estatu Batuetan, *language shift* delakoaren ildotik eta *bilingualism/diglossia* zatiketa lauokitzaren arabera, argi asko teorizatua zuen dagoeneko elebitasun-molde batzuek zergatik diren, berez eta ezinbestean, egonkortasunik gabeak. Norbanako planoan definituriko elebitasun ezegonkorren formulazio hura Kataluniako eta Valentziako aldeko instantzia intelektual-akademikoetara zabaldu zuten bertako soziolinguista horiek. Eta azkenean, ongi ezaguna den ildotik, gizarte-giroaren hainbat instantzia dinamikotan (soziopolitikazko aldizkarietan, irakasle-giroan) aski arrakasta handiz xertatu zuen ikusmolde hori soziolinguistikazko, moldaera horietariko batzuk, berez eta bere hutsean, egonkortasunik gabeak direla: bai irakaskuntzan (*transitional bilingualism*) eta bai, bereziki, gizarte-bizitzaren luze-zabaleko moldaeran. Guztiok horren jakitun (jakinaren gaineko jakitun, intuizioz argi samar baikeneukan bestela ere hori) egin gintuen eskola soziolinguistikoa katalanak.
- d) Hizkuntza txiki handien (lekuan lekuko hizkuntzaren eta kasuan kasuko *Big Brotheren*) artean ez dago bakezko elkarbizitzarik, hizkuntz *gatazka*, *borroka* edo *konfliktua* baizik. Ez, behintzat, begien aurrean dugun Europalde

honetan. Soziolinguistika katalanean bizi-bizirik dagoen ikusmoldea dugu hori ere, Aracilek 1965ean lehenengoz (67) plazaratu zuenetik hitzetik hortzera erabili dena. Hizkuntz gatazkaren altzoan, bere baitan alegia, sortzen eta garatzen da soziolinguistika katalan askoren ustean "egungo diglosia" (diglosi modu bat, aurrerago azalduko denez). Bilakaera soziohistoriko jakinetan oinarritzen da ikusmolde hau, eta hizkuntza (hiztun-herri) nagusien (dominanteen) eta mendekoen (dominatuen) arteko bereizkuntza zorrotza egiten du, gizarte-egoera osoa (batez ere bere esparru instituzionala) hizkuntz egoeraren definitzaile eta bideratzaile nagusitzat hartuz.

- e) Hizkuntz gatazka orok, azken-azkenean, irteera bi ditu: goazen bidetik aurrera segi, gainbehera alegia, eta ordezkapenaren ildotik hizkuntza txikia erabat galdu (bere hiztunak zeharo akulturatuz).

IV. 3.2. Soziolinguistika katalanaren ikuspegi nagusia

Zer dio, funtsaren funtsean, soziolinguistika katalanak?. Honako hau, nire ustean:

- a) soziopolitikazko esfera ezin da alde batera utzi, hizkuntzen gizarte-egoera aztertzerakoan. Are gutxiago, ahuldutako egoera hori zinez hobetu nahi bada. Aracilen hitzetan esateko (1982: 29), "les condiciones polítiques juguen sovint un paper decisiu, directe o indirecte, en la història dels idiomes". Baiztapen horren lagungarri, *cuis regio eius lingua* moduko egokitzapen ezagunak, eta Nebrijaren *Gramáticako* sarreran hain gotor azaldua dagoen betiko esaldia noski, ugari aurki daitezke formulazio horretan. Detalle kontutik harantzago doa, ordea, eskola horrek esfera soziopolitikoari aitortzen dion garrantzia: "un nombre cada vegada més gran de funcions lingüístiques indispensables a la subsistència d'un idioma – l'ensenyament només n'és la més coneguda – son controlades de molt a prop per l'Estat: i és justament l'Estat qui pot concedir o prohibir als idiomes, directament o indirectament, l'exercici de la major part de funcions "públiques". El fet és que la política domina o mediatiza en una mesura considerable les funcions lingüístiques de la societat, igual que moltes funcions de la llengua. És justament l'Estat qui pot concedir o prohibir als idiomes, directament o indirectament, l'exercici de la major part de funcions "públiques". La política domina o mediatitza en una mesura considerable les funcions lingüístiques de la societat, igual que moltes funcions socials de la llengua." (29 orr.). Politika-mundua alde batera utzita ahuldutako hizkuntza indarberritzen saiatzea ez dela, alegia, batere arrazoizkoa. Mundu horrek bideratzen edota, gutxienez, baldintzatzen dituela espazio soziofuntzional osoko hainbat esparru (publiko-formal-boteretsuenak hain zuzen), eta ameskeria dela horretaz ahaztuta jardutea. Ondorio zorrotza ateratzen du, horretatik, Aracilek berak: gauzak horrela izanik, ahuldutako hizkuntza osabetezko moduan indarberritu ahal izateko, independentzia politikoa eskuratu behar duela hiztun-herri horrek edota, gutxienez, autogobernu maila sendoa. Ongi ezaguna dugu, baieztapen hori ere. Ezin ahaztu liteke, bestalde, egungo Konstituzioak nazionalitate historikoen aipamen zuzena egiten duela eta lekuan lekuko hizkuntzek aitormen zuzena jaso dutela hainbat autonomi estatututan: EAEkoan, besteak beste.
- b) Estatu eleaniztunen kasuan, gainera, borondaterik hoberenaz jokatu ere haserre-biderako okasioa berez bezala sortzen dela dio. *Berez bezala* ez, bide jakinetik baizik: *state-building*, *unifying language* delakoaren alde jokatzeko duela berez estatuak eta, bilakaera horren ildotik, hizkuntz gatazka sortzen dela maiz asko: "els conflictes lingüístics arribin quasi sempre a una politització polèmica, fins i tot (o especialment) en aquells casos en què la igualtat dels idiomes en presència és reconeguda oficialment i respectada formalment (68).
- c) Konponbideak ere, *normalització lingüística* delakoak alegia, instrumentazio operatiboari dagokionez agente-esparrutik etorri behar du hainbatean. Norbanakoon esfortzuak eta eginahal guztiak ondo daude noski; linguisten eta maisu-maistren jardun profesionala ere bai. Baina konponbideak goitik etorri behar du. Ikus dezagun, hasteko, zer den *normalització* hori, eta ikus dezagun gero nork-nola egin behar duen: "La normalització lingüística () consisteix a reorganitzar les funcions socials de la llengua a unes condicions "externes" canviants". Eta aurreraxeago: "la normalització és una veritable macrodecisió que, com per exemple les macrodecisions econòmiques, tendeix a orientar el futur d'una comunitat i suposa l'exercici d'un cert poder. Es comprèn per què la normalització eficaç exigeix, o bé la plena independència política (= sobirania), o almenys un grau substancial de self-government de la comunitat lingüística interessada". (Aracil, 1982: 31-3)

IV. 3.3. Formulazio horretatik jaso/eraiki dugun ikusmoldearen zenbait ezaugarri

Bihotza berotzen dio euskaltzale suharrari, norbaitek garbi esatea *hau* eta *hori* eginaz, eta *borondate politikoa* izanik, aski dela bere hizkuntzaren katramilak behingoz konpontzeko. *Ba zen ordua!* esan ere egingo du, seguruenik, hori entzundakoan. *Hau* eta *hori* zer den ez du agian oso ondo entenditu: "reorganitzar les funcions socials de la llengua" errazago baita jasotzen, hausnartzen baino (hitz *serioak* dira ordea, nolahi ere). Baina *borondate politikoa* zer den inork esplikatuko beharrik ez dauka. Eta azkenean, mila buelta eman ondoren, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko bene-bene-benetan behar dena horixe dela esateko tentazio handia izango du. Hainbat gauza erabakitzen dituen politikak, hizkuntzen nondik norakoa ere bai. Aginpidea eskuratu, lege egokiak (efektiboak, sendoak, bene-benetakoak) ezarri, eta hortik sendatuko da hizkuntza. Legislazioa da, azken batean, ahuldutako hizkuntzak sendatzeko botika. Nork ez du, gure artean, euskararen geroa eta hizkuntz politika zabal-sendo-orohartzailea (edo politika horren falta) elkarren eskutik doazela esan, entzun edo, gutxien-gutxienez, pentsatu? Zenbat aldiz ez da, EAEko hizkuntz politikaz hitz egiterakoan, lege-kontuetara jo? Horrela al dira kontuak? Teoriak zer dio horretaz? Teoriak, teoria ezagun-zabalenak ez du inoiz, dakidalarik, esfera politikoaren garrantzia ezeztatu. Ez soziolinguistikaren aldetik, ez hizkuntz soziologiarenetik. Ez eta, McRaek bezala, Suitzako eta Belgikako, Finlandiako eta Kanadako kontuak berariaz aztertu dituzten hizkuntz politikazko espezialistek. Besterik ere eransten dute ordea: legeen indarra eta eragimena, mintzajardunaren gizarte-moldaearen, hain erabatekoa ez dela: "leges sine moribus vanae".

Ohar eta matiz horiek alde batera utziaz, badira ordea formulazio katalanean bereziki azpimarratu beharreko bi puntu: batetik, luze-zabaleko elebitasuna (praktikan: diglosia) ez da inoiz egonkorra; bestetik, "tarta-erdiak" ez duela balio: tarta osoa behar dela, ezer egitekotan. Ikus ditzagun xeheago, oso garrantzitsuak dira-eta, baieztapen bata eta bestea.

- **IV.3.3.1. Diglosia ez da egonkorra: inestablea da berez.**

Aurrerabide horien ondoan muga-eragozpenak ere baditu noski soziolinguistika katalanak: eskola honek edota, batez ere, eskola horretatik hainbatek (euskaldunok tarteko garela) egin izan ditugun garapen-moduak. Aurreraxeago helduko diegu horiei ere.

Hau ez da soziolinguistika katalan osoaren postulatu. Bai, ordea, erabateko arrakasta izan duen "printzipioa". Bere aita, itxuraz, hainbat aldetatik jakin-iturri fidagarri eta bide-urratzaile sendo den Ninyoles valentziarra dugu. Puntu honetan bistan da, ordea, teori lanaketaren eta erreferentzi markoen prestakuntza-alorrean ohiz kanpokoa den bidetik ibilia dugula. *Diglosia* hitzari bere sortzaile-osatzaile-zabalkundegileek (69). (Fergusonek 1959an, Fishmanek 1964an) eman zioten definizioa nabarmenki bestelakotuz, diglosiaren (luze-zabaleko elebitasun egonkor, funtzionalki konpartimentatuaren) egonkortasunik eza postulatu zuen Ninyolesek (70). Inguruko guztiak ez zituen noski konbentzitu. Aracil batek, adibidez, lehengo lepotik du burua honako hau dioenean: "Rafael Ll. Ninyoles (conflict linguistic valencià, 1969?, etc.) ha improvisat una doctrina que confon indugudament la substitució amb una certa noció de "diglosia" (radicalment diferent del concepte de Charles A. Ferguson), el simplisme efectista de la qual ha fet fortuna en cercles i regions poc avançats. (Aracil, 1982:119). Kontua da euskaldunok "regions poc avançats" ginela orduan (ere), hizkuntz soziologiaren garapen teorikoari dagokionez, eta Ninyolesen "simplisme efectista" hori aski begi onez hartu genuela. Egunen batean argitu beharko dugu hori ere: ez da eginbeharrik txikiena, ez eta geroko geroan utz litekeena ere, arras premiazkoa baizik.

- **IV.3.3.2. "Tarta-erdiak ez du balio; osoa lortu behar da ahuldutako hizkuntza berreskuratzekotan".**
Hizkuntz gatazka da hemen dagoena, eta etsaiarekin ez dago musuka jarduterik!"

Honetaz ez dugu ezer askorik erantsiko. Egileei beraiei hitza ematea izango da hoberena. Ikus dezagun, esate baterako, katalanaren benetako gizarte-egoeraz hain ohar zorrotzak eginak dituzten M. Prats-ek, A. Rafanell-ek eta A. Rossich-ek zer esana duten (1990:23): "La història de les llengües ens ensenya que els conflictes lingüístics es resolen o per la via de la substitució o per la de la normalització. Acceptar, sense més ni més, la realitat actual vol dir negar a la llengua catalana "la integritat o plenitud qualitativa de les seves funcions", significa emprendre el camí que condueix a la seva extinció". Bide beretsutik doa Albert Bastardas (1988: 204 – 5) honako hau dioenean: "els determinants de l'ús d'un o altre caldrà cercar-los en un conjunt complex de factors, entre els quals hi haurà probablement les normes socials actualment predominants, les vehiculades a través del sistema escolar i dels mitjans de comunicació de masses, l'idioma preeminent en les posicions i activitats econòmiques amb mes status, etc." Ondo ulertu-edo ez duenarentzat, horra beste pasarte batean zer dioen (Bastardas, 1988: 192): "l'estabilitat de la comunitat lingüística anteriorment subordinada s'anirà assolint a mesura que la varietat pròpia vagi omplint totes les funcions comunicatives interiors d'aquest conjunt humà, tant en l'esfera pública com en la privada, amb la consegüent retirada de l'idioma allòcton. De fet, amb tota probabilitat, seran els usos lingüístics en els àmbits públics aquells que determinaran a la llarga els usos privats, tal com semblen demostrar, en la història recent, els mecanismes dels processos de substitució global d'un codi per un altre. La continuïtat de la llengua pròpia serà, doncs, aconseguida quan la seva presència generalitzada en les funcions públiques de la comunitat faci innecessari l'ús de l'antic codi dominant i l'idioma autòcton sigui, així, també l'utilitzat amb normalitat en l'àmbit familiar, responsable de la *transmissió* natural de la primera llengua a les noves generacions". Goi-mailako ekimen-esparrua, statu-maila gorenekoa, eskuratu ezean alferrik ari garela, alegia, behe-mailako esparru(txo)ak zaindu nahian.

Ikusmolde hori, indarberritze-saioen osabetezko formulazioa deitu duguna alegia, erraz da Kataluniako bibliografia teknikoan behin eta berriro aurkitzea. Baita Euskal herrian (eta, partez, beste zenbait hiltun-herritan) ere. Ez ote da Eleizalderen 1918ko (hots, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko kongresuan irakurritako) hitzaldi osoa, corpus-plangintzaz ari delarik ere nagusiki, tarta osoaren paradigmaren eratua aldenik alde? Erakarmen bizikoa izan da, dudarik gabe, 1900etik honako indarberritzaile asekorentzat. Amets betezko eredu horrek ere agertuak ditu dagoeneko, eta ez dira nolanahikoak, bere nahi-ta-ezinak. Zer moztade, zer hipoteka edo muga-eragozpen ikusi izan zaizkio instantzia akademiko-intelektualetik? Hori azalduz amaituko dugu, luzeegi ere badoakigu-eta, hirugarren formulazioa.

IV.3.4 Soziopolitika bidezko tarta (demografiko eta soziofuntzional) osoaren formulazioaz egin litekeen hainbat kritika.

Alde batera utziko ditugu, jakina, formulazio horri teoriazko oinarri-bide argirik gabe egin izan zaizkion kritikak; itxuraz argudio-bide teoriko, konstruktua jakinetan oinarritua dutenetara mugatuko dugu azalpen hau. Hona, labur-labur, kontuan hartzekoak iruditzen zaizkidanak erreparoa:

- a) Diglosi-kontuetan asko saiatzen da (batzuetan, ez beti, ikusi dugu nola: diglosi galerari *diglosia* deituz) eta ordura arteko hainbat ikusmolde oker ondotoz zuzenago formulatzen laguntzen du soziopolitikazko erreferentzi markoaz hain interesatua agertzen den eskola hau. Aldi berean, ordea, hizkuntz erabileraren aspektu funtzionalei ez die behar bezalako atentziorik ematen. Hona Georg Kremnitzek, soziolinguistika katalanari hain leku zabala eskaintzen dion espezialistak, puntu honetaz zer dioen (1990:35): "Das diglossische Element des Konflikts wird als extrem sensibel und beweglich herausgestellt. Dagegen scheinen funktionale Aspekte des Sprachgebrauchs weniger im Zentrum der katalanischen Betrachtungen zu stehen: das kann mal eventuell damit in Zusammenhang bringen, daß sich die Frage einer Kommunikationsfunktion des katalanischen überhaupt nicht stellt...". Duda egiten dut, zinez, katalan hizkuntzak funtzio komunikatiboan aldetik gauzak hain konpondurik izatea egia ote den. Ez dut batere dudarik, aldiz, beste hiltun-herri askok (euskaldunok, besteak beste) badugu arrazoirik (eta ez hain txiki, gaindierrazik) gure hizkuntzaren funtzio komunikatiboak dagokionez.
- b) Gehiago ere esaten du Kremnitzek: bere analisi, kezka eta asmo makrosoziologiko horretan murgil eginda dagoelarik mintzajardunaren bertatik bertarako dimentsioa (gure artean hain funtsezkoa den norbanakoaren *noiz-non-zer* delakoa bereziki) begien bistatik galtzen-edo duela. Berriro ere bere hitzetan esateko (Kremnitz,

1990:35): "Schließlich erfährt das Konfliktmodell zwar gesamtgesellschaftliche Erscheinungen recht genau, widmet jedoch dem einzelnen Sprecher und seinem Verhalten nur ein relativ geringes Interesse".

- c) Fishmanen eta, oro har, hizkuntzaren anglosoziozia estabiezituaren aldetik ere ez zaizkio ohar kritikoak falta. Ohar horiek ez dira inola ere, egia da hori, berariaz eta huts-hutsik soziolinguistika katalanari zuzenduak. Bai, ordea, makro-mailako helburu zabalak ezartzen dituzten eta gero, horren ordainetan, botika konkretu-erabilgarri-kontrastaturik eskaintzen ez duten formulazio gehienek. Hots, gehien-gehienok (munduko borondaterik onenaz baina ezagutza handirik gabe) egin edo gogo biziz onartu izan ditugun formulazio gehienek. Tarta osoaren formulazioari ere bai, hortaz. Hona Fishmanek zer dioten (2001:13), benetan behar duguna *demographic strength, institutional support eta more status* dela dioten formulazioei buruz (71): it is () vacuous to suggest that the speakers of threatened languages should be "larger in number", "should establish" more and stronger language supporting institutions or should provide their language with more status. It is of no help to tell a patient that he should attain health by getting better, or that he should get better by being healthier. These are redundant and non-operational bits of advice. Such advice is impractical or non-operational. It is also non-theoretical insofar as it posits no priorities, establishes no request or linkages between events and provides no differential weights to the factors being highlighted, nor any explanation why other factors are being ignored (e.g. geographic, economic, linguistic, political and so on). Formulazio antzuak direla horiek, alegia. Iturri horretatik ez dugula gure egarria asebeteko.
- d) Norberaren uste-aburuak azaltzerik bada, hain lagunarte dotorea hurbilduz, zera esango nuke mende-laurdeneko gogoeta-lan aplikatuaren ildotik. Kataluniarako (orain dela 30 urteko Katalunia hartarako) agian egokia izan zitekeen konstruktua urruti, oso urruti gelditzen dela euskaldunon benetako behar, ahalmen eta jokabideetatik: bai instituzionaletik, egungo egunean dugun (eta begien bistako etorkizunean daukagun) gizarte-moldaera eta erabakimen-esparru nagusietako jokaera erdararen gainean eraikia baitago; baina baita, agian horren aurretik, gure artean aspaldidanik gailendurik dagoen mintzajardunaren gizarte-moldaera nagusitik ere. Gora begira, begiak luze-luze eginda, egon gaitzek noski, beste mende-laurden ere, Avenidako bankuetxeen bulegoak noiz euskara betean lanean hasiko diren. Noiz lurrera begiratu behar dugu ordea, eta mende luzez (diglosi-molde jakinez) bizirik irauten eta bere buruari (espazio ziofuntzional hurbil, eguneroko, nagusietan) zutik eusten jakin duen konstelazio etnolinguistikoko osoa bere transmisio-gune oinarri-oinarrizkoetan zartatzen ari dela asumitu behar dugu? Asumitu eta, jakina, dagozkion ondorioak atera eta aplikatu. Zenbatek gogorazi behar digu behin eta berriro, Altuberen garaitik hasita gutxienez, etxe-giroa eta auzoa, lagunarte hurbila eta kale-bizitza arrunt, egunerokoa galtzen dugun neurrian atzeraka ari garela, ez aurreraka, nahiz eta goi-mailako funtzioetan (Administrazioan, irati-telebistetan, eta bereziki irakasmunduan) inola ez gaitzestekoak ez diren aurrerapen(txo)ak egin? Ez al dugu ikusten bodegatik ari zaiola gure itsasontziari ura sartzen, zorrotada betean sartu ere, goiko leihoetatik eta kubiertaren zirrikietatik baino? Kontuz ordea, nolanahi ere, hain afizio handia dugun pendulu-kolpearekin. Soluzioa ez da (katalanek eskainitako hainbat argitasun ederri eskerrak, besteak beste) aurrera daramagun ibilbideari 180 graduko jirabuelta ematea. Bai, aldiz, *first things first* ikuspegiaren ildotik *hemen* eta *orain* ditugun baliabide konkretuekin *hemen* eta *orain* ahulagotzen gaituzten arazo nagusiei ongienik nola aurre egin adosten saiatzea baizik.

IV.4. Community fostering: hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hitzun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea.

J.A. Fismanek, 1991n, *Reversing Language Shift* eman zuen argitara. Liburu horren ardatzari deitu diot nik hemen, labur beharrez, *community fostering*. Aurrekoetan ez bezala, neuk aukeratutako izendapena da *community fostering* hori: han-hemengo bibliografia teknikoan ez da inon, dakidalarik, horrelako terminorik erabiltzen. Neuk aukeratua diot, halere, ez neuk sortua. *Community*-giroa indartu, osatu eta zabaltzeaz dihardu izan ere Fishmanek, behin eta berriro, 1991ko bere liburuan eta iaz (2001ean) haren osagarri-edo, argitara duen talde-lan berrian (72). Neurritz zabal doan txostenean, atal honi heldu nahi niokeen berariaz. Gaurkoan ezingo da izan, ordea. Oraindik aspaldi ez dela azalpen luze samarra egina dut Fishmanen RLS (euskaraz HINBE: HIZkuntza INdarBERritzea) hurbilbide teorikoaz, eta hara jo beharko du oraingoz, modurik balego (73), horren bila dabilenak. Oraingoan, hortaz, RLS horren zenbait zertzelada eskaini besterik ez dugu egingo.

IV.4.1. Zer da, funtsean, HINBE edo RLS delakoa?

Errazenetik hasiko natzaizu: zer ez den esatetik, alegia. Bai 1991n, eta bai berrikitan (Fishman, 2001), gai horretaz bigarren liburua argitara eman duenari, ordura arteko hainbat formulazioaren kritika egina du: bai *acquisition planning* delakoarena eta bai *osabetezko* (goranahiko) *status planning* distiratsurena. Zer kritika-modu egiten du, funtsean, Fishmanek? Besteak beste, honako hauek:

- a) nora joan nahi dugun argi ez jakitea edota jendeari argi ez azaltzea: *ideological clarification*, hori dela-eta, oinarri-oinarrizko eginbeharra iruditzen zaio berari. Egin behar dena eta egin litekeena, garenak garelarik, aztiago aztertzen eta informatuago (hots, ahalik eta teori oinarri hobereenaz) planteatzen ikasi behar dugula. Beste kontu bat ere bai, ideologiazko argitze-saioei dagokienez: konbentzituak (euskaltzale sendoak) konbentzitzen edo bihozberotzen denbora eta esfortzu gehiago gastatzen dugula, gainerako erkideen kritikak jasotzen eta elkarbide adostuak finkatzen baino. Hori guztia behar-beharrezkoa dela dio berak, aurrera egin nahi bada.
- b) Horren ildotik dio hitzun-herri txiki-ahulduak, txikiak eta ahulak direlako hain zuzen, konfrontazio-bidearen ordeztu hitzarmen-bidea landu behar dugula ahaleginean. Hala ere izango ditugula makina bat motibo, haserrebidetara eramango gaituztenak. Ez ametsik egiteko ahuldutako hizkuntzen indarberritze-saioa, dituen inplikazio soziokultural, ekonotekniko eta politiko-operatiboengatik besteak beste, armonia osoan eraman litekeen horietarikoa denik. Dezakegun guztian hitzarmen-bidetik jo behar dugula ordea, nolanahi ere.
- c) Goitik behera (Administrazioetik, han-hemengo agente-esparru eta erabakiguneetatik) herritarrengana egin litekeena ez dela gutxi, ahuldutako hizkuntzak indarberritu ahal izateko. Hori ezin izan litekeela, ordea (ez normalean, behintzat), HINBE saioaren ardatza eta bizkarrezurra: ez bakarrik behintzat. Elkarrengana bilduz, indarrak elkartuz, behetik gora eta enbor-muinetik azalera joango den saioa izan behar duela funtsean, beste hainbat *social movement*-en antzera, HINBE saioak ere. HINBEzaleen (gurean: euskaltzaleen) dedikazioa eta esfortzua, ilusioa eta *asto-lana* behar-beharrezkoak izango direla beti, onenean ere, ahuldutako hizkuntza indarberrituko badugu.

- d) Lehenetasunen azterketa xehea egin behar duela etengabe HINBEzale-jendeak, beren itsasontzi hori (cf. Ulibarri) bide onetik doan ala ez jakiteko. Eta nola jakingo dugu indarberritze-saioa bide onetik doan ala ez? Non dugu iparrorratza, gure ontzia aurrera (eta begiz jotako portura) doan ala ez jakiteko?. Zer irizpide erabiliko dugu, kontuak ateratzeko? Oraintxe iritsi gara, Fishmanen konstruktorearen bihotzera. Bere birtualidade eta moztade nagusiak bere baitan dituen kriterio zorrotzera: (ama-)hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtatzen duen normalkuntza-programa (eskola, komunikabideak, auzogintza,..) ona da. Zenbat eta neurri beteagoan segurtatzen duen ahuldutako hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-jarraipena, eta zenbat eta jarraipen-efektu hori denbora-luzapen (urte-atzerapen) txikiagoz iristen den, hainbat eta hobea da ekintza-molde hori. Aitzitik, belaunez belauneko jarraipen-katean eragiten ez duten indarberritze-saioak (orobat oso zeharka, oso ahul eta oso berandu eragiten dutenak) ez dira onak. Hori da bere printzipioa. Mila ohar osagarri, emendiozko mila kontsidero onartzeko prest agertzen da Fishman beti: muin-muineko irizpide horretatik, ordea, ez zaizu zentimetro bat aldenduko.
- e) Dagoenari eustea baldin bada lehenetasun osozkoa, bistan da euskaldunek euskaldunekin partez edo osoz euskaraz jarduten duten (eta, gauzak txukun antolatuta, jardun dezaketen) espazio geografikoak eta soziofuntzionalak izan behar ditugula langintza osoaren bihotz eta hauspo: herri (eta, ahal den neurrian, eskualde) euskaldunak (gehienak euskaldun izanik euskaraz jardutea arau nagusi edo, gutxienez, ohargarri den horietarikoak alde batetik. Bestetik, berriz, euskarak betidanik bereak izan dituen etxea eta familiartea, auzoa eta kale-giro arrunta, ohiko kultur bizitza eta lan-mundu hurbila.
- f) Horiek zaindu eta osatu, zabaldu eta aberastu egin behar dira Fishmanen esanean. Horretarako guztirako, jakina, lekuan lekuko eta kasuan kasuko ekintza-moldeak antolatu, babestu eta aitzinatu behar dira. Goitik beherako plangintza orokor, bakar, erabatekoaren zain dagoenak jai du. Zabaltze-osatze horiek ere ikuspegi demoterritorialetik zein soziofuntzionaletik egin behar dira, bere buruari eutsi diezaioketen eta belaunez belauneko jarraipen-bidearen indargarri izango diren neurri konkretuen ildotik. Ikasle erdaldunen euskalduntzea ere, haur eta gazte, ikuspegi demolingüistiko-territorial horretan txertatzea komeni da.
- g) Munduko eskualde modernizatueta hiztun-herriek (euskaldunok, adibidez) behar-beharrezkoa dugu gure hizkuntza, hitzez ezezik, idatziz ere erabiltzen jakitea. Hitzez eta lumaz jarduten jakite horrek aukera eroso ematen digu gure arteko harreman-sare "berriak", supralokalak eta birtualak, eratze eta probetxuz erabiltzeko. Euskal eskola eta euskaltegiak beharrezkoak dira, hortaz, azken bi puntuon ildotik. - h) Lan-munduan ere euskarazko jardun-esparruak eta harreman-sareak eratzea garrantzizkoa da, horiek guztiak neurri eta probetxuz antolatzerik baldin badago. Bai ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenari partez behintzat lagundu egin diezaioketelako eta bai, bereziki, euskararen reward system osoari egungo egoera desorekatu horretatik egoera orekatuagora eramaten lagun diezaiokeelako.

IV.4.2. Zer dio Fishmanek, *huntaz eta hartaz*?

Hona hemen, eskura etorri ahala, oraindaino esandakoaren ildotik iazko argitalpenean, 1991koaren osagarri edo bermagarri, Fishmanek egiten duen zenbait baieztapen:

- a) lehenetasunak lehenetasun dira, hemen eta nonahi.

Fishmanen gogoeta-gai zentrala da zinez, behin eta berriro gogorarazi ohi diguna, lehenetasun-kontu hori. Ikus dezagun, adibidez, ondoko pasarte hau: "Resources available to threatened languages are often quite meagre and constantly fewer (). Resources must be used sparingly ^{neurritz} () (and) tellingly ^{eficazmente}, i.e. IN CONNECTION WITH GAINING OR SECURING FUNCTIONS THAT ARE BOTH CRUCIAL AND DEFENDABLE. Promises of assistance from outside () necessarily come at a price. An initial policy decision () is not to accept (or, at least, not to depend upon) outside support and to undertake only the most crucial efforts that can be independently conducted and maintained."

Ditugun (eta, onenean ere, izango ditugun) baliabideak (jendea, diruz, antolamenduz eta materialez) mugatuak direla berez. Eta baliabide horiek, beraz, neurritz eta etekin hobereenez erabiltzen ikasi edo asmatu behar dugula. "Hau eta hori eta beste hura" izango bagenu zer euskalgintza-modu antolatu ahal izango genukeen formulatzen jardutea ihesbidea dela, neurri ohargarrian. Amets egitea ez dela debeku, baina indarberritze-saioak ez direla ametssezko formulazioetan oinarritzea komeni. Unean uinea egunean *benetan zer egin daitekeen* zehaztu behar dela argi, eta egin litezkeen gauzen artean lehenetasunak ezarri behar direla, funtsezko ekimenak garrantzitsuetatik bereiziz, garrantzitsuak interesgarrietatik eta azken horiek denbora-galtze hutsa baizik ez dakartenetatik. *Hemen eta orain egin litekeena* diogunean *geure kabuz eta geure baitarik egin dezakeguna* esan nahi da: bestek eman gabe, eta besteren esanera jarri gabe hortaz, egi litekeena: beregaintasunez jokatu behar duela, alegia, HINBE saio orok!

"There are two key words in the above formulation: "independent" and "crucial". Crucial implies an ability to identify the function(s) that can be regained at any particular time, (something that the demography-institution-status blunderbuss does not do), as well as to link any other functions that are already operative to the crucial one(s) by means of a feed-back system. Aurrekoa garbi ulertu delakoan, azken puntuari helduko diogu soil-soilik. Feed-back system hori zertarako?: to overcome tendency of threatened language functions to become compartmentalised. Home-neighborhood-community-intimacy functions in threatened languages are not necessarily assisted via mass-media programmes in such languages. Mass-media efforts (gutxi eta ahulak izateaz gainera) are often not consciously and conscientiously linked reinforcing home or school language functions. Primarily, school language efforts are often not linked to home-family-neighborhood-community functions. Threatened languages cannot afford functionally diffuse or free-floating efforts." (Fishman, 2001: 13-14). Horra, besteak beste gure euskal eskolak bere baitan izan dezakeen etekin-galera handi baten (ez, noski, bakararren: cf gorago, *reward system* delakoaren ildotik, esandakoak) zergatikoa azaldu. "Nik nere klaseak ematearekin kunplitzen diat. Hortik aurrerakoak hor konpon" printzipioan oinarritutako euskala kamutsa, oso kamutsa gerta litekeela alegia, hemen eta beste nonahi, ahuldutako hizkuntza indarberritu ahal izateko. Eskolagintza osoa auzogintza, herrigintza edo gizartegintza osoaren ikuspegian txertaturik planteatu behar dela, eta eguneroko jardunean hezurmamitu, itxurazko etekinik aterako bada.

- b) Hiztun-herri txikion etorkizuna, ia beti, eleaniztuna eta kulturantzuna izango da. Elebakartasun territorial erabatekorik nekez, oso nekez, gu bezalako hiztun-herri txiki-ahul batek inon (Europa moderno, interaktibo, supraetniko honetan inon baino gutxiago agian) eskura dezake. Geure asmoak eta atsegin-bideak beste enfoke global-gizatiarrago batean txertatzen eta aberasten ikasi behar dugu hortaz (Fishman, 2001: 17): "A continuing ethnohumanistic, ethnoreligious and ethnocultural constellation of beliefs, behaviours and attitudes. Only such a constellation will ultimately provide a rationale going beyond the economies of scale inherent in the materialist view of those who have essentially concluded that 'if you can't beat them, join them'. It is only the conviction that one's own language-in-culture is crucially different and, therefore, worth sacrificing for ("vive la difference!") that makes RLS worthwhile, though in the great majority of cases it means embarking on a carefully multilingual and multicultural existence for the foreseeable future. Although this may be considered a defeat by some RLSers, there is also good reason to consider it an honourable, enriching and constructive solution to the multiple ethnocultural identities which most modern human societies and individuals are increasingly destined to enact as an inevitable consequence of the complexity of ongoing globalisation."
- c) Funtsean, eta luzera begira, bere buruari eutsiko dion euskalgintza eratzen asmatu behar da. Oinarri sendoenak non ditugun jakin behar da horretarako, lehenik eta behin, gure ekimen osoa belaunez belauneko perspektiban txertatuz: "to build institutions without foundations, as well as institutions that must constantly be revitalised anew (behin eta berriro hutsetik hasi ordez) generation after generation, rather than instituting any self-priming *intergenerational momentum* (impulso, empuje, ímpetu; belaunez belauneko abiadura indargarria)" (Fishman, 2001)

Aski izango dugu honekin, hala uste dut behintzat, eskuartearen genuen azalpen-saiorako. Hiru puntu falta dira, konturatzeko naiz ongi asko, panorama osatzeko: batetik, indarberritze-eredu honek eskolagintza osoa nola ikusten duen, zer kritika egiten dizkion eta zer hobekuntza-bide proposatzen dituen azaltzea. Bigarrenik, HINBE edo RLS osoa (ez eskola alorrekoa bakarrik) nola hezurmamitu litekeen zehaztea (Fishmanen auzogintza, *community fostering* osoa hor probatu, konprobatu eta balioztatu beharko da). Azkenik, HINBE-RLSri han-hemen egin zaizkion kritikak eta guk geuk, geure mugatuan, egingo genizkiokeen osatze-proposamenak azaltzen saiatzea. Gehiegi da ordea hori, egun bakarrerako, eta hurrengo batean beharko du. Badaukagu zertan jardun, nolanahi ere, egungo egunean nagusiturik dagoen giro honetatik atera eta ikuspegi zabal-sendoxeago batera iritsi nahi badugu. Badugu zerbaiten beharra.

(MIKEL ZALBIDE Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zebitzuaren burua da)

Idazlan honi buruzko [informazio gehiago HEMEN](#)

Oin-oharrak:

(1) Aipamen zuzena in Fishman (1974:15)

(2) Egia osoa esango badugu, eta hala esan behar dugu noski, euskaltzaleon ekimen-zaletasun hori ez da gure kontua bakarrik. Gainerako hiztun-herri ahulduetan ere aski ezaguna da, aspaldixodanik, hizkuntzaren aldeko bihotz-berotasunak indarbetean bultzatu ohi duen jokamolde hori. Funtsean, badirudi ondoko irizpide honek garamatzala guztiok aktibismo-joera horretara: "let's try everything we possibly can and perhaps something will work" (Fishman 1991: 1).

(3) Oker ez banago Einar Haugen norvegiar-amerikarra izan genuen, 1966an, izendapen hori ingelesezko mundu akademikoan lehenengoz zabaldu zuena. Ordukoak ditugu, izan ere, bere bi idazlan hauek: a) "Linguistics and language planning" in *Sociolinguistics*, W. Bright (ed.)(The Hague: Mouton), 50-71 b) *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian* (Cambridge: Harvard University Press) Sortu-sortu, lehenxeago sortua zuen ordea *language planning* terminoa: itxura denez 1959an, honako txosten honen bidez: "Planning for a standard language in Norway", *Anthropological Linguistics* 1 (3), 8-21 orr.

(4) *Indarberritu* edo *indarberritze* delako hori ez da, bestalde, txosten honetarako edo egungo soziolinguistikazko azalpenetarako berariaz sortu dugun hitza. Aitzitik: aspaldiko hitza da euskaraz (*azalberritu*, *zahalberritu*, *biziberritu*, *ileberritu* eta beste hainbaten moduan). Eta ez hori bakarrik: azken mende-erdi honetan bederen, soziolinguistikazko esanahi horretarakoxe erabili izan da. Ikus, besteak beste eta hurrenez hurren, Plazido Mujikaren eta Koldo Mitxelenaren azalpen jakinak (in OEH, IX, 356 or., *indarberritu* sarrera). Antzeko, oso antzeko, kontua esan liteke *biziberritu*, *-tze* hitzaz, erdal bibliografia teknikoan luze-zabal dabilen revitalization horren pare-parekoa iruditzen zaidanaz.

(5) 41. Oso kontuan hartu behar genituzke, azkenik, bibliografia teknikoan sarri agertzen diren kontzeptu aurkariok: *language maintenance* (preservation) eta *language shift* (loss).

(6) *Antzua* diogunean, ondo uler bedi: intuiziozko deskribapen-bide hori luze-zabaleko aplikazio-indarrak gabea, iragarmenik gabea edo oso iragarmen ahulekoa dela esan nahi dugu. Ez, jakina, gutako edonork begien aurrean ikusten duen gertaera jakinaz eskaintzen dugun deskribapen konkretua berez okerra denik.

(7) Mirestekoa ere bada, bihotzez eskertzekoa izateaz gainera, "Txepetx" batek gure artean, mende-laurden luzez, ia bakarka egindako bidea. Txosten hau ez da ordea, esandakoaren ildotik, bere azalpen horien sintesi-lekua.

(8) *Minority language* hori ere, beste hainbat bezala, ez dute espezialista guztiek esanahi berarekin erabiltzen. Ikus ditzagun honako bi adibideok, diogunaren frogagarri:

1. "langue utilisé par un groupe qui est dans une position de hiérarchie sociale inférieure ou encore langue qui a un statut politique ou culturel inférieur à celui d'une autre langue de la communauté". (Hamers eta Blanc, 1983: 454).
2. By minority language I mean one with a relatively small number of speakers living within the domain of a more widely spoken language, whose knowledge is usually necessary for full participation in society (Romaine, 1994: 35).

(9) Kopuruz txikia izatea (bera baino zabal-handiago, eta kontestualki bertako(tu)a den besteren baten aldean txikia, berezko ezaugarri finkoa da minoria guztietan. Statuz sozialaz, kulturalaz eta politikoaz ezin da, aldiz, beti eta nonahi berdin balio (izan) duen ondorioz atera: Hego Afrikako Boer direlakoak, edo hispanoamerikano (batez ere Ertamerikako minoria *criolloak*) ez dira normalean posizio sozial subordinatuko adibideak (cf. honetaz, besteak beste, E. Montaner in Bastardas eta Soler, 1988: 16-7). L eta H ikurrak, Fergusonen garaitik hasita, hizkuntza baten *Low* (behe) eta *High* (goi) barietateak edo aldaerak adierazteko erabili ohi dira maiz asko. Denborarekin alde batera utzi izan da, halaz ere, L eta H horiek hizkuntza beraren aldaera izan beharra: dominant eta dominated language delakotik hurbil dabil gaur egun, zenbait aldetatik, L eta H arteko zatibiketa hori. Izatez ez da, ordea, gauza bat eta bera.

(10) Gogora ezazu, adibidez, eguneroko gertaera xumea: erosi berria duen autoari aseguruia egin dion zure adiskideak, bere etxeko (kale-giroko, eguneroko) euskaran ari delarik, halako batean eta mintzagaiak hartaraturik, *code-switching* delakoa egiten dizu: "erderaz esaten dan bezela, tiene mayor cobertura contra terceros y, además, te permite modular la franquicia a todo riesgo: o sea que azkenean hori hartu diat".

(11) Kasu honetan arrazoi doble ere izan dezake kexugileak: *hizkuntz ordezkapena* hor geneukan lehendik, esanahi berberaz edo antzekoaz.

(12) Bateko zein besteko kriptotalak salbu, jakina. Kriptoerabilera horrek berak garbi azaltzen digu, dena den, bai berak begiz jotako irakurle-sailaren zatibiketa eta bai hizkuntza bien arteko konpartimentazio soziala luze-zabaleko fenomeno zela euskaldun ikasien artean.

(13) Erramun Bachoc-i jasoa diogu izendapen hau, aspaldi ez dela. Egunen batean zehatz azaldu nahi nituzkeen motiboengatik egokiago iruditzen zait, ordea, *hiztun-elkarte*.

(14) Kontura gaitezen *hiztun-elkarte*az eman berri dugun definizio hori gorago, lehen hurbilketa gisa, eskainitakoa baino zabalagoa dela berez. Bestalde, ingelesezko azpi-terminoen euskal ordainei dagokionez ezinbestekoa gertatuko zaigu *hiztun-elkarte* zabalago hori azpimultzo txikiagoetan bereiztea. Honela, batetik hiztun guztien osotasun-multzoa (*hiztun-elkarte* edo, bere proiektio etnoterritorialean, *hiztun-herria*) izango dugu, bestetik esparru fisikoaz edo soziofuntzionalaz nabarmentzen diren *hiztun-taldeak* eta azkenik, are maila mikrosoziologikoagora jaitsiz, euskarazko *hiztun-sare* mugatu, unean unekoak. Aztertu nahi dugunak, eta hartarako behar dugun kontzeptu-tresneriak, eramango gaitu halakoetan terminologia zehatzago horretaz baliatzera. Ez gaitezen, ordea, itsu-itsuan punta-mutur batetik bestera pasa: zenbait kontu argitzeko ez dago izan ere, gehienetan, ezer asmatu beharrik; *hiztun-elkarte* edo *hiztun-talde* modukorik erabili ordezkari gure talde-izaera eta hiztun-multzoa adierazteko ez dago eguneroko hizkera lasaian asmakizun horietara jo beharrik; aski dugu halakoetan, eta egokiago ere bai noski, lasai-lasai *euskaldunak*, *euskaldun-jendea* edo *euskaldungoa* esatea.

(15) Euskarazko termino hau, oker ez banago, M. J. Azurmendik eta Txillardegik erabili zuten lehenengo aldiz, orain dela hogeitun urte, UZEIren Hizkuntzalaritza hiztegian (407 or.). Testuingurutik ez dago argi, halere, egileek *language community*, *language group* edo, soil-soilik, *speaker population* adierazi nahi zuten. Bigarren esanguraz erabiltzen dut nik, azken urteotan, *hiztun-talde* terminoa. BAT aldizkarian ere antzeko esanahiaz erabilia ikusi berri dut.

(16) Hiztun-taldearen eta hiztun-elkarte osoaren arteko mugak, batez ere, ez dira beti-beti argiak izaten. Modernizatu aurreko gizataldeetan, bereziki, joera handia ageri izan da etnolinguistikazko *gu izate* hori aurrez aurreko edo esparru hurbileko harreman-sareetara mugatzeko. Benetako *uskaldunak*, *uskaldun-uskaldunak* nolabait esan, garai bateko xubertarren ustean beraiek (eta beraiek bakarrik) ziren. Gainerakoak, mugaz haraindikoetan, *manexak* ziren itxuraz. Mugaz honakoak nola ikusten ote gintuzten?. Ikuspegi lokal, aurrez aurreko mintzajardunera mugatu hori ez da gainera, inola ere, Zuberoako kontu hutsa izan. Adibide ugari dago, han-hemen jasorik baina lanketa sistematikoaren zain, ikuspegi horren lekuko.

(17) Badakizu noski, *belaun* hitzak generación esan nahi duela euskaraz, aspaldidanik gainera, *rodillaz* gainera. *Belaun*ez *belauneko jarraipena*, hortaz, *intergenerational continuity* dugu.

(18) Etxean ikasten ez den hizkuntza oro ez da ordea, inondik inora, hizkuntza hila. Hiztun-elkarte batean gaztetan, liburutik edo beste nolabait, ikasten den ingeleza, eta horren parekoak, umetatik ikasiak ez diren gizarteetan *additional languages* deitu ohi dira. Ingelesa ez da ordea, berez eta nonahi, *additional language*: ama-hizkuntza bizia da, inon bizirik bada, Britainia Handian, Irlandan, Estatu Batuetan eta beste zenbait eremutan. Horrezaz gainera, ez horren ordezkari, da ingeleza *additional language* edo *gehigarritzko hizkuntza*. Etxetik kanpora gehigarritzko hizkuntza moduan funtzionatzen duen ingelesari, eta horren antzeko beste zenbaiti, *languages of wider communication* (LWC) esaten zaie bibliografia teknikoan.

(19) Egia da bai Jose Luis eta bai, berrikitan, Charo ingeleza ikasten ibiliak direla. Ikasi duten ingeles-apurra postizoa dute ordea: *additional language* bidean doakeen lehen hurbilketa. Hitzetik hortzera ateratzen zaiena, ehunetik ehun, umetan ikasi zuten Erriojako gaztelania (telebista eta periodiko, publizitate eta novela bidez osatu-zabaldun-neutraldua) da.

(20) *Ondo baino hobeto* horrek, xeheago aztertutik eta esan berri dugunaren ildotik, zeresan ugari emango liguke noski: amaren aldeko aitona-amonekin sarri izaten direnez, berdintsu zaie *muy bien* ordez *mucho bien* esatea, eta *tres* ordez *tties*. *Ondo baino hobeto* dakitena ez da gaztelania bere osoan, Logroño aldeko gaztelaniaren etxeko hizkuntz aldaera zabalduena baizik. Hizkuntza horren berorren erregistro-aldaera jaso-formalak ez dira oraindik, ez Sonia eta ez Roberto, osorik bereganatzen ari: eskolak eta, hartara iristen badira, unibertsitateak gehi jarduera-esparru jaso-formaletako harreman-sareak berak eskuratuko dizkiete, aparteko eragozpenik gabe, osagarritzko (eta prestijioz hornituagoko) aldaera jaso-formal horiek.

(21) "Bete-betea transmititze" horrek ez du esan nahi, jakina, belaunaldi batetik hurrengora inolako berrikuntzarik gertatzen ez denik hiztun-taldeetan. Zauze seguru Soniaren eta Robertoren gurasoek ez zutela umetan ikasi "qué guachi!" esaten, eta aitona-amonek are gutxiago "la problemática actual"-ka hitz egiten. Ezin da ahaztu, gainera, haurren portzentaje jakin batek (%10 inguruk) era bateko edo besteko mintzaira-arazoak (afasiaz eta gainerakoak) izan ohi dituela edozein hiztun-elkartetan. Bere berrikuntza eta mintzamenezko arazo guztiekin ere jarraipena da nagusi, zabal eta sakon, Logroño hiru belaunaldi horien mintzajardunean.

(22) Logroño *elebitasunik eta diglosiarik gabeko* eredura ekartzen dugunean, Fishmanen atal-zatitze laukoitzaz ari gara noski. Eta hor ere, esan bezala, matiz-ñabardura ohargarriak erantsi beharko genituzke. Hor bailegoke, alde batetik, H. Klosek *endoglosia* deitu zuen fenomeno, Logroñon erabiltzen den gaztelaniak bere baitan dituen barietate-aldaeren erreperitorio-bilduma jasotzen duena. Hor dago orobat, oso era llabur-mugatua bada ere, ingelesa, *additional language* moduan, Logroño hiru zenbait erabilera-esparrutan eskuratzen ari den presentzia.

(23) Horretaz informazio tekniko zehatza nahi duenak ikus beza, adibidez, Ramirez (2000). Ingelesak, pilipinoak eta espainolak Filipinetan bizi duten egoeraz, bestalde, Bonifacio Sibayan-en azalpen klasikoa aski hurbilpen argigarria genuke orain ere, hoberik ezean.

(24) New Yorkeko 900.000 portorriqueñoen egoera soziolinguistikoaz, batez ere, oso azalpen zehatzak daude eskueran. Ikus, besteak beste, Fishman et al (1971), Zentella (1997) eta Garcia et al (2001).

(25) Hizkuntza bat osasunez makal dabilela diogunean, funtsaren funtsean beste zerbait esaten ari gara: bere eguneroko mintzajardun arruntean hizkuntza horretaz baliatzen (baliatu izan) den gizatalde etnokultural jakina estu eta larri dabilela, bere autorregulazio soziokulturalari eutsi ahal izateko. Estu eta larri dabilela, konkretuki, inguruko soziokultura nagusi batek (*Big Brother* batek edo batzuk) aski mendean hartua du(t)elako eta bere ibilbide soziohistorikoan (tradizioa eta modernidadea etengabe uztartuz doazen bilakaera horretan) "bere bidetik" jarraitzeko arazoak dituela; bere ontziaren lemari eutsi ezinik ari dela. Hori guztia horrela izanik ere, normala eta arrazoizkoa da gizatalde etnokulturalen osasunaz hitz egin ordez kultura horien zati, adierazpide eta ikur diren hizkuntzez hitz egitea. Halaxe egingo dugu guk ere, erraztasunaren amorez, esanahiaz jabetzeko aparteko eragozpenik ez dagoen guztietan.

(26) Gaztelaniazko hiztun-elkartea aski osasun onean dago, bere (300 edo 400 milioi hiztunak) osoan hartuta. New Yorkeko edo Filipinetako hispanoen hiztun-taldeak, aldiz, ez.

(27) Gipuzkoa diogunean litekeena da gehiegitxo jeneralizatzen ari izatea. Bilintxen eta bere garaiko hainbat donostiarren euskaltasun biziak ez gintuzke panorama osoa sinplifikatzera eraman behar. Donostiako (eta, agian, Irungo) etxe-giroko eta kale-bizitza arrunteko erabilerari dagokionez, euskararen egoera atzerantzko bilakaera nabarrian abiatua zen, dagoeneko. Ez, ordea, probintzian oro har.

(28) *Etnolinguistikazko bizitasuna*, testuinguru honetan, jatorrizko *ethnolinguistic vitality* ezagunaren euskal ordaina duzu (cf. Giles, Taylor eta Bourhis, 1977). Gurea bezalako hizkuntzen osasun-maila neurtzeko azken 25 urtean sortu diren ereduaren artean berau izango dugu, Fishmanen formulazioez aparte, mundu zabalean ezagunena.

(29) Ikus, adibidez, T. Lee eta D. McLaughlin in Fishman, 2001: 23-43.

(30) Adin batetik gorakook ("hi ere hasi haiz, Mikel, zaharren moduan hitz egiten") gogoan izango dugu bertako aurrezki-kutxa batek, orain dela hogeita bost urte, euskaltzale-jende punta-puntakoaz eratu zuela urte hartako egutegia eta, hilabete batean, Mitxelena ageri zela berak aukeraturiko esaldi labur batekin. Honela zioen esaldiak: *katea ez da eten*.

(31) Erabilera-esparru eta harreman-sare batzuk beste batzuk baino erabakiorrago dira, ahuldutako hizkuntzaren hil ala biziko kinka larri horretan, alde batera edo bestera eragiteko. Baieztapen hori ez da, berez, galbidean barrena linburtutik dauden "hizkuntzatxo txiki-ahul horien" berariazko ezaugarri, munduko hizkuntza guzti-guztientzat berdin balio duen printzipioa baino. Berdin du beraz, alde horretatik, bizirik eusten lagundu nahi duguna Arizonako navajo-hizkuntza, New Yorkeko yiddish judeo-eslavo-germanikoa, Zelandaberriko maori polinesioa, Kanadako (zer esanik ez Estatu Batuetako) frantsesa, Belgikako flandriera, Suitzako italiarra, Hego Tiroleko (Adigio Goiko) alemana edo Finlandiako suediera izan.

(32) Ezagutzen dudaz azken kontaketa arabera, (Crystal, 1999) 51 hizkuntza gelditzen dira munduan, hiztun bakarra dutenak. Eta badira beste 500 inguru, 100 hiztun baino gutxiagokoa bakoitza. Munduko hizkuntza guztien % 96, kontaketa honen arabera aski txikiak dira: beren hiztun guztiak batuta, munduko biztanle guztien % 4 osatzen omen dute. Edota, beste era batera esanik, hizkuntza guztien %4k (hots, 200 bat hizkuntza nagusiek) munduko populazio osoaren %96 eratzen dute.

(33) Nagusitasun-moldaera diogunean U. Weinreich eta Fishmanek (Weinreichen norbanako ikuspegitik gizataldekora aldatuz) erabilitako *dominance configuration* delakoaz ari gara noski.

(34) Egia da baserri giroan (eta herri-herrixka txikietan) beren buruari hobeto eusten diotela, oro har, hizkuntza ahulek. Hori ez da atzo goizeko deskubrimendua. Euskarari dagokionean ikus, besteak beste, Kardeberazen 1761eko *Euskararen Berri Onak* delakoa edo Ordoñez apaizak urte hartan bertan Donostiako hiriaz eta hiri-inguruaz egindako deskribapen zehatza.

(35) Belgikan alferrik bilatuko duzu belgierarik, Suitzan (idatzizko jardunean) suitzerarik eta Austrian austrierarik. Norvegian, bestalde, norvegiera bakarraren ordeztu bi aurkituko dituzu: boksmal eta nynorsk. Kroaziak eta Serbiak hizkuntza bana dutela esatea, azkenik, egia den zati bat estaltzea da.

(36) Ez ahaztu, halere, ingelesa bere "lekutxo" irabazten hasia dela hor: Lehen eta Bigarren Hezkuntzan asinatura moduan, eta hori baino era aktiboagoan unibertsitateko goren-maila espezializatueta eta, batez ere, ikerkuntzaren esparruan.

(37) Hurrena datozen horien artean, batetik bestera alde handiaz halere, honako hauek aipa litezke: txinoa, errusoa, india, arabiera, espainola, frantsesa, portugesa, alemana eta italiera. Japoniera atzean, multzo horretatik kanpora, gelditzen da bere XX milioi hitzunekin. Zer esanik ez poloniera bere 44 hitzunekin, turkiera bere Xxekin eta, are, Afrikako ekialdean benetako *lingua franca* (merkatuko salerosote eta harreman-tratuak lagun) bihurtzen ari den swahili azkarra.

(38) Irlandaren moduko kasuak ere hor daude, jakina, eta ez genituzke alde batera utzi behar.

(39) Badakit, ondo jakin ere, eztabaida bizia sortzen duen puntua dela hori, batez ere gure artean. Nire iritzia hori da, eta halaxe adierazten dut. Mereziko luke, halere, soziokulturazko muga-hesiaren aski izate hori berariazko txosten batean lantzea eta, ahal den neurrian, argitzea. Gure gizarte honen hainbat katramila oinarritzko iritzi-uste horren inguruko eztabaidarekin loturik (ez diot, honenbestez, kausalki loturik) dagoela gauza jakina da.

(40) Ezer garbi baldin badago horixe baitago garbi hizkuntzaren soziologoarentzat, gure berdintasun-aldarrikapenak gora-behera: ingelesa indartsuagoa dela (gaur) frantsesa baino, frantsesa indartsuago polakoa baino, polakoa indartsuago estoniera baino, estoniera indartsuago euskara baino, euskara indartsuago bretoiera baino, eta abar.

(41) Ezaugarri guztiak ez, ordea. Aginte-esparrutik (agintedun izanik, hortaz) egiten den saioa omen da language planning prototipikoa: the *authoritative* allocation of resources. Jakin badakigu, berriz, RLS gehienek patua oso bestelakoa dela: egiten duten saioa aginte-ahalmen txikiz, edo kasik ahalmenik gabe, mamitu behar izatea. Zenbaitek, hori dela eta, bi plangintza-modu bereizten ditu: goitik beherakoa batetik, aginte bidezkoa alegia; eta RLStik hurbilago dagoen behetik gorakoa bestea (Kaplan eta Baldauf, 1997).

(42) Urrutirago ere joan dira batzuk, sorlekua utzirik: Paris aldera, esate baterako iparraldeko hainbat euskaldun. Gogoan izan kantua: sorterrria utzirik, gazte nintzelarik, Parisera joan nintzen kurajez betherik.

(43) Osoa diogunean ez dezagun ahaztu, halere, *additional languages* direlako (batez ere ingelesaren) hedapen-fenomeno selektiboa hor dagoela: hitz-un-elkarte beregain, autorregulazio soziokulturalaz sendo hornitueta ere egunetik egunera nabarmenago agertzen da *language spread* goi-mailako esfera akademiko-teknologikoan, urrundik urrunerako merkataritzan, luze-zabaleko turismo-garraioetan eta pop-kultura gaztearen kontsumo-joeretan. Haietan hala bada atera kontu besteetan, etorkizunik txuri-gorriean ere.

(44) Kraussen esanetan munduko hizkuntza guztien %20 gutxienez, eta agian %50, galdu egingo dira osorik, edo hiltzorian egongo, hurrengo ehun urtean. Aurrerago begira, eta goazen bidetik goazela, hizkuntza galduen edo galtzeko puntuan dauden portzentaia hori %90era haziko omen da. Kalkulu horien arabera bostehun bat hizkuntza geldituko lirateke bizirik. Munduko hizkuntzen ranking horren lehenengo 500en artean sartzea lortuko ote du euskarak?

(45) Jakin badakigu, gainera, berariazko garrantzia aitortzen diotela, *educational spread* horren baitan, ikasmaterialetako hizkuntza zainduari, irakasleen zuzenketa-lan etengabeari eta ebaluazio-bideei (gurean, adibidez, EGA azterketetan eskatzen den oinarritzko zuzentasun- eta egokitasun-mailari).

(46) Baliteke oker egotea, ez baitut egiaztatze-lan sakonik egin ahal izan, baina *language cultivation* hori alemanezko *Sprachkulturen*kin, eta bide batez ondoren ikusiko dugun *Kultursprache* delakoarekin, estu-estu lotua dagoela uste dut.

(47) Bere zabalean hartu behar da hemen, jakina, hizkuntzalariaren esangura: lanbidezko linguistak ezezik hizkuntza-irakasleak, hiztegi-prestatzaileak, gramatikagileak, argitaletxeetako orrazketa-arduradunak, han-hemengo estilo-liburuen paratzaileak, idazle kontsagratuak eta, guztien buru eta goi-erpin, euskaltzain oso guztiak corpus-plangileen multzo hautetsi horretan sartzekoak dira noski.

(48) Astindua eman baino zerbait gehiago ere egin zuela esango luke norbaitek: egungo eran ezagutzen dugun *Sprachsoziologie*, *sociology of the language* (maiz, baina ez sinonimia hutsez, *sociolinguistics* esan ohi dena) sortu ere berak sortu zuela esango luke zenbaitek. Utz ditzagun ordea eztabaida horiek, gizarte-zientzien garapenaz eta paradigma berrien osakeraz guk baino ikuspegi zabalagoa dutenentzat.

(49) Beste hainbat alorretan bezala, Fishmanen kontzeptu-lanketak eta zehaztapenak zerikusi zuzena du ingelesezko sasi-itzulpen horretan.

(50) Fonetikak eta hitz-altxor berri-erantsiak besterik erakusten digu ordea, aurrerago aipatuko denez.

(51) : *Kultursprache*-ren kontzeptua ere Klossék ekarria digu soziolinguistikaren alorrera. Kasu honetan ez nuke esango, ordea, bere sorkari huts denik. Lehendik, gure artean Urkixo tarteko zelarik, han-hemen erabili izandako *lengua de civilización* delakoarekin lotu beharko genuke, izan ere, *kultur hizkuntza*ren kontzeptu hori. Eta, tarte-bitartean, (1932 inguruan) Pragako eskolaren *Spisovná čeština a jazyková kultura* izan dezakegu lokarri sendoena (cf. Fishman 1974: 418). Ikus, orobat, *language cultivation* delakoaz aurreraxeago esan dena. Ikusteko legoke, azkenik, Klossen *Kultursprache*k ez ote zuen Krutwigen (eta, bere bidez, Villasanteren eta abarren *kultur hizkuntza*, *kultur euskara* delakoan eraginik izan.

(52) cf. *exlaborare* / *ausbauen* bikotea, itxura osoz Berbizkunde garaiko *intertranslatability*aren saio aleman bidetik sortua.

(53) Fonetika aldetik ere aski ezagunak dira gaztelaniarekin eta gaskoinarekin ageri dituen antzekotasunak. *Entstehung* horrek kode-sorkuntzara (*codification* delakora) garamatza noski; *Entwicklung* delakoak, berriz, hizkuntza honen garapen funtzional da estilistikora.

(54) Bada hemen, azkenik, iragaitzaz bederen aipatu beharreko puntua: euskara bezalako Abstand-hizkuntzek, beren barne-egitura hain berezi horri eskerrak, *Big Brother*en mendean ez erortzeko ahalmen handiagoa omen dutela. Mackey batek espresuki esana du hori.

(55) (cf. Donostialdeko antzerkigintza, 1880 ingurutik aurrekoa eta, oso bereziki, *Euskal Iztundear*en sarrera eta urtealdi luzeko ibilera).

(56) Ohargarria da, alde horretatik, euskararen idazlanketak eta Kulturspacherako gorabideak izan duen bilakaera sinkretikoa: Detxepare eta Oihenarte daude batetik, beren bertso, neurtitz eta atsotitzekin, baina Leizarraga (Bibliaz) eta Axular (arima zerura eramaten laguntzeko *Gero*-az) bestetik.

(57) Bere hitzetan esateko, "eindeutig zur Schiftsprache wird eine Mundart erst auf der dritten Stufe".

(58) Hala izan behar lukete, behintzat, euskararen osasunaz kezkatutik gauden euskaldun ikasientzat.

(59) Berririo azpimarratuko dut, halere, Klossi berari ez diodala baieztapen espresu hori irakurri. Esplikazio gehienak, hori bai, ikuspegi horrekin loturik ageri dira.

(60) Hots, XX. mendearen erdialdeko (eta, are, gaur eguneko) linguistikarentzat aski arrotz eta ezkongaitz gertatzen den paradigma berri bati atea zabalduz.

(61) Buruz ari naiz oraingoan, orduko paperetara ez baitut aspaldi honetan itzultzerik izan. Funtsezko puntuetan badakit, halere, ez naizela asmakizunetan ari: ondo gogoan ditut bertako hainbat argudio.

(62) Baieztapen hori ere matizatu beharra dago: 1900 inguruan hasita existitu izan dira berez, Bilbo inguruan lehenik eta lurralde-esparru zabalagoetan gero, *Reversing language shift* moduko planteamenduak. Inoiz gutxitan hezurmamitza iritsi ziren, ordea, egitasmo horiek.

(63) Postulatu honen lehenengo atala, perspektiba soziolinguistikoko sendoan txertaturik, aski era dotore eta erakargarrian eskaini zigun Sánchez Carrión "Txepetx"-ek bere "Un futuro para nuestro pasado"-n. Beti harritu izan nau nolatan inork ez dugun seinalatu formulazio hori Rikardo Arregiren garaitik zeharo ezagun eta etxekotua genuela. Euskaltzale-jendearen eta sareen ahula antzematen da, besteak beste, ezaguera-falta horretan.

(64) Azterketa pausatu batek askotxo luzatuko luke, halere, oihartzun-jasotzaileen zerrenda hori: Nelde eta Haarman, Green eta Lüdi hor sartzekoak genituzke, besteak beste.

(65) Ikus horretaz, adibidez, Kremnitz (1990: 33 – 4)

(66) Etorri, halere, lehendik dator izendapen horietariko batzuk. Praga Eskolatik (Hawránek, 1958), oker ez basnago.

(67) *Lehenengoz* diogunean gure artean lehenengoz esan nahi dugu noski. Terminoa bera Benvenuto Terracini kaleratua bait zuen 1957an, bere *Conflitti di lingue e di cultura* ezagunean eta Haugenek, handik gutxira (1966) lau haizeetara zabaldu. Azalari ez baina mamiai bagagozkio, aldiz, Mattheier-ek (1987) diotenaren ildotik XIX. mendera eta are lehenagoko iturrietara jo beharko genuke: etxeko bibliografiari dagokionez XVIII. mendera bete-betean (Larramendi eta Kardaberaz tarteko izanik) eta are, orain izen handirik ezin eman badezaket ere, XVII.era edo are harantzago.

(68) Kontura gaitzen *konfliktu-gatazkaren* deskribapena, erro-errotik, gure artean gailendurik dagoen horretatik aski bestelakoa dela. Baita hizkuntz plangintza osoa *problem-solving* mekanismotzat definiturik duen nazioarteko eskola osoarentzat ere. Ez litzateke hain zaila gertatuko, aitzitik, Aracilen baieztapen (guretzat) harrigarri hori MacRaeren eta Fishmanen kontzeptu-markoetan txertatzea.

(69) *Sortzaile* diogunean badakigu hitz hori ere, beste hainbat ere, lehendik datorrela. Formulazio soziolinguistiko garaikidean 1959an du, ordea, abiaburu operatiboa.

(70) Oker jakatuko genuke, gainera, diglosia eta konfliktu-gatazka elkarren eskutik (lehenak azkena sortzen duelarik, hain zuzen) datozela dioen pentsaera-modua soziolinguistika katalanean, eta are Ninyolesengan, zentratuko bagenu osorik. Ez sorreraz eta ez garapenez da ikusmolde hori kataluniakoa huts-hutsik. Gogora dezagun, hasteko, Haugenek berak (1962: 63) *schizoglossia* sortu zuela diglosiaren ildotik, "a linguistic malady"-rekin ezkondu asmoz. Bai ikusmolde horrek, bai P. Wexler-enak (1971: 321 eta hurr.) eta bai beste hainbatenek auzipean jarri izan dute, aspalditxodanik, Fergusonen eta Fishmanen *diglosia egonkoraren* definizioa. Penelope Eckert izango dugu, akaso, kontraformulazio horren adierazlerik argiena: "if the language of a community does not serve all the needs of that community, and express all the interests of its people, there is a serious danger of division and ultimate dissolution of the community." (Eckert, 1980: 1063).

Gauza bat dago hemen garbi, ezer garbi izaterik baldin badago: Fergusonek eta Fishmanek definituriko diglosia (hizkuntza edo aldaera biren konpartimentazio funtzionala jenerala da definizioz (hiztun-talde edo hiztun-elkarte osora hedatua) eta egonkorra (hiru belaunaldiz, bederen, bere horretan irauten duena). *Egonkorra* ez denari *diglosia* deitza, horixe da benetako istilu-iturria, mende-laurden luzearen buruan oraindik askatu ezinik gabiltzen hari-mataza bihurria. Eta honetan, euskaldunoi dagokigunez behintzat, Ninyolesen eta eskola-giro horretako hainbat espezialisten eragina erabatekoa izan dela uste dut.

(71) Kontuan izan bedi horiexek direla, hain zuzen, Giles, Taylor eta Bourhisen *ethnolinguistic vitality* konstruktuen osagai nagusiak.

(72) Iazko liburu honek aski adierazgarria du izenburua bera: *Can threatened languages be saved?* Iritsi garen debilitate-puntura iritsi garelarik, *iya guriak egin duen* honetan, gure gaitzak zer sendabide duen galdetu ordez inolako erremediorik ba ote duen: hori da lehenengo-lehenengo galdera. Galdera etsia, noski, baina funtsezkoa ere bai.

(73) Luze baino lehen, sare-aldizkari honetan (erabili.com-eko Iritzi-muinetik sare-aldizkarian) irakurtzeko aukera izango duzu irakurle.

ERANSKINA

Pragako eskola, hizkuntza batua eta *language loyalty*

Hizkuntza batuak, *standard language* delakoak, gutxitan izan du linguistikaren alorrean hain aztertzaile zorrotz eta hain teorizatzaile sendorik, Pragako eskola bezalakorik. Eskola horren ekarpenen berri izatea ez da beti-beti, hizkuntza eslaboez dugun ezaguera faltagatik, hain lanbide erraza. Bertako lanen artean Havranek batenak izango ditugu, ingelesera itzulita dauden neurrian, agian, eskuragarrienak. Horiek eta, batez ere, Paul Garvin soziolinguistak horretaz idatzitakoak (Garvin, 1973: 367). Gatozen hortaz, atzera-aurrera handiagorik gabe, Pragako Eskolaren ekarpen horien azalpen laburrera.

Three sets () of criteria for a standard language:

1. Intrinsic properties
2. Functions
3. Attitudes towards the standard language.

- 1. Properties of a Standard Language
 - 1.1. Flexible stability: stabilized by appropriate codification, allowing the modification in line with culture change:
 - 1.1.1. Two things in codification: the construction of a codified norm (grammars and dictionaries, made by codifying agency (-ies); the enforcement of the norm by control over speech and conting habits (orthoëpy and orthography, achieved through the schools);
 - 1.1.2. Modification and expansion. Systematic expansion of the lexicon and an equally systematic expansion of stylistic and syntactic possibilities.
 - 1.2. Intellectualization: adaptation of the standard languages to the goal of making possible precise and rigorous, if necessary abstract statements:
 - 1.2.1. Lexikoan, development of more clearly differentiated terms + increase in abstract and generic terms;
 - 1.2.2. Gramatikan, development of word formation techniques and of syntactic devices allowing for the construction of elaborate () compound sentences + eliminate elliptic modes of expression by requiring complete constructions. Intellectualization: greater relational systematization and explicitness of statement.
- 2. Functions of a standard language

Three symbolic functions: unifying, separatist + prestige function. One objective function: frame-of-reference function.

- 2.1. Unifying function: a link between speakers of different dialects, uniting them into a single speech community; identification of the individual speaker with the larger language community. Paraguayans think of

themselves as speakers of Guaraní, not as speakers of any of its dialects. This function opposes the standard language to the dialects.

- 2.2. Separatist function. This function opposes a standard language to other languages. This (is) a powerful symbol of separate national identity + the individuals identification with his language community is then no longer a matter of course but becomes highly emotionally charged.
 - 2.3. Prestige function. There is prestige attached to the possession of a standard language. Guaranirekin, the prestige function has () been transferred from the possession of a functioning standard language to the possession of a potential standard language.
 - 2.4. Frame-of-reference function
 - 2.4.1. The codified norm of a standard language constitutes a yardstick (irizpide) for correctness. Individual speakers and groups are judged in terms of their observance of this yardstick;
 - 2.4.2. Esthetic function: property of speech forms to attract attention primarily to themselves rather than to the message they convey (Arantz Mitx 68)
- 3. Attitudes toward a standard language: language loyalty, pride and awareness of the norm:
 - 3.1. Language loyalty: desire of a speech community to retain its language and, if necessary, to defend it against foreign encroachment. Although language loyalty may be given to a form of folk speech, it becomes highly organized and articulated when it is given to a standard language, especially one that has not yet become sufficiently stabilized and generally recognized.

BIBLIOGRAFIA

Ada, A. F. eta Baker, C. (2001)

Guía para padres y maestros de niños bilingües. Clevedon: Multilingual Matters

Ammon, U. (ed.) (1989)

Status and Function of Languages and Language Varieties. Berlin / New York: de Gruyter.

Ammon, U. eta M. Hellinger (eds.) (1992)

Status Changes of Languages. New York: Walter de Gruyter.

Aracil, L. V. (1982)

Papers de sociolingüística. Barcelona: La Magrana

Argente, J. D. (1988)

Language Contact, Language Conflict and Generalized Bilingualism Policies, in *II. Euskal Mundu Biltzarra. II. Atala: euskara eta gizartea*, 131-44 or. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Bastardas, A. eta Sore, J. (ed.) (1988)

Sociolingüística i llengua catalana. Barcelona: Ed. Empúries.

Bentahila, A. eta E. Davies (1993)

Language revival: Restoration or transformation? *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 14 (5), 355-73 or.

Bloomfield, L. (1933)

Language. New York: Holt, Rinehart and Winston.

Bourdieu, P. (1991)

Language and Symbolic Power (editore eta sarreragile J. B. Thompson). Cambridge: Polity Press.

Cartwright, D. (19)

Cobarrubias, J. (1988)

Normalización y Planificación Lingüística en el País Vasco, in *II. Euskal Mundu Biltzarra. II. Atala: hizkuntza eta gizartea*, 145-72 or. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Colomer, J. M. (1996)

La utilitat del bilingüisme. Barcelona: Edicions 62.

Comhairle Na Gaeilge (1974)

Implementing a Language Policy, in J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* (526-53 or.). The Hague: Mouton.

Cooper, R. L. (ed.) (1978?)

Language Spread. Studies in Diffusion and Social Change. Bloomington: Indiana University Press.

- Cooper, R. L. (1989)
Language Planning and Social Change. Cambridge: Cambridge University Press.
- Eckert, Penelope (1980)
 "Diglossia: separate and unequal" in *Linguistics* (The Hague), XVIII, 1053-64 or.
 - (1983)
 "The paradox of national language movements", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development* (Clevedon, USA), IV, 289-300 or.
- Edwards, J. (1992)
 Sociopolitical aspects of language maintenance and loss: Towards a typology of minority language situations. In W. Fase, K. Jaspaert and S. Kroon (eds.) *Maintenance and Loss of Minority Languages* (37-54 or.) Philadelphia, PA: John Benjamins.
- Edwards, J. (1993)
 Language revival: Specifics and generalities. *Studies in Second Language Acquisition* 15, 107-13 or.
 - (1994)
 Ethnolinguistic pluralism and its discontents: A Canadian study and some general observations. *International Journal of the Sociology of Language* 110, 5-82 or.
- Ellis, P. B. eta Mac a 'Ghobhainn, S. (1971)
The problem of Language Revival: Examples of Language Survival. Inverness: Club Leabhar.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (1999)
Euskara Normalizatzeko Plan Nagusia. Donostia: Euskararen Kontseilua.
- Eusko Jauriaritza (1998)
Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.
- Fellman, J. (1974)
 The Role of Eliezer Ben Yehuda in the Revival of the Hebrew Language: An Assessment, in J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* 427-55 or. The Hague: Mouton.
- Ferguson, C. A. (1968)
 Language Development. In J. A. Fishman, C. A. Ferguson and J. Das Gupta (eds.) *Language Problems of Developing Nations* (27-35 or.) New York: Wiley and Sons.
 Standardization as a form of language spread. In P.H. Lowenberg (ed.) *Language Spread and Language Policy: Issues, Implications, and Case Studies*. 119-32 or. Washington: Georgetown University Press.
- Fishman, J. A. (1965)
Language Loyalty in the United States. The Hague: Mouton.
- Fishman, J. A. (ed.) (1974)
Advances in Language Planning. The Hague: Mouton.
- Fishman, J. A. (1984)
 On the peculiar problems of smaller national languages. In González (ed.) *Panagani: Essays in Honor of Bonifacio Sibayan on his sixty-seventh Birthday*. Manila: Linguistic Society of the Philippines, 40-5 or. Erabilitako iturria Fishman 1989: 368-75 or.
 - (1985)
The Rise and Fall of the Ethnic Revival. Berlin: Mouton.
 - (1989)
Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective. Clevedon: Multilingual Matters.
 - (1991)
Reversing Language Shift. Clevedon: Multilingual Matters.
 - (2001)
Can threatened language be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective. Clevedon: Multilingual Matters.
- Gal, S. (1979)
Language Shift: Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria. New York: Academic Press.
- Garvin, P. L. (1973)
 Some comments on language planning. In J. Rubin eta R. Shuy (ed.) *Language Planning: Current Issues and Research* (24-73 or.). Washington: Georgetown University Press. Erabilitako iturria *Advances in Language Planning* J. A. Fishman, (ed.), 1974: 69-78 or.
- Giles, H., D.M. Taylor eta R. Bourhis (1977)
 Towards a theory of language in ethnic group relation, in H. Giles (ed.) *Language, ethnicity and intergroup relations* (307-48.or.). London: Academic Press

Hamers, J. F. eta Blanc, M. (1983)
Bilingualité et bilinguisme. Bruxelles: Pierre Mardaga, éditeur.

Haugen, E. (1959)
Planning for a standard language in Norway. *Anthropological linguistics* 1 (30), 8-21 or.
- (1962)
Schizoglossia and the Linguistic Norm, in Georgetown University Round Table, Monograph Series on Languages and Linguistics, XV, 63-9 or.
- (1966)
Linguistics and Language Planning in Bright, W. (ed) *Sociolinguistics. Proceedings of the UCLA sociolinguistics Conferences, 1964*. The Hague: Mouton.
- (1966)
Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian. Cambridge: Harvard University Press.
- (1983)
The implementation of corpus planning: Theory and practice. In J. Cobarrubias and J. A. Fishman (eds.) *Progress in Language Planning* (269-89 or.) The Hague: Mouton.

Havránek, Bohuslav (1938)
Zum Problem der Norm in der heutigen Sprachwissenschaft und Sprachkultur, in *Actes du Congrès International de Linguistes, Copenhagen 1936*. Copenhagen, 151-6 or.

Hill, J. (1993)
Structure and practice in language shift. In K. Hyltenstam and A. Viberg (eds.) *Progression and Regression in Language: Sociocultural, Neuropsychological and Linguistic Perspectives* (68-93 or.) Cambridge: Cambridge University Press.

Hornberger, N. H. (1988)
Bilingual Education and Language Maintenance. Providence, RI: Foris Publications.

Hornberger, N. H. and King, K. A. (1996)
Language Revitalization in the Andes: Can the schools reverse language shift? In *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 17 (6), 427-41 or.

Hyltenstam, K. eta Viberg, A. (ed.) (1993)
Progression and Regression in Language: Sociocultural, Neuropsychological and Linguistic Perspectives. Cambridge: Cambridge University Press.

Hyltenstam, K. eta Stroud, C. (1996)
Sprakbyte och Sprakbevarande. Om Samiskan och Andra Minoritetssprak. Lund: Studentlitteratur.

Jones, M. C. (1998)
Language Obsolescence and Revitalization: Linguistic Change in Two Sociolinguistically Contrasting Welsh Communities. Oxford: Oxford University Press.

Kaplan, R. B. eta Baldauf, R. B. Jr. (1997)
Language Planning: From Practice to Theory. Clevedon: Multilingual Matters.

King, K. A. (2001)
Language Revitalization Processes and Prospects: Quichua in the Ecuadorian Andes. Clevedon: Multilingual Matters.

Kloss, H. (1952)
Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800. München: Pohl.
- (1966)
Types of Multilingual Communities: A Discussion of Ten Variables. *Sociological Inquiry* 36: 135-45 or.
- (1969) *Research Possibilities on Group Bilingualism: A Report*. Quebec: International Center for Research on Bilingualism.

Krauss, M. (1998)
The scope of the language endangerment crisis and recent response to it, in K. Matsumura (ed.) *Studies in Endangered Languages. Papers from the International Symposium on Endangered Languages, Tokyo, 18-20 November, 1995* (101-14 or.) Tokyo: Hituzi Syobo.
- (1992)
The world's languages in crisis. *Language* 68 (1), 4-10 or.

Kremnitz, G. (1990)
Gesellschaftliche Mehrsprachigkeit. Institutionelle, gesellschaftliche und individuelle Aspekte. Ein einführender Überblick. Wien: Braumüller.

Kremnitz, G. (ed.) (1979)
Sprachen in Konflikt. Theorie und Praxis der katalanischen Soziolinguisten. Eine Textauswahl. Tübingen: Narr.

- Kulick, D. (1992)
Language Shift and Cultural Reproduction: Socialization, Self, and Syncretism in a Papua New Guinean Village. Cambridge University Press.
- Lambert, W. E. eta Tucker, G. R. (1972)
Bilingual education of children: the St. Lambert experiment. Rowley: Newbury House.
- Lee, T. eta McLaughlin, D. (2001)
Reversing Navajo Language Shift, Revisited, in J. A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* (23-43 or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- Lowenberg, P. H. (ed.)
Language Spread and Language Policy: Issues, Implications, and Case Studies. Georgetown University Round Table on Languages and Linguistics, 1987. Washington: Georgetown University Press.
- Macnamara, J. (1971)
Successes and failures in the movement for the restoration of Irish. In J. Rubin and B. H. Jernudd (eds.) *Can Language be Planned? Sociolinguistics Theory and Practice for Developing Nations* (65-94 or.) Honolulu, HI: East-West Center, University of Hawaii Press.
- Maguire, G. (1991)
Our Own Language: An Irish Initiative. Clevedon: Multilingual Matters.
- Mattheier, Klaus J. (1987)
"Sprachkonflikt". Terminologische und begriffsgeschichtliche Überlegungen, in Oksaar, Els (ed.) *Soziokulturelle Perspektiven von Mehrsprachigkeit und Spracherwerb*, 289-99 or. Tübingen: Narr.
- Myhill, J. (1999)
Identity, territoriality and minority language survival. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 20(1), 34-50 or.
- Nelde, P., M. Strubell eta G. Williams (1996)
Euromosaic: Production and reproduction of minority language communities in the European Union. Luxembourg: Commission of the European Communities.
- Neustúpný, J. V. (1974)
Basic types of treatment of language problems. In J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* (37-48 or.) The Hague: Mouton.
- Ninyoles, R. Ll. (1972) (erabilitako argitaraldia: 1980)
Idioma y poder social. Madrid: Tecnos.
- Ó Riagáin, P. (1997)
Language Policy and Social Reproduction: Ireland 1893-1993. Oxford: Clarendon Press.
- (2001)
Irish Language Production and Reproduction 1981-1996 in J. A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* 195-214 or. Clevedon: Multilingual Matters.
- Paulston, C. B., Chen, P. C., and Connerty, M. C. (1993)
Language genesis: A conceptual overview of language revival, revitalization and reversal, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 14(4), 275-86
- Prague School (Paul L. Garvin, trans.) (1974) (jatorriz 1932koa)
General Principles for the Cultivation of Good Language in J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* 417-26 or. The Hague: Mouton.
- Prats, M., A. Rafanell eta A. Rossich (eds.) (1990)
El futur de la llengua catalana. Barcelona: Empúries.
- Ramirez, C. (ed.) (2000)
Spanish and English in Puerto Rico: past, present and future. *International Journal of the Sociology of Language* 145 (ale osoa).
- Ray, P. S. (1963)
Language standardization: Studies in Prescriptive Linguistics. The Hague: Mouton.

Romaine, S. (1994)
Language in Society. An Introduction to Sociolinguistics. Oxford: Oxford University Press.

Rubin, J. eta Jernudd, B. H. (eds.) (1971)
Can Language Be Planned? Sociolinguistic Theory and Practice for Developing Nations. Honolulu: East-West Center. The University Press of Hawaii.

Sánchez Carrión, J. M. "Txepetx" (1972)
El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- (1974): Bilingüismo, Diglosia, Contacto de Lenguas, in *ASFVJU VIII*, 3-79 or.
- (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*.

Sibayan, B. P. (1974)
Language policy, language engineering and literacy in the Philippines. In J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning*, 221-54 or.

Spolsky, B. (1995)
Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori. *Current Issues in Language and Society* 2 (3), 177-201. Orobát (1996) In S. Wright (ed.) *Language and the State: Revitalization and Revival in Israel and Eire* (5-50 or.) Clevedon: Multilingual Matters.

Spolsky, B. eta E. Shohamy (2001)
Hebrew After a Century of RLS Efforts, in J. A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* (350-63 or.). Clevedon: Multilingual Matters.

Stewart, W. (1968)
A sociolinguistic typology for describing national multilingualism. In J. A. Fishman (ed.) *Readings in the Sociology of Language* (531-45 or.) The Hague: Mouton.

Strubell, M. (1998)
Can sociolinguistic change be planned?, in *Proceedings of the 1st European Conference "Private Foreign Language Education in Europe. Its contribution to the Multilingual and Multicultural Aspect of the European Union"*. Thessaloniki, November 1997 (23-31 or.) Palso, Thessaloniki.
- (2001)
Catalan a Decade Later, in A. J. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* (260-83 or.) Clevedon: Multilingual Matters.

Terracini, B. (1957)
Conflitti di lingue e di cultura. Venezia: Neri Pozza.

Travaux de la Conférence Internationale. Luxembourg (1928)
Le bilinguisme et l'éducation. Geneve: Bureau Internationale d'Education.

UNESCO (1953)
L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement. Paris: UNESCO.

Vallverdú, F. (1972)
Ensayos sobre bilingüismo. Barcelona: Ediciones Ariel.
- (1980)
Aproximació crítica a la sociolingüística catalana. Balanç dels estudis de sociologia lingüística als Països Catalans. Barcelona: edicions 62.

Veltman, C. (1988)
The Future of the Spanish Language in the United States. New York City and Washington D. C. : Hispanic Policy Development Project.
- (1991)
Theory and Method in the Study of Language Shift. in J. R. Dow (ed.) *Language and Ethnicity Vol II.*, 145-n or. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamin.

Ventura, J. (1963)
Les cultures minoritàries europees. Barcelona: Ed. Selecta.

Weinreich, U. (1953)
Languages in contact. Findings and problems. New York: The Linguistic Circle of New York.

Wexler, P. (1971)
"Diglossia, language standardization and purism" *Lingua XXVII*, 330-54 or.

Wurm, S. A. (1991)
Language death and disappearance: Causes and circumstances. *Diogenes. Cultural Heritage: Endangered Languages. Theme Issue 153*, 1-18 or.

Zalbide, M. (1990)
Euskal eskola, asmo zahar bide berri. In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*, 211-71 or. Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1991)
Eskola-giroko hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa. In Elkarren artean *Eskola hiztun bila* (13-43 or.) Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1998)
Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas. In *RIEV*, 43, 2 (355-424 or.)
- (2000)
Irakas-sistemaren hizkuntz normalkuntza: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat. *Eleria* 5: 45-61 or.

Zentella, A. C. (1997)
Growing Up Bilingual. Puerto Rican Children in New York. New York: Blackwell.



[Artikulura bueltatzeko:](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834)
http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834